



"Eredu berria  
aurkeztu  
nahi diogu  
gizarteari

Markel Olano |  
EAJren bozeramailea GBN-n | 7



Skate  
txapelketa  
bihar Bergaran

Gipuzkoa mailako  
lehiaren bigarren  
saioa Lainon da | 28

Bergarako San Pedroko organoa  
inauguratu zutela 125 urte | 11



Manifestazioa egingo dute  
Cegasako langileek bihar | 3



Umorezko kanpaina onenaren saria  
Larrañaga antzuolarrarentzat | 25

## 'LASA ETA ZABALA' FILMA, DEBAGOIENEN PARTAIDETZAREKIN

Aitor Mantxola oñatiarrak kamera atzean  
eta Mariasun Pagoaga arrasatearrak  
kamera aurrean dihardute lanean | 30



Filmeko teknikari  
eta aktoreak,  
Tolosako hilerrian  
filmatu zuten  
egunean.  
Garbian, Aitor  
Mantxola.

JOSE HARO

### SINADURAK

-  Kooperatibismoaren etorkizuna | 8  
MIKEL LEZAMIZ
-  8 | Ipar Koreatik bueltan  
LEIRE KORTABARRÍA
-  Esku (bideak) | 25  
OIER PEÑAGARIKANO
-  40 | Herria dute arnas  
AGURNE BARRUSO

## Iheslariak etxeratzeko babes eta elkartasun sarea eskatu dute

Gaur egungo iheslarietarako "herriaren" laguntza eskatu dute Iheslari ohiek | 4

### HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"400.000 euroko  
soberakina eman  
du iazko itxierak"

ANA BOLINAGA  
Aretxabaletako alkatea | 22



943 71 48 45

## Hemen

GARBIKETAK

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,  
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

2.  
FASEA



herritarrekin  
martxan en marcha



Gipuzkoa

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)


GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA  
HOBETU NAHI DUZU?

Zoaz 2. orrialdera.



**2.**  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herritarrekin**  
martxan en marcha



**Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU**  
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

**Gipuzkoa**  
BERRIA

### GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

### DEBAGOIENeko HERRIETAN EGINGO DIREN BILERAK

HERRIA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Oñati	Martxoak 24	18:30	Udalbatza aretoa
Bergara	Martxoak 25	18:30	Irizar Jauregia
Elgeta	Martxoak 26	18:30	Udalbatza aretoa
Arrasate	Martxoak 27	18:30	Kulturate
Leintz Gatzaga	Martxoak 28	18:30	Udalbatza aretoa
Aretxabaleta	Martxoak 31	18:30	Arkupe
Eskoriatza	Apirilak 1	18:30	Kultura etxea
Antzuola	Apirilak 2	18:30	Olaran

# Manifestazioak egingo dituzte Cegasako langileek

Bihar (zapatua) Gasteizen eta martxoaren 29an Oñatin aterako dira kalera

UBANE MADERA | OÑATI

"Lanpostuen eta Cegasa Taldearen Industria-proiektuaren iraunkortasunari eusten lagunduko dion irtenbide hoberenaren" alde deitu ditu bi manifestazioak Cegasa Taldeko enpresa batzordeak: bihar, zapatua, Gasteizen (Bilbao plazatik aterata, 19:00etan) eta hurrengo zapatuan, martxoaren 29an, berriz, Oñatin (12:00etan).

**Ordainsari batzuk kobratzeke**  
"Cegasa Taldeko langileok eta hauen ordezkariok gure lanpostuak galtzearen beldur gara. Cegasa Taldeko langileok jasaten ari gara zuzendaritzak hartu dituen erabaki okerren ondorioak, non 900 langile baino gehiago lanik gabe utz gaitzaketen".

Beldur hori abiapuntu, ELA, LAB, CCOO, ESK eta UGT sindikatuek osatutako Cegasa Taldearen enpresa batzordeak salatu du taldearen zuzendaritzak hartzekodunen aurre-konkurtsuan sartzeko erabakia hartu izanak bezero eta hornitzaileen artean "ikara" eragiteaz gainera, "egoera hobetu baino ezegonkortasuna handitzea eragin" duela, eta horrek "bizkortu" egin duela hartzekodunen konkurtsuan sartzea.

"Ezegonkortasuna horrenbeste izanik, enpresak behin eta berriz ez ditu bete langileei soldata ordaintzera behartzen dituen akordioak. Maiatzeko nominaren %50a ez die ordaindu,

ez die ordaindu ere uztaileko ordainsari osoa eta ordaindu, 750 euro bakarrik ordaindu du, martxoari dagokiona; kobratzeke atzerapenen zati bat eta otsaileko nominak daude", salatu dute. Eta horren guztiaren erantzule zuzendaritza eta "haren administratzaile bakarra den Aitor Medina" egiten dute.

**"Soldata izozteak" eta beste**  
Enpresa batzordeak gogora ekarri du 2008an hasi zela Cegasa Taldearen gainbehera. Pila alkalinoen ekoizpena Txinara eramane zuten orduan: "Lan-talde murrizketak eta soldata izozteak jasan behar izan ditugu, lan eskubideak murriztu izan zaizkigu... eta azkenik, 2013ko uztailetik 2014ko otsailera arte ERE bat ezarri digute". Hain justu, zeharkako langileei ezarri zieten lan erregulazio espediente hori.

**Arduren garbiketa**  
Orain, manifestazioak deitzeaz gain, enpresa batzordeak iragarri du hiru helburu lortzen ahaleginduko dela: banketxe hartzekodunei eskatuko diete "bide zirkulatzailak zabalik izan ditzatela enpresen iraunkortasuna bideragarria izan dadin"; Eusko Jaur-laritzari, Arabako Diputazioari eta "dagozkien beste erakundeek" lagun ditzaten eskatuko diete.

Eta "ardurak garbi daitezen" ere eskatuko dute, "zuzendaritzak

egin duen kudeaketa kaltegarriaren harira".

**Bi administratzaile izendatuta**  
Bien bitartean, zuzendaritzatik konfirmatu dute epaileak hartzekodunen konkurtsuaren prozedura onartu ostean, bi konkurtsu administratzaile izendatu dituztela. "Behin izendatuta, hilabete dute hartzekodunekin harremanetan jartzeko. Eta euren (administratzaileen) zeregina izango da enpresaren egoera aztertu, parte guztiak entzutea... edozelan ere, ez dakigu prozesu hori noiz abiaraziko duten".

**Erregulazio espedienteak**  
Horrekin batera, gaur (egubakoitza) hitzordua dute zuzendaritzak eta enpresa batzordeak Gasteizko fabrikari, 09:00etan hasita. LAB sindikatuko ordezkariak Goienari esandakoaren arabera, helburua da ezarri gura duten lan erregulazio espedientearen (EREa) baldintzak negoziatzea. "Entzun egin beharko dugu zela-ko EREa planteatzen duten, eta horren arabera erabaki", adierazi dute.

Era berean, sindikatuko ordezkariak espero dute biharko batzurrean emango dietela hartzekodunen konkurtsuaren prozeduraren gaineko xehetasun gehiago; besteak beste, izendatutako bi administratzaileen asmoen berri jakin nahi dute.

Unai Erroitzenea | Garraio Publikoko zuzendaria

## "Garraio publikoaren proiektu berria aurtengo uztailean lizitatuko da"

Astelehenean (martxoaren 24) hasiko dira herriz herri aurreproiektua azaltzen

U.M. | DEBAGOIENA

Herritarrekin martxan, autobus zerbitzu publikoa hobetzeko prozesuaren bigarren fasea hasiko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Datorren astean, herritarrekin bilerak egingo dituzte, aurreproiektua aurkezteko. Unai Erroitzenea, Diputazioako Mugikortasun eta Garraio Publikoko zuzendariak eman ditu xehetasunak:

**Zer egingo duzue bigarren fase horretan?**

Gipuzkoako 56 herritan prozesu parte-hartzailea burutzen ari gara herri arteko autobus zerbitzuaren gainekoa. Lehen fasea 2013ko urria-azaroan herritarrengandik ekarpenak jaso genituen: Gipuzkoan 3.000 eta Debagoienean 1.700 ekarpen. Horiatik abiatuta proposamen tekniko edo aurreproiektua landu dugu. Eta bigarren fasea da aurreproiektu hori Udalekin bai herritarrekin aztertzeke; erakusteko ze ekarpen jaso diren; jaso ez direnak zergatik ez diren jaso azaltzeko; eta aukera ikusten bada beste ekarpenen bat egiteko edo aurreproiektua hobetzeko, ba ekarpen horiek ere jasotzeko. Gogoratu fase honetako parte-hartze prozesua burutzen denean, behin betiko proiektua idatziko dugula eta uztailean aldera-edo lizitazioan jarriko dugu, 2015 hasieran martxan jartzeko zerbitzu berria.

**Iragarri dituzue, baina, berritasun batzuk Debagoienerako...**

Bai. Autobus zirkularra bi noranzkotan, adibidez: Arrasate-Bergara-Antzuola-Zumarraga-Legazpi-Oñati-Elorregi-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza. Batzuk Leintz Gatzagara ere iritsiko dira; gaur egun baino zerbitzu gehiago iritsiko dira, beraz. Bilborekin lotura ere sortzen da, egunean sei bat zerbitzu norabide bakoitzean. Saiera berezia egingo da ospitale-guneekin maiztasunak eta zerbitzuak hobetzeko, Arrasateko ospitale-gunearekin eta Txagorritxurekin, hain justu. Eta eskualde arteko lotura hobetu egingo da, autobus zirkularrekin, Urola Garai aldera. **Hau guztiau hala jaso bada, gauzagarri ikusten delako izango dela pentsatzen dut, batez ere, inbertsioei dagokienez...**

Bai. Aurreproiektuan sartu badugu da hori burutzeko konbentzimendu guztia dugulako. Behin betiko proiektura begira ikusi beharko dugu ze ekarpen egiten diren, baina printzipioz ez dugu aurreikusten ez denik esandako hau burutuko.



Erroitzenea. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## "Zerbitzua eraginkorra izan dadin inportantea da parte-hartzea"

**Uztailean, beraz, behin betiko proiektua bukatu eta hori ere aurkeztuko duzue jendaurrean?**

Bai. Uztailean proiektu definitiboa lizitazioan jarriko da eta aurreikusten dena da uda ostean, urria aldera eskualdeko batzarrak egitea (ez herritarrekoak) proiektu definitiboa zertan geratu den eta 2015 hasieran ze zerbitzu mota martxan jarriko den azaltzeko.

**Besterik gura baduzu esan...**

Animatuko nuke jendea parte hartzera. Lehen fasean parte hartu dutenen ekarpenen zati handi bat onartu dira, eta horrek duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke: herritarrek egunero erabili behar duten garraio zerbitzu hori eraginkorra izan dadin eta herritarren beharretara egokitutakoa izan dadin.

### HERRIZ HERRIKO BATZARRAK

**Oñati:** martxoaren 24an, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

**Bergara:** martxoaren 25ean, 18:30ean, Irizar Jauregian.

**Elgeta:** martxoaren 26an, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

**Arrasate:** martxoaren 27an, 18:30ean, Kulturaren.

**Leintz Gatzaga:** martxoaren 28an, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

**Aretxabaleta:** martxoaren 31n, 18:30ean, Arkupen.

**Eskoriatza:** apirilaren 1ean, 18:30ean, kultura etxean.

**Antzuola:** apirilaren 2an, 18:30ean, Orlanen.

## Pereiraren hilketa gaitzetsi

Andina Pereiraren, Mungian bizi zen andrearen, hilketa salatzeke elkarretaratzeak egin dituzte asteon hainbat herritan, besteak beste, Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin eta Arrasaten. Azken horretan, ordu berean egiten zebiltzan osoko bilkura eten eta zinegotziek bat egin zuten.



JON MOÑUX

## Fagor Etxetresnak likidatzen hasiko dira, konkurtsu administratzailearen esanaren arabera

U.M. | DEBAGOIENA

Ezustekorik ezean, Fagorrek egindako likidazio eskaera onartu egingo du epaileak, eta 15 egun baino lehen konkurtsu administratzaileak likidazio plana aurkeztu behar du. Epaileak beste horrenbeste egun ditu hura onartzeko, eta horren ostean zabalduko da Fagorren aktiboengatik eskaintzak egiteko epea. "Asko

jota hilabete eta erdi edo bi hilabete iraun dezake prozesuak", azaldu dute Fagorretik.

**Eskaintza formalen garaia**  
Likidazio prozesuan Fagorren fabrikak, makinak, markak... sartuko dira. Horrez gain, negozio batzuekiko interesak iritsi dira Fagorrera; orain, eskaintza formalak egiteko garaia da.

## Lau atzamar galdu ditu gazte arrasatear batek lan-istripuan, Fagorren

G.H. 35 urteko arrasatearrak lau atzamar galdu ditu, fabrikari prentsak martitzenean eskua harrapatu ostean. Fagor Industrialen, Oñatin gertatu zen lan-istripua. Berehala eraman zuen anbulantziak gaztea osasun zentzora, baina fabrikako prentsak atzamarrak erabat zapaldu eta ezin izan ditu berreskuratu.

# Iheslarientzat babes bila, lehen saioa Bergaran

- ▶ Iheslari ohiek Altsasun hasitako bidetik, ekin diote gizarteratzeari
- ▶ Iheslarien errealitatea, "konpromisoa" eta asmoak azaldu dituzte

JULEN IRIONDO | BERGARA

Iazko ekainean Miarritzen egindako ekitaldia mugarririk izan zen iheslarien agerikotasunari dagokionez; agerikotasuna, izan bazirela jakin arren jende gehienarentzat beltzez marraztutako siluetak zirenek jendaurrean agertu eta aurpegia erakusteko erabakia hartu zutelako, eta ordu arte itzalean zegoen errealitateaz plazara atera eta mahai-gaiean jarri zutelako ere bai, hein berean. Ekitaldi hartan, konponbiderako euren proposamena aurkeztu zuen iheslarien kolektiboak, eta ekarpen harekin etxeratze bidea hastera zihola iragarri.

Bide hori burura eramateko, "herriaren" babesaren garrantzia behin eta berriz azpimarratua da iheslarien mezuetan, eta duela bederatzita hilabete agertutako asmoek Altsasu izan zuten zubi aurreko zapatuan, Iparraldetik Hegoaldera, iazko ekainetik 2014ko martxora, iheslari ohien bitartez, gaur eguneko kolektiboaren errealitatea, "konpromisoa" eta asmoak berriz ere mahai-gaineratuz. 150 iheslari ohi, bizipen desberdinak izandakoak, batekoak eta bestekoak.

Eta Miarritzekoaren sokatik, Altsasuko hariari jarraiki, Bergaran egin dute saioa oraingo martitzenean. Altsasun iheslari ohien hausnarketak plazaratu zituzten lagun biek –biak debagoiendarrak–, Xabier Zubizarretak –70eko hamarkadan Iparraldera alde egin eta hiru urtez han egona– eta Aitziber Plazaolak –2010ean, Iparraldera honek ere, Segikoa izateagatik, atxilotuta saihesteko– jardun dute gurean ere, ihesi ibilia denaren esperientziatik, iraganeko eta gaur eguneko gakoak emanez –euren parametroen arabera– eta etorkizunekoak izan daitezkeenak azaltzeko ahaleginean.

## Bi bizipen desberdin

Azaldu zuen Zubizarretak 1975 urte inguru hartan torturatu egiten zituztela "atxilotutako hainbat", "bortitzak" izan ohi zirela torturak, eta "aitortzak" lortzen zituztela torturaren bitartez. Horiek saihestu nahian egin

zutela Iparraldera –berak bezala beste askok–. Beraiek kanpora –kasu honetan Euskal Herrian geratu arren– "ihes egin" zutela, baina aprobetxatu zuen kanpora "eramanak" –edo bidaliak– izan zirenak ere gogoan hartzeko, iheslari kondizio askotarikoak –deportatuak, konfinatuak...– daudela agertuz: "Deserria erabili egiten du botereak, herria erreprimitzeko, beretzako borrokalari arrisksuenak direnak bere erroetatik ateratzeko eta kanpora bidaltzeko, bere herriko bizitza ez dezan elikatu eta ez dadin bera ere elikatu".

"Garai hartako gehienak berriz ere etorriak dira, baina batzuek han jarraitzen dute, deserrian; batzuk daude Ameriketara, beste batzuk Afrikara, eta ezin dira etorri. Horiek ez dira epaituak izan, eta epairik gabeko zigorra ari dira jasaten"; hala zioen Zubizarretak, –gaia ikuspegi ezkorretik baikorrera eramanez– horien guztien aurrean "herriak" emandako erantzuna goraiatuz ondoren: "Kapaz izan gara horren kontra borrokatzeko, eta sortu den elkartasuna, bai iheslarietako edo bai presoetako, benetan, Euskal Herrian, arreta ematekoa

delo, eta horri esker ez dutela lortu lortu nahi zuten hainbeste korrik. Beste herri askotako historian, memoria borratzen saiatu direnean, izen eta abizenak desagerrarazteraino iritsi dira errepresioaren bidez. Eta Euskal Herrian, uste dut, erro horiek mantentzen saiatu garela, eta lortu egin dugula neurri handi batean".

Elkartasun hori are gehiago hedatu eta, nolabait esatearren, egituratu ere egin nahi lukete, Bergarako bezalako saioen bultzatzaileek. Zentzu horretan, eurek Iparraldean egindako denboran



ESANAK

**"Azken iheslaria bere herrira etorri arte ez da amaitzen hau"**

X. ZUBIZARRETA | IHESLARI OHIA

**"Herriarroi dagokigu euren konpromisoa geure egitea"**

AITZIBER PLAZAOLA | IHESLARI OHIA

jasotako babesa jarri zuen adibide Aitziber Plazaolak, Zabalgotegiko aretoan bildutako bere herri-kideen aurrean: "Iparraldeko hainbat hautetsik hartu zuten konpromisoa euren etxetan gu hartzeko. Hori izugarria izan zen guretzat; horrek zekarren gure aitortza politikoa, gure lanaren zilegiztatzea eta gure militantziaren aitortza". Horrelakoak posible egin dituztenak Iparraldean egindako lana eta bertako politikaren "mentalitate" desberdina izan direla zioen Plazaolak.

## Iheslarien proposamena

Hain justu ere, iheslarietako Iparraldean izan zuten modua iragan ekaineko ekitaldia egiteko. Bertan adierazi zuten "ekarpena" egin nahi zutela "Euskal Herriak pairatzen duen gatazkari soluziobide demokratikoa emateko irekia den prozesua bultzatzeko". "Eragile aktibo bilakatzeko konpromisoa" erakutsi zuten.

"Euskal herritar erreprezentatuz guztiak Euskal Herrira eta beren etxetara bueltatzeko garaia da. (...) Iheslariok [500 inguru munduan barreiatuta] euskal herritarrek gara, nazioartean onartua den gatazka baten subjektu eta ondorioa, eta, beraz, euskal jendarterari eta agintaritzari politikoa dagokionez gure bizi duintasuna eta oinarritzako eskubideak ziurtatzeko neurriak hartzea. Besteak beste: gaixo dauden iheslarien egoera konpontzeko bideak aztertuz; eta bazterketa egoeran dauden iheslarien duintasuna ziurtatzeko neurriak hartuz"; azkenean etxeratze orokorra gauzatzeko bidean, hori guztia.

Kontaktatzen ere badihardute iheslarietako: "Gatazkaren ondorioen soluziobidean kolektibo ezberdinek pairatu dituzten eta ditugun eraso eta bizitako egoeren kontaketa eta hauen konponbide soziala garrantzi-

OXEL AZKARATE | IHESLARIA

## "Itzulerak izango dira eskubideak eta askatasunak irabazteko, libre bizitzeko"

Oxel Azkaratek (Arrasate, 1982) 2004an utzi zuen etxea, Iparraldera alde egiteko.

**Iheslari izandakoek agerraldiak egiten dihardute. Iheslarien etxeratzean laguntzeko asmoa agertu dute: nola eta zertan lagun dezakete?**

Urteetan erbestea ezagutu duten euskal herritarrek dira. Beraien artean belaunaldi desberdinetakoak daude: frankismoan ihes egin zutenak; gerra zikina bizi izandakoak; deportatuak; kanporatu eta torturatuak izandakoak; legez kanporatzeen ondorioz ihes egin zutenak; euro-aginduekin Espainiaratuak... Altsasuko argazkian, azken 50 urteetan euskal herritarrek erbestean bizi izandakoa agertzen da. Aurreko zapatuko adierazpenean oinarrituz ematen ari diren laguntza eta aurrerantzean egingo duten ekarpena handia izango da. Ez bakarrik iheslarien kolektiboari, baizik eta konponbide justu eta iraunkor bat lortzeko prozesuari. Bide orriaren garapenera eta azken iheslaria izuli arteko bidearekin konpromisoa hartu dute. Horrek babesa ematen digu, erbestearan arrazoiak eta erbestearan errealitatea, hau da, konpondu behar dena, sozializatzeko balio du. Baita, herriz herri, belaunaldiz belaunaldi, erbestearan kontaketa egiteko ere.

**Miarritzeko ekaineko ekitalditik hona, egoeraren bilakaeran zer nabarmenduko zenuke?**

Batetik, adierazgarria izan da estatuen jarrera: prozesua blokeatzeko jarreratik, inboluzio egoera batera pasatu dira. Prozesuan aurrera egiteko bideak erasotu dituzte. Bestetik, foro sozialean Euskal Herriko eragile desberdinak egiten ari diren lana aipatuko nuke. Gomendioekin irekitako bidea, gatazkaren konponbidea egituratu eta urratsak ematen joateko.

Baita nazioartetik prozesuan aurrera jarraitzeko jasotako babesa ere. Urtarrilean Bilbon egindako manifestazioa nabarmentzekoa da. Lortu behar duguna da indar horiek guztiak konponbide prozesua egituratu eta gauzatzeko konpromisoarekin lotzea. Ez dadila estatuen eraso salaketa izan. Izan dadila urteetako gatazka politikoa eta utzitako ondorioen soluzioa garatzeko indar. Hori delako herritarrek eskatzen dutena.

**Ze ekarpen egin diezaiokeuzue egoerari?**

Gatazkaren ondorio izanik, konponbidearen parte izatea. Elkarrizketa



guneak sortzen lagundu, hauetan parte hartu eta herriarekin batera bidea egin. Jendarteak, oro har, urratsak eskatzen ditu aurrera joateko. Guk urratsak emango ditugu, baina, blokeoen gainetik, urrats horiek atzerazinak izan daitezten, eragile politikoa eta sozialek, instituzioek, konponbidea eta bakea babestetik, elkarrizketa guneak eraikitzen eta konpromisoak hartuz akordio zabalak adostera pasa behar dute.

**Laster izango al da iheslarien itzulera?**

Gure helburua da guztiok aukeratzeko modua izatea. Sorterrira itzuli nahi duenak aukera izatea, eta orain bizi den lekuan bizi nahi duenak hala egitea, baina ez behartuta. Itzulerak izango dira eskubideak eta askatasunak irabazteko. Euskal Herri osoan libre bizitzeko. Guztion esku dago azken preso eta iheslaria laster etxeratuko dituen herri mugimendua indartzea.



Xabier Zubizarreta eta Aitziber Plazaola, martitzenean Zabalotegin. | J.L.

tsuak direla uste dugu. Hau baita modu konpartitu batean eraiki nahi dugun jendarte demokratiko berriarentzako baldintza eta oinarrietako bat".

Eta iheslariak euren proposamenean jorratutako gaiok presente egon ziren Bergarako saioan. Xabier Zubizarretak, adibidez, adierazi zuen "azken iheslaria bere herrira etorri arte hau ez dela bukatzen", zera gaineratuz: "Gatazka honetan protagonista izan direnek ezinbestean hartu behar dute parte konponbidean". Eta hari horri jarraituz Aitziber Plazaolak nabarmendu zuen ihes-

larien kolektiboak "izugarriko konpromisoa" erakutsi duela, besteak beste, ezker abertzalearen bideari jarraiki aldebakarreko urratsak eginez, eta "konpromiso" horri "herri guztiak" erantzun behar diola: "Beraiek publikoki agertu dira, aurpegia ematen, planteamendu batekin, eta herriari dagokigu euren konpromisoa geure egitea eta herri bezala dugun erantzukizunari erantzutea".

Konponbidean "bi aldeak" inplikatu balira gauzak desberdinak liratekeela zioen Plazaolak; baina hala ez izanda, zailtasunak zailtasun, iheslariak,

"zain egon gabe", "konpromisoa" hartu izanari balio handia aitortu zion, eta jendeak horrela uler dezan eta bakoitzak bere eremuan iheslarien errealitatea zabaltzeko nahia agertu. Iheslariak etxerazten joan ahala haiekiko babes eta elkartasun sareak ahalik eta zabalenak izan daitezten lortu nahi dutela adierazi zuten ekitaldian.

Zubizarretaren esanetan, ezinbestekoa da babes hori, aldebakarreko estrategia eraginkorra izan dadin ere: "Bestela ez dago modurik estatuak behartzen joateko; hartuko ditugu aldebakarreko erabakiak, baina lehenago edo beranduago iritsi beharko gara adostasun batzuetara; eta hori egingo da bakarrik herriak gaitasun hori baldin badauka presio hori egiteko eta eragiteko. Historian lehenago ere gertatu dira horrelako gauzak, eta horre-

tan sinistu egin behar dugu: herri bat martxan jartzen denean egundoko indarra dauka".

Eta kontaketa garrantzia ere azpimarratu zuen: "Gai izaten bagara egin dugunari buruz zintzotasunez hitz egiteko, egin diren akatsak onartzeko eta gure esku-bideak defendatzeko, hortik derri-gorrez aterako da akordio bat; gehiago edo gutxiago kostako da, baina herri batek hori ulertzen duenean eta hori babesten duenean ezinezkoa da horren kontra joatea. Hor dago gauzak esatearen eta kontatzearen garrantzia".

Bergarako saioan, jarduna borobiltzeko, argi utzi nahi izan zuten azken helburua dela "gatazkaren konponbide osoa" lortzea, "preso eta iheslari guztiak etxean edukitzea" eta "herri honek praktikara eramatea bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen esku-bidea".



## GURE IKASLEEN AHOTAN



Noemi Sanchez Ruiz | MUko ikaslea

### "GEHIEN GUSTATZEN ZAIDANA IRAKASLEEKIKO DAUKAGUN GERTUTASUNA DA"

Noemi Sanchez Ruiz bergararra Telekomunikazioko Sistemen Ingeniaritza graduko laugarren maila ikasten ari da.

#### Zaukeratu zenuen Telekomunikazioko Sistemen Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Informatikarekin lotura zeukan zerbait ikasi nahi nuen, eta, telekomunikazioen ingeniaritzan zelako gaiak jorratzen dituen ikusirik, segituan erabaki nuen telekomunikazioak egin nahi nituela. MUra etortzea erabaki nuen lan egiteko era desberdina zelako beste unibertsitate batzuekin alderatuz; hemen proiektu desberdinak daude kurtsioan zehar klasean ematen diren gaiekin lotuz.

#### Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?

Orokorrean, oso gustura egon naiz; hala ere, lehenengo urtea gogorra egin zitzaidan. Nahiz eta ebaluazio jarraitua izan, hasieran kostatu egiten da erritmoa hartzea, egunero begiratu eta ikasi beharra dago klaseetan emandakoa.

#### Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzia handia ematen zaio?

Teoria eta praktika era orekatuan lantzen da. Klasean ikasitakoa ondoren proiektuetan lantzen da, eta, horrela, nik uste dut ideiak



gehiago barneratzen direla. Gainera, proiektuetan sortzen diren zalantza eta arazoei aurre egiten ere asko ikasten da. Hasiara batean, alde praktikoa-ri teorikoa bano garrantzi txikiagoa ematen zaio. Baina graduko urteak aurrera joan ahala alde praktikoa garrantzia handitzen doa. Adibidez, lehenengo urtean sei hilabeteko proiektuak hilabete irauten du, bigarren urtean hilabete eta erdi eta hiru-garrenean, aldiz, bi hilabete.

#### Zer gustatzen zaizu gehien MUtik? Eta ezer hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana irakasleekiko daukagun gertutasuna da. Irakasleekin oso harreman ona daukagu eta konfiantza handia sortzen da edozein gauza galdetzeko edota laguntza eska-

tzeko. Klaseetan dauden ikasle kopuru murriztasun asko laguntzen du. Egia esan, ez dakit zer hobetuko nukeen, baina momentu batzuetan dugun lan karga handia dela esan daiteke; batzuetan, guzti berriak diren kontzeptuak lantzen ditugu, eta, zenbaitetan, erritmoa moteltzea eskertuko genuke. Baina ulertzen dugu irakasleen jarrera; izan ere, denboraz larri ibiltzen gara eta proiektua gauzatzeko kontzeptu guztiak klasean ikusi izanak bere garrantzia du, nahiz eta gero bertan ere gauza berriak ikasi.

#### Orain, proiektua egiten ari zara. Konta egiguzu nolako den proiektua.

Unibertsitateko Ikusmen Artifizialeko laborategian egiten ari naiz. Nire lana automoziorako diren piezen inspektzio teknika topatzean datza. Proiektua aurrera eramateko Ekide enpresarekin ari gara lanean.

#### Etorkizunari begira zeintzuk dira zure asmoak?

Ikusita aurtan amaitzen dudala gradua eta hemen ikasten dutenek normalean lan aukerak izaten dituztela entzuten dela, espero dut amaitzean lana lortzeko zorte hori edukitzea; bestela, datorren urterako masterrak begiratu beharko ditut nire titulua gehiago osatzeko.



Maite eta Ane Jauregi Aierbe ahizpa bergararrak. | J.L.

### Itzulera "laster" izateko esperantza

Maite eta Ane Jauregi Aierbe ahizpa bergarrek etxetik alde eginda dituzte gurasoak, duela hamazazpi urte eta erditik hona, aurrenekoak 15 eta bigarrenak 9 urte zituztenetik. "Denean" baldintzatu du horrek euren bizitza: "Hainbeste beldur, pena, amorr... sentitzen denean, bizitzako egunerokotasuna ere horrela bizi duzu, sentimendu horrekin bizi zara eta sentimendu hori agertzen da egiten duzun guztian".

Gurasoek alde egin, eta denbora luze egon ziren haien berririk gabe: "Urte eta erdi luze ondoren, haiek ikusteko aukera sortu zen; gure bizitzetako momentu ahaztezina bihurtu zen. Bai guretzat eta bai eurentzat, eurek ez zuten eta denbora horretan ez familiaren ez lagunen berririk eduki; eta bisita baten gauza asko kontatu daitezke".

#### "Konponbideetako bat"

Gurasoen eta gainerako iheslarien itzulera konponbide seinale moduan ikusiko lukete Maite eta Ane Jauregi: "Gatazkaren ondorioen konponbideetako bat da; aldebakarreko prozesu batean gauden momentutik, pausoak aldebakarrekoak dira, eta ziur gaude konponbidean beraien ekarpena egingo dutela".

Espero dute "laster" ikustea gurasoak etxean, eta aukera horrek "emozio pila bat" sorrarazten dizkiela diote: "Poza, urduritasuna, beldurra, maitasuna...". "Berrito ere familia moduan bizitzeko" irrikaz daude, gurasoekin: "Herrian, dagokien lekuan".



## FORMAZIOA LANERAKO ZURE AUKERA!

**Non: Kulturateko klaustroan, Arrasate.**  
**Noiz: Martxoak 26 eta 27**  
**Azoka ordutegia: 09:30-13:30 eta 16:00-19:00**

Prestakuntza arloko eskaintza  
Enplegu zerbitzuak  
Ekintzaileentzat zerbitzuak  
Tailerrak eta hitzaldiak  
Aparatuak eta esperimenduak



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)

### ANTOLATZAILEA



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA  
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Nafarroa etorbidea, 17 - behea  
20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 79 30 90 Faxe: 943 79 67 72  
[garapen-agentzia@debagoiena.net](mailto:garapen-agentzia@debagoiena.net) [www.debagoiena.com](http://www.debagoiena.com)

### SUSTATU ETA FINANTZATUA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentua  
**Gipuzkoa**  
ekintzailea

"Zer ikas dezaket dudak ikasketak mailatik abiatuta?"  
"Nola hel naiteke Lanbide Heziketara?"  
"Zer ikas dezaket hemen inguruan?"

Galdera horien guztien erantzuna azokako hainbat standetan.

### Martxoak 26, asteazkena

[ Langabeen Eguna ]

**09:30 - Mahai-ingurua: 'Etorkizuneko perfil profesionalak. Lan modu berriak' (es)**

Erika Mendibil (Fagor Arrasate) / Marian Baleztena (Elay) / Esther Iturriagaetxeberria (Arreta soziosanitarioa eta erizaintza. ALE) / Mikel Aranbarri (Efizetxe) / Javier Arkauz (Irakaslea, MGEP-MU) / Jesus Otaño (gizarte hezitzailea; Gipuzkoako herrietan esku-hartze sozioedukatorako zerbitzuen aholkulari teknikoa)

\_\_\_ [ Areto nagusia ]

**11:30 - Hitzaldia: 'Ekintzailea naiz' (eu)**

>> Gari Araolaza (Codesyntax), Itxaro Mendizabal (ttiklik.com) eta Amaia Albes (arropa diseinatzailea)

\_\_\_ [ Areto nagusia ]

**11:30 - Tailerra: 'Aurkeztu zure burua modu original batean Bideo-curriculuma egiten ikasteko tailerra' (eu)**

\_\_\_ [ Jokin Zaitegi gela ]

**17:30 - Profesionaltasun ziurtagiriak: Lanbide Heziketa Integratuko Sistema. Laneratzeko eta lehiakortasunerako tresna**

>> Gloria Gonzalez Marco (Lanbide. Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisistema Integratzeko teknikaria)

\_\_\_ [ Biteri gela ]

**19:00 - NiNEU 1. BideoCV lehiaketaren sari banaketa**

\_\_\_ [ Klaustroan ]

### Martxoak 27, osteguna

[ \_\_\_ Hitzaldi guztiak areto nagusian ]

**09:00 - 'Nola zaindu dezaket nire erreputazioa Interneten?' (eu)**

>> Ane Bilbao (Mondragon Unibertsitateko irakaslea)

**10:30 - HEZIBI programa: esperientzia berri baten kontaketa, ikasle, enpresa eta ikastetxearen ikuspegitik (eu)**

>> (Miguel Altuna Institutua)

**12:00 - 'Bekak eta praktikak' (es)**

>> Karnele Mantzizidor eta Jose Manuel Bergaretxe (MUko Enplegu Zentroko orientatzaileak)

**17:00 - 'Sare Sozialek lagundu dezakete lan-bilaketan?' (es)**

>> Miguel Fernandez Arrieta (IKTetan irakasle eta ikerlaria. MGEP-MU)

**17:00-19:00 - orientazio zerbitzua, zure esku.**

**Lan-orientatzailea eta hezkuntza arloko orientatzailea. Galdetu zure zalantzak!**

#### GURASOEI ZUZENDUA:

**18:30 - 'Nola lagundu gure seme-alabei beren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen' (es)**

>> Itziar Perez (Adimen emozionala, motibazio eta coaching dinamizatzailea. MGEP-MU)

Eider Roa



"Lanbide Heziketan praktikari ematen zaio garrantzia, gehienbat"

Iker Arkauz



"Praktikak du garrantzia hemen, tailerlean ordu asko ematen ditugu"

Maitane Lasa



"Ez dut inoiz arazorik izan lanik aurkitzeko, hamaika tokitan ibili naiz jada"

David Rodriguez



"Ikasketen ardatza praktika denez, ikasleok lanerako prestatuago gaude"

Imanol Gonzalez



"Lanbide Heziketako ikasketak lan merkatura bideratuago daude"

Belen Gonzalez



"Ikasleen eta enpresen arteko harremanari esker, lan mundua gertuago dugu"

#### ERAKUNDE PARTEHARTZAILEAK:

##### Lanbide Heziketako Zentroak

- Oñati Gestio Eskola - Mondragon Unibertsitatea (Oñati)
- Zuazola-Larraña Institutua (Oñati)
- Mariaren Lagundia Ikastola (Bergara)
- Miguel Altuna Institutua (Bergara)
- Arizmendi Koop. Elkartea Ikastola (Arrasate)
- Goi Eskola Politeknikoa - Mondragon Unibertsitatea (Arrasate)
- Aretxabaleta Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa (HHI)
- Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa

##### Formazio Zentroak

- Bastida Akademia (Arrasate)
- Ikasi - Prestakuntza Zentroa (Bergara)

##### Beste erakunde batzuk

- Bizikasi
- Alecop - Prestakuntza alternantzia: ikasketak eta lana

##### Enplegu Zerbitzuak

- Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua)

- EURES (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea)
- Kutxa Zeharo Enplegu Zerbitzua (Arrasate)

##### Udaleko Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak

- Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalak

##### Ekintzaileentzat Zerbitzuak

- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia
- Saiolan

Markel Olano | EAJren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

# "Garai berriei aurre egiteko eredu berria daukagu eta gizarteari aurkeztu nahi diogu"

- ▶ Goienan izan da ahaldun nagusi ohia eta Gipuzkoako egoera politikoa aztertu du
- ▶ Bilduren alternatiba bakarra "zabortegi berriak irekitzea" dela dio Olanok

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Debagoiengan bisitan izan da Markel Olano eta Gipuzkoako kontuen gainean berba egitera hurbildu da Goienara. Aurrekontua, hiri hondakinak, errepideak, krisia... berbeta gai ditu. Baita 2015eko hauteskundeak ere. EAJ Prest dagoela dio.

**Zergatik babestu duzue Bilduren azken aurrekontua?**

Abstenitu egin ginen, aurrekontuak onartzea ahalbidetzeko. Orain arte Foru Aldundiko hiru aurrekontuak onartzeko bozketetan abstenitu egin gara, nahiz eta bigarren urtean Bilduk hobetsi egin zuen sozialistekin ituna egitea. Gipuzkoako Diputazioko aurrekontuak onartzeko erraztasunak emateko erabakia hartzerakoan bi aldagai hartu genituen kontuan: batetik, Urkullu lehendakariak lehentasun moduan jarri izana garai bereziotan erakunde nagusietan aurrekontuak onartzea. Baina bistan zen hori negoziatu egin behar zela, eta lan bat egin da. Bestetik, garapen ekonomikorako 16 milioi euro lortu ditugu Foru Gobernuaren aldetik.

**EAJren gustukoa da 2014ko foru aurrekontua?**

Gure ekarpena mugatua izan da. Uste dugu garapen ekonomikoari garrantzi handiagoa eman behar zaiola Gipuzkoako aurrekontuetan eta Bilduk beste lehentasun batzuk ditu. Alde horretatik, eta planifikazio egokirik egin ez delako, desegokiak dira Bilduren aurrekontuak. Edozelan ere, lehentasun batzuk jarri genizkion Bilduri eta onartuak izan dira.

**Zertarako erabiliko da 16 milioi euroko partida hori?**

Enpresei laguntzeko eta inbertsioetan eta finantzian laguntzeko. Bestetik, euskal enpresa askok, Gipuzkoakoek nagusiki, nazioartekotzea beharrezkoa dute eta erakundeetatik lagundu eta sustatu egin behar da hori. Merkataritzari, ostalaritzari, base-rritarrei... ere laguntzeko erabiliko da diru zati bat. Bestetik, Gipuzkoa ez dago isolatuta eta gainerako euskal erakundeekin, batez ere Jauralaritzarekin, Industria Sailarekin, koordinatzeko urrats batzuk ere proposatu eta onartuak izan dira.

**Zergatik ez da lortzen adostasunik errepideen finantzazioan?**

Aurreko legegandian errepideen gaineko txosten bat aztertu eta onartu zen, gehiengoz, Batzar Nagusietan. Hortaz, neurriak hartzeaz zeudela, legegandi eta gobernu aldaketa etorri zen. 2012an Etxegaraten kamioiendako bidesaria



Markel Olano oraingo eguaztenezan Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

jartzea onartu eta planifikatuta zegoen. Baina Bilduren Gobernuak erabaki zuen hori ez betetzea. Bilduk PPrekin batera beste ponentzia edo txosten bat aztertzeke batzordea abiatu zuen eta horrek ez du ezer adostu eta onartu. Une honetan kontua geldu dago.

**PSE-EEekin eta PPrekin batera adostu duzue zerga politika.**

Bilduk eta PSE-EEek aurretik onartu zutena ez zen oso progresiboa, haiek kontrakoa esan arren. Espainiako Gobernuak progresibitate handiagoa ezarri zuen, denok harri eta zur utzita. Edozein kasutan, arazo handiena desharmonizazioa zen, lurralde bakoitzean zerga sistema ezberdina zegoelako eta, ondorioz, Gipuzkoa kaltetzen ateratzen zelako. Gure eredu berriak sistema harmonizatu bat sortu du. Bestetik, Bilduk PSE-EEren lagun-

**"Ez zabortegei eta ezta errauskailu da zaborra alfonbra azpian gordetzea"**

**"Fagorrekin gertatu denak balio behar digu lehiakorragoak izateko, batez ere"**

tzarekin adostutakoak helburu bakarra zeukan: dirua batzea. Eta, gure ustez, zerga politikak dirua batzeko bai, baina ekonomia sustatzeko ere balio behar du. Esaterako, ondare zerga berriak, aberastasun handienak, sortzen ditu distortsio handiak eta kinka larrian utzi ditu lurraldeko hainbat enpresa; ondorioz, langabezia eta pobrezia handiagoa.

**EAJ, PSE-EE eta PPrenak hori saihesten laguntzen du?**

Bai. Egonkortasun handiagoa sortzen du, oro har, eta hori ona da enpresendako eta Gipuzkoaren lehiakortasun ekonomikoarendako, besteak beste.

**Errauskailua edo zabortegea. Zer nahiago?**

Bildu iruzur handia egiten ari da. Esaten ari da ez zabortegei eta ezta errauskailu, eta hori da zaborra alfonbra azpian sartzea bezala. Ahalik eta birziklapen tasa handienak lortu behar dira, baina errefus zati bat, birziklatu ezin daitekeena, tratatzeko bi sistema daude: errauskailua eta haren bidez energia sortzea eta, bestetik, zabortegea. Hirugarren bat ere badago, baina izugarritzko hipokrisia erakusten du: zaborra kanpora ateratzea, eta, tamalez, hori egiten ari da une honetan Bildu. Beteta dauden zabortegeiak itxi eta errauskailurik egiten ez bada, alternatiba bakarra da zabortege berriak irekitzea.

**Gipuzkoan beste errauskailu bat beharrezkoa da Bizkaian ere baldin badago?**

Zabor ekoizpenaren aldetik, jaitziera izan dugu, argi dago. Kontzientziagatik bai, baina, batez ere, krisiagatik. Hori horrela, ziurrenik, errauste planta baten dimentsioa ere aztertzea litzateke, baina eztabaida hori ez da izan. Bilduk eta ezker abertzaleak erabakita zeukaten errauskailua geratzea eta garaipen politikoa moduan saldu dute hori, baina orain arazoa daukate, ez dakitelako zela itxi sistema. Arduragabekeria handia izan da eta inposatuz lortu dute, gainera, herritarren aurka. Horregatik diot iruzur handi baten aurrean gaudela.

**Jarrantzen duzu Fagor Etxetresnen auzia?**

Bai, oso gertutik, asko kezkatzen nau.

**Zein izan daiteke une honetan, zure ustez, irtenbiderik egokiena?**

**"Industriaren alde herri apustua egin behar dugu, Alemanian bezala"**

**"Arduragabekeria handiaz jokatu du Bilduk errauskailua gerarazita"**

Likidazioa eskatu dutela jakin dugu oraingo astean, eta, hortaz, oso bide zaila dauka proiektu honek. Salbatzeko dauden zatiak salbatzeko konpromisoa hartzen duen enpresa bat beharko da une honetan. Aljeriarrak, katalanak... Ikusi beharko da. Eusko Jauralaritzak ahalik eta gehien lagunduko du erabaki onena har dadin. Oso kolpe latza izan da Fagor Etxetresnena, eta orain, bi urrats garrantzitsu ditugu: batetik, enpleguaren aldetik, gehien leuntzea egoera. Eta Mondragon Taldeak erakutsi du konponbiderako borondatea eta sinisten dut lortuko dela kanpoan geratu diren ahalik eta langile gehien birkokatzea. Horretarako, bestetik, berriro industrializazio prozesua bultzatzea ezinbestekoa da: proiektu berriak bultzatzea industria ehuna berritzeko eta indartzeko, ahalik eta lehiakorren izateko, ezagutzaren aldetik, enpresaren kudeaketaren aldetik, enpresen parte hartzetik... Kolpe honek lagundu behar digu liskarrak gaintzen eta lehiakorrago izaten. Gizarte osoa dago barku berean. Erruak batek beste bota beharrean, denok eseri eta azterketa sakon eta tekniko bat egitea da gakoa. Hazkunde ekonomiko amaigabe baten ostean, komeni da lehiakortasuna bultzatzeko urratsak egitea.

**Gipuzkoako enpresaburuak eta sindikatu nagusiak ez daude elkarrekin adosteko tenorean...**

Egia da, horixe da gertatu dena eta gertatzen ari dena, baina aurrerantzean enpleguari eta ongizateari eutsi nahi badiogu, derrigorra da aldatzea. Gaur egun Alemaniaren ekonomia osasuntsu badago, lehiakorraren fruitu da. Eta hori da bere garaian, sozialdemokrazia agintean zela, enpresaburuaren eta langileen artean hitzarmena egin zelako. Industriaren alde, herri apustua egin zuten. Horren premia daukagu.

**EAJ hasi da makinak berotzen eta Prest aurkezten diharduzue.**

Izenak adierazten du herri honen lehentasunei eusteko prest gaudela, eredu propio eta proposamen propioak ditugula. Lau jardunalditan plazaratu nahi dugu hori: gobernantza, ongizatea, ekonomia eta etorkizun politikoa kontuan izanda. Garai berriei aurre egiteko eredu berria daukagu eta gizarteari aurkeztu nahi diogu.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ  
goiena.net/komunitatea/



## Kooperatibismoaren etorkizuna

**K**ooperatiba modernoak duela 250 urtetik existitzen dira eta bide zaila izan dute irauteko sistema kapitalistan, batez ere lan kooperatibek edo produkzio kooperatibek. Kontsumo, nekazaritza eta kreditu kooperatibak asko ugartu izan dira munduan, baina bigarren mailako sistematzat hartu da, kapitalismoaren atzetik, baztertuta eta mugatuta.

Baina gaur egun, kooperatibismoa sistema alternatibo serio bezala hartzen ari dira munduan zehar beharizan ekonomiko, sozial eta ingurugirokoak konpontzeko, eta ez bakarrik dirua irabazteko. Kapitalismoak ez ditu konpondu gizartearen arazoak eta helburutzat ekonomizismo hutsaren bidetik, dirua irabaztea eta handitzea baino ez du.

XXI. mendean bestelako antolamendu bat nahi du jendeak: parte-hartzaileagoa, askatzailea, lana eta pertsona lehen mailan hartuko duena; ez kapitulara nagusi izanik gainerako guztiz menpe izango duena.

Gobernuak ere konturatu dira kooperatibak iraunkorra goak direla. 2013ko uztailaren 2an Europako Parlamentuak *Kooperatiben ekarpena krisitik irteteko ebazpena* erabaki zuen eta bertan adierazten du kooperatibek demostratu egin dutela Europa sozialki elkartzen laguntzen dutela eta enplegua mantentzeko hobeak direla beste enpresa motekin konparatuz, iraunkorrak (erresilienteagoak) eta ez direla deslokalizatzen hemen fabrikak itxiz eta Asian edo Afrikan berriak zabalduz.

Halaber, kooperatibetan langileek ere arrisku finantzarioak hartzen dituztenez, batzuetan frakasatuz beste edozein enpresa bezala, kooperatiben garapena ziurtatzeko legedia aproposa jarri behar dela zioen Europako Parlamentuak.

Batek esan zuen: "Geu gara pertsona egokiak eta une eta toki aproposan gaude". Mende honek kooperatibismoaren garaia izan behar du eta gauditu egingo ditu beste sistemak. Gizarte berriaren balioak kooperatibismoarekin bat datozen eta gizarte prestatuta dago kooperatibismoa ulertzeko eta bizitzeko.

### "XXI. mendean bestelako antolamendu bat nahi du jendeak"

## USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.com

## Ipar Koreatik bueltan

**N**azio Batuetako Kyung-seo Park korearra da. Ipar Korean askotan izan da. Bere kontakizunak ez du zalantzarako lekurik uzten: umeak gosea pasatzera kondentzen dituen erregimena da; herrikideak beldurrez eta sufritzen daukan eta bere buruari komunista eta herriarena deitzen dion altzairuzko agintea (liderrek ez dute gosea ezagutu izanaren itxuririk, AEBetako kirol-zinema izarrak dituzte lagun; gustu kapitalistadun komunista bitxiak!); Hego Korea ihes egitera 27.000 lagun bultzatu dituen alderdia. Park-en hitzek birrinduta uzten dute kontrako edozein bertsioaren sinesgarritasuna. Ipar Korean izan delako, bakezalea delako eta bere herria maite delako.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Hizkuntzaren balioez

Eneko Barberena  
blogak.goiena.net/barberena/

Duela hilabete batzuk, testu hau idatzi nuen blog honetan bertan.

Besteak beste, ondorengo lerrok idatzi nituen: *Kolektibo zapalduakok batu beharra dugu, egun indarrean den jendarte eredu kapitalista eta hetero-patriarkalari aurre egin nahi badiogu. Galde diezaiozun gure buruari, egun euskalgintzak bizi duen emaitza eta mezu hedadura geldotzea ez al da izango bizi garen jendarte ereduaren erru.*

Uste nuen, eta uste dut oraindik, sistema honek egoera "ahulean" kokatzen dituen kolektibo, hizkuntza eta pertsonak erdigunean kokatu behar ditugula.

Berdin haurrak izan, euskal hiztunak izan ala familia eredu anitzak izan.

Eta hauen artean, erabakimen eta botere aldetik era ahulean dauden kolektiboen artean, zubiak eraiki beharra dagoela.

Baina aurreko ostiralean,

Eskoriatzan lanean diharduen lagun batek ideia honen inguruko gogoeta esparrua irekitzen lagundu zidan.

Berak esaten zidanaren arabera, jada azpi-mailatua den hizkuntza batean ez ei da komeni hizkuntza balio batzuei hertsiki lotzea, hori azpi-mailatua dena gehiago azpi-mailatzea litzatekeelako.

Hizkuntza "handiek" ez ei dute balore atxekiturik, balore ezberdindun pertsona askoren topaleku dira hizkuntzak.

Horrenbestez, hizkuntza feminismoari, anti-kapitalismoari edota AHTren aurkako borrokari (berdin erlijio katolikoari, "legezarrari" edo moral jakin bati) lotzea arriskutsua da hizkuntzarentzat, at uzten duzun biztanle kopuruagatik (balio horiekin bat egiten ez dutenak) eta bestetik balio horiek gehiegi lehenetsiz gero, izan litekeelako hizkuntza bigarren plano batean geratzen joatea progresiboki.

Ez dakit azken hau ondo azaltzea lortu dudana.

Ea, esan nahi dudana da izan litekeela bukaeran

euskara eta antikapitalismoa hertsiki lotzen dituen mugimendu batek egiazatu dezakeela, momentu batean, erosoago egon ohi dela beste antikapitalista batzuekin lanean, nahiz eta erdaraz lan egin, kapitalistak diren euskaldunekin baino.

Eta zoritxarrez euskarak gu bakarrik gaitu, gu gara berau erdigunean jar dezakegun bakarrak.

Hizkuntza iraunarazi, piztu eta erabili nahi dugunok badugu zer hausnartu gai hauekin.

Ez dut uste arrisku errealek dagoenik egun, euskalgintza eta beste herri mugimendu batzuentzat hizkuntza marra gorri definitua baita.

Baina komeni da noizean behin gai hauei buruz hitz egin, eztabaidatu eta egiten ari garenari balioa ematea.

## Bila ala ihesa

Bixente Serrano Izko  
berria.info/blogak/bixente/

Mugiarazi, gehiago mugiarazten gaitu, ezertaz dugun uste sendoak baino, zerbaitetik ihesi nahiak.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ulane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketaziora** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundinano, Ziortza Martin,  
Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
**ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Gaizki-ulertuak saiheste aldera

**Aitor Biain Umerez**

Oñati

Pasa den egubakoitzean *Eskerrik asko, Komalingua* izenburuean idatzi nuen gutunaren harira, eta gaizki-ulertuak saiheste aldera, argitu nahi dut nire lehen ikasketak ez nituela Oñatin egin eta, ez hasierako ibilbide horretan, ezta gerora ere, ez naizela Txantxiku ikastolako ikasle izan eta Oñatiko ikastolakoek ez dutela inolako interbentziorik egin nire ikasketa prozesuan.

Goian aipatu bezala argibide horiekin sor zitezkeen gaizki-ulertuak argitu nahi izan ditut. Eskerrik asko.

## Aretxabaletako Aratusteak, olinpikoak

**Zigor Quintanilla Elkorobarrutia**

(Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotzia)

Aretxabaleta

Aurtengo Aratusteak, beste behin ere, ederrak izan dira, olinpikoak, Txapeltxinek iragarri zituen bezala. Ez dakit marka guztiak hautsi ote dituen, baina onenen pare egon direnik ezin ukatu.

Txapeltxin egunarekin eman genien hasiera Aratusteei. Karnabalen Lagunek aurten ere giro bikaina jarri zuten, eta arratsalderako herriko plaza jendez bete zen Txapeltxinek Aretxabaleta hiri olinpiko nola izendatzen zuen ikusteko.

Lerro hauen bitartez eskerrik asko Karnabalen Lagunoi egun hori antolatzen eta aurrera eramaten egiten duzuen lan bikainagatik. Eskerrik asko, baita Aratuste jaien antolakuntzan ematen duzuen laguntzagatik ere. Zuei esker, guztia errazago egiten da.

Aratuste domeka etorri zen ondoren, egun handia. Giro bikaina goizetik gauera, mozorroak era askotakoak, haur, gazte zein heldu, denak batera jaiari murgilduta, eguraldia ere lagun. Gehiago ez dago eskatzerik.

Aretxabaletar denoi zorionak kaleak alaitasunez eta mila kolorez mozorrotzearren.

Bukatzeko, Aratuste martitzena. Eguraldi petrala, euritsua. Halere, gure herriko haurrak ez ziren kikildu eta gogotsu aritu ziren eskolan ikasitako dantzak eta egindako mozorroak erakusten.

Eskerrik asko herriko ikastetxeoi eta guraso elkarteoi egun honen antolakuntzan ematen duzuen laguntzagatik.

Ez ditut ahaztu nahi Leizarra Musika Eskolakoak. Aurten ere, *Aratuste jai*a antolatu dute eta ostiral ilunkara girotu zuten.

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Oñati Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Mila esker baita Santa Ageda neska-mutilei eta Aretxabaletako Txistu Taldeari ere, ekintza ezberdinak aurrera ateratzeko ematen duten laguntzagatik. Eta nola ez, egun hauetan lanean buru-belarri aritzen zareten Udaleko langile guztioi.

Besterik gabe, datorren urtera arte. Ziur naiz datorren urtean ere marka guztiak hautsiko ditugula.

Zorionak eta eskerrik asko denoi!

## Lanik egin gabe emaitzak nekez

**Mikel Uribebarria**

(Aretxabaletako EAJ udal taldearen izenean)

Aretxabaleta

Nazkatu samar nago zabor bilketa sistemaren inguruan, egunak joan eta egunak etorri, Bilduk gobernatzan duen Mankomunitatetik eta Aretxabaletako Udaletik atez atekoa justifikatzeko ematen diren argudioekin.

Aretxabaletako Udal Gobernuak egungo edukiontzi sistemaren erabilera zabaltzeko ez du inolako interesik jarri. Zehazkiago, ez du neurri bat bera ere hartu. Garbi daukat Udal honetako inork ez duela aztertu edukiontzien kokagunea, distantzia... Nola da posible 23 edukiontzi edukitzea organikoarentzat eta 86 errefusarentzat? Zer ahalegin egin da herritarrarengana iristeko eta edukiontzi sistemaren erabilera sustatzeko? Atez atekoarekin egiten ari diren batzar eta esfortzu erdiak eginez gero, beste egoera batean geundeko.

Edukiontzi sistema ezarri den edozein herrik Aretxabaletaren aldean datu askoz hobeak zergatik dauzkan ere Udal honek aztertu beharko luke. Hori gutxi balitz, Aretxabaletako datuak atez atekoaren beharra justifikatzeko erabili dira, bai Aretxabaletan eta bai gure egoera berdintsuan dauden beste herrietan.

Baina dena ez da negatiboa. 2013an, 2012arekin alderatuta, %64 igo da 5. edukiontzia batekin batu dena. 2012an 91.000 kilo, 2013an 155.000 kilo eta 2014ko urtarrileko datua proiektatzen badugu 250.000 kilo batuko lirakeke 2014an. Datu apalak dira oraindik, baina joera esanguratsua da.

Aretxabaletarrek Udal Gobernuari mezu argia bidali diote, nahiz eta azken hauek beste aldera begiratu.

Atez atekoaren inpaktu estetiko eta deserosotasuna alde batera utzirik, kostuari buruzko datu pare bat. 2012an udal tasekin zabor kudeaketaren gastua ordaintzen zen. 2012tik 2014ra, Mankomunitatea atez atekoa ezartzen hasi denetik, zabor kudeaketaren kostua %31 igo da eta aurten udal tasak Aretxabaletan %4 arren, 60.000 euroko zuloa aurreikusitako dugu udal kontuetan. Zergatik diogu atez atekoa merkeagoa dela?

Gaizki ulerturik egon ez dadin, garbi utzi nahi dut kostua, erosotasuna, estetika, bigarren mailako faktoreak direla eta horien aurretik gaikako zabor bilketa tasa egokiak lortu behar direla.

Udal Gobernuaren azken argudioa zabor bilketa sistemak behartzen ez gaituen heinean ez ei dugu emaitzarik lortuko. Herritarrenganako konfiantza falta hau larria iruditzen zait. Izan ere, erabaki hau bozkatzeko aukera daukagun udal ordezkariok edukiontzi sistema zuzen erabiltzen dugun momentutik, zergatik ez du aretxabaletarren gehiengoak ere horrela egingo? Bilduk donostiarrengan konfiantza jarri badu, aretxabaletarrok ere horrenbeste mereziko dugu, ala?

Herritarren adostasun eta konpromisotik hasi gaitezen daukagun sistemaren erabilpen zuzena bultzatzen, emaitzen jarraipen zorrotza egiten, eta era progresiboan sistemari berari beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egiten, Europa mailan dauden birziklapen emaitzarik onenak lortu arte. Oraindik ere posible da, borondatea baldin badago.

## Aretxabaletako Bildu: betiko lez

**Joxemiel Urizarren Azpiazu**

(Aretxabaletako EAJ-PNVren Uri Buru Batzarraren izenean)

Aretxabaleta

"Izan dugun esperientzia laburrean ondorio batera iritsi gara. Aldaketa batzuk azkarrago egin nahi genituzke, baina gizarteak berak lasaiagoa egitea eskatzen digu. Adibiderik errazena atez atekoarekin

gertatu dena da. Batetik, guk konpromisoa hartu genuen: errauskailua ez eraikitzekoa. Hori lortu ahal izateko birziklapena handitu behar genuen. Horretara bideratu ditugu gure hondakin politikak. Herritarren ahalegina eguneroko bizimoduan eskatu dugu, eta horretan zailtasunak topatu ditugu. Jendea Gipuzkoa ekologiko baten alde dago, baina bizimodua gehiegi aldatu gabe. Baina kontuan hartuta herritarrek esaten digutena".

Hasier Arraizen, Sorturen presidentearen, hitzak dira. Pasa den astean, martxoaren 12an, *ZuZeu* aldizkarian agertzen den elkarrizketan "Gipuzkoan aldaketa soziala. Nahia eta ezina?" galderari erantzuteko. Azken zatian dena esaten du. "Kontuan hartuta herritarrek esaten digutena" Aretxabaletako Bilduko zinegotzientzat ezer ez esatea bezala da. Ez da alkate jaunarentzat edo zinegotzientzat aintzakotzat hartzekoa. Beharbada, ezagutu ere ez dituzte egingo Bildukoentzat gidari den Sorturen presidenteari esandakoak, eurentzat horixe besterik ez baitira, elkarrizketa batean esandako hitz hutsak!

Aretxabaletako Bilduren adierazpenen zakarkeria, dena nahastuz, gaikako bilketa, birziklapena, finantzazioa, derrigortasuna, galdeketa... ez da arrazoirik ez duen zerbait arrazoitzeko saiakera bat besterik: herritarren gehiengoak nahi ez duena; hau da, atez atekoa jartzeko hartu duten erabakiaren zuritzea.

Herritarrei denetik agindu ondoren, azkenean, orain, argi eta garbi esaten dute; euren ustez, betebeharrak eta eginkizunak zeintzuk diren erakutsiko diete. Hori bai, eskubide hori murriztu ondoren, hau da, euren iritzia libre eta demokratikoki azaltzeko eskubidea murriztu ondoren.

Bi mila eurotz hitz egiten duzue, eta bitartean, aldebakartasunez erabakitzen enpresei ia hamabost milioi euroko indemnizazioa ordaintzea ezer ez egiteagatik, dena geratzeagatik. Edo hezkuntzan eta osasunean murrizketak ematen ari direla, aritzen zarete EAJk sortu eta eraiki duen giza ereduaz zuek zeuok sortua balitz bezala.

Eusko Jaurlaritzan, legealdi ezberdinetan, EAJren lehendakari abertzalearen

gidaritzapean, gizarte politiken aitzindaria izan da. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI), osasun zerbitzuak orokortzean. Edo 0 eta 3 urte arteko haurrak eskolaratzean. Eta zuek zarete osasunari eta hezkuntzari buruz ari zaretenak?

Bilduren bazkideetako baten iritzia jakin nahiko genuke, Eusko Alkartasuna, bera izan baitzen PIGRUGaren bultzatzaileetako bat, errauskailua barne. Badirudi udaletxe batean edo bestean buruhausteren bat sortu diola ezker abertzalearekiko desadostasun honek Bildu taldeari.

Gutxienez, entzun ditzatela euren presidente Arraizek esaten dituen mezuak. Herria entzun eta errespetatzeari dagokionez, behintzat.

## ZUZENKETA

**Asteleheneko Goiena paperean (445), Jon Suinagaren kolaborazio bat argitaratu genuen, baina testua ez zen zuzena. Hori dela eta, barkamena eskatzen diogu idazleari berari eta baita irakurleei ere. Hau da testu zuzena:**

### "GUREA" DA "NIREAREN" BERMEA

Ez gara santuak, ez... baina ezta hain gaiztoak ere. Fagor Etxetresnen itxieraren ondorioz, batzuek adarrak eta buztana jarri dizkigute kooperatibistei.

Akaso, ez dira erabaki egokienak hartu; eta elkartasunak, taldetik emandako laguntza handiak eta esfortzu guztiek ez dute balio izan kooperatibismoren bandera-ontzia salbatzeko. Gertatutakotik ikasi, hausnartu eta neurriak hartu behar ditugu.

Errentagarria izatea beharrezko helburua da; etekinak ez badaude, ez dago ezer egiterik. Zelan lortu eta zer egin irabaziekin da Taldeko kooperatibak bereizten dituen. Antolaketa eta parte-hartze demokratikoa baino gehiago dira kooperatibak. Inguruan aberastasuna sortu, hezkuntza bultzatu, lanpostu duinak sortu, euskara sustatu eta elkartasuna gure eredu batzuk dira gizartearen eraldatzeko.

Galera individual handiak izan ditugu; baina kezkarriagoa da galera kolektiboa. Ez badugu lehenesten eta indartzen "gurea", aurrerago ez dugu izango "nirea". Lan tinko eta gogor egin behar dugu eta behar diren akzioak eta esfortzu individualak egiteko prest egon behar dugu gure enpresak eraginkorrak, errentagarriak eta sendoak izan daitezen.

Oztopo guztien aurrean, Talde Kooperatiboak osasun oso ona du eta printzipio eta balio kooperatiboak inoiz baino beharrezkoak dira.

Jon Suinaga

## DUELA 10 URTE

2004-03-26

## Huhezik, komunikazio adarra

MUren Eskoriatzako fakultateak hamar titulazio berri ezarri zituen; tartean, komunikazio alorrekoak: Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientziak eta Ikus-entzunezko Komunikazioa. Ikasketotako ikasleentzat sei arlotan aurreikusten zuten lana unibertsitateko arduradunek: prentsa idatzian; ikus-entzunezko hedabideetan; ekoizpen etxeetan; giza erakundeetan; enpresetan; eta Internet eta telematika sailean.



Ikasketa berrien aurkezpena. | LEIRE KORTABARRIA

2004-03-18

## Kongresurako hauteskundeak

Espainiako Kongresurako hauteskundeak egin ziren, eta EAJk lortu zuen boto kopuru handiena Debagoiengan. Alderdi Sozialista izan zen bigarren indarra, eta kopuruz hirugarren gehien baliorik gabeko botoak izan ziren. Ezker abertzalearen hautagaitza legez kanpo utzia zuten hauteskunde haientarako: hala ere, Bergarako Ekimena deitutakoarentzat eskatu zuten botoa. Parte-hartze handia izan zen hauteskundeetan.

## DUELA 5 URTE

2009-03-20

## Rekarte, Eibarrera

Futbola utzia zuen Aitor Lopez Rearte arrasatearrak. Urte askoan Realeko jokalaria izandakoak, baina, Eibar taldearen eskaintza jaso zuen, eta baiezkoarekin erantzun zuen Lopez Reartek. Ekainera arteko konpromisoa hartu zuen talde debabarrendarrarekin. Urte erdi zeraman zelaietatik kanpo.

## OÑATI

## HERRITARRAK

German Mirassou Argentinarra sortzez, 2005eko maiatza ezker dago gure artean. Denbora baterako asmoz etorri zen; egun, emaztea eta hiru seme-alaba ditu, eta Oñati taberna darama | JULEN IRIONDO

# "Ondo bizi izateko, lehen egin beharra da bertako kulturen-eta barneratzea"

Argentinan euskararen berri ez zuela dio; baina Euskal Herrira iritsi eta lasterrera hasi zen ikasten, beharrezko jota. Gaur, bere bizitzako parte da euskara.

**Elkarrizketa proposatzeko deitu nizunean, "bai?" esanda erantzun zenuen telefonoa? Euskaraz egiten duzu bizitza?**

Hasiera baten, bai. Toki bakoitza da desberdina, eta ondo bizi izateko egin beharreneko lehenengo gauza da moldatzea, bertako kulturen-eta barneratzea.

**Iritsi eta berehala hasi zinen euskara ikasten, edo denbora bat behar izan zenuen kokatzeko-eta?**

Hiruzpalau hilabete pasatu ziren. Handik aurrera euskaltegira joan nintzen. Gero, tabernan praktikatzen nuen, eta baita etxean ere. Emaztea hemengo da, eta umeekin pila bat ikasten da.

**Gaur egun, lanerako, lagunekin, familian... erabiltzen duzu.**

Bai, nahiko ondo moldatzen naiz.

**Zenbat denbora egin zenuen euskara ikasten?**

Lehenengo sei hilabete, eta gero beste lau hilabeteko ikastaro bat egin nuen.

**Urtebetean ikasi zenuen, hortaz, gehi eguneroko praktikarekin.**

Bai, gehiena izan zen praktika. Iaz egin genuen proiektu bat, oso polita, ipuin liburu bat, umeekin eskolan, eta hura ere dena euskaraz. Nik ipuin bat idatzi nuen andereño batekin batera, beste 24 ipuin elkarri lotzeko. Denon artean egin genuen, euskarari bultzada emateko, bai irakurketari eta bai idazteari dagokionez. Nahiko konprometitua sentitzen naiz euskararekin.

**Euskararen ezagutzarik bazenuen aurrez? Bazenekien bazenik?**

Argentinan badaude euskal etxeak eta, baina, hala ere, ez nuen euskara ezagutzen.



German Mirassou, Oñati tabernako barran. | J.I.

**"Denok batera hara joateko diru pila bat behar da; oraindik ez dugu joaterik izan"**

**"Gure lanari deituko litzaioke 'laburo jodido'; baina pozik etortzen gara"**

**Hona iritsi eta ikusi zenuenean jendea beste hizkuntza batean bizi zela, oztupo edo erronka izan zen zuretzat hori?**

Motibatu egin ninduen. Motibazioa eta desafio handia izan zen niretzat hori. Nire helburu nagusia zen jendeari ulertzea. Eguneroko komunikaziorako inportantea hori da, eta hemen behar da euskara. Oso pozik nago euskara ikasi izanagatik. Ikasten jarraitzen dut oraindik, baina nahiko ondo moldatzen naiz.

**Eta zergatik atera zinen Argentinatik?**

Nire arreba hemen zegoen, eta ama ere bai. Han nahiko gaizki zeuden gauzak, eta hona etortzea erabaki nuen. Denbora bat pasa eta itzultzeko asmoa nuen. Baina etorri eta gauzak joan diren modura, ez naiz itzuli.

**Bizitza hemen ikusten duzu?**

Bai, oso gustura nago, oso pozik.

**Imajinatuko zenuen inoiz zure bizilekua Euskal Herrian egongo zenik?**

Egia esan, ez. Baina pozik nago. Familia daukat hemen dagoeneko, emaztea eta hiru seme-alaba. Lana ere bai, eta baita lagunak ere.

**Herriminik baduzu, dena den?**

Hasieran, izaten nuen, baina dagoeneko ez dut. Ohituta nago. Nahiko ondo eramaten dut.

**Joaten zarete hara noizean behin?**

Ez, oraindik ez gara joan. Badut familia han, baina hemengo guztiok batera joateko diru pila bat behar da eta oraindik ez gara joan. Baina egunen baten joango gara. Joango gara eta ikusiko ditut familiakoak eta lagunak.

**Argentinan ere ostalaritzan lan egin zenuen?**

Ez, Argentinan ez. Sorosle egin nuen lan, igerilekuan, eta irakasle ere bai, soinketan.

## NIRE HERRIAN

## OÑATIARRAK ETA BIZIMODUA

Kanpotik leku berri batera iristean normala izaten da zalantza edukitzea nola egokituko den bat bertako jendearengana. Nire kasuan, ez nuen batere arazorik izan. Harreman ona egin nuen hasieratik oñatiarrekin. Gustatzen zait hemengo izateko modua, eta baita Oñatin nola bizi garen ere. Erraza izan da bertara egitea.

## NEGUKO EGUNAK MOTZEGIAK

Argitasunak beti ematen du bizipoza, eta neuk ere bestelakoak baino nahiago ditut egun argitsuak. Negua negu da, ordea, eta nahiko nukeena baino lehenago iluntzen du hemen. Ordua aldatzean, gainera, egun batetik bestera zati handia kentzen zaio egunari. Horregatik, egun luzeagoen zain egoten naiz.

**Gustura zabilta tabernan lanean?**

Bai, oso gustura. Koinatuarekin sartu nintzen, abentura moduan. Langabezia geunden biok; urtebete pasa daramagu dagoeneko, eta pozik. Esperientzia polita izaten ari da, eta aurrera goaz.

**Harremanetarako lanbide ona izango da...**

Bai, oso ondo etortzen da. Jende askorekin duzu harremana egun osoan, hitz egin...

**Lan gogorra ere bada, dena den.**

Bai, alde ona eta txarra ditu: libratu gutxi, ordu asko, asteburu eta jai egunetan lan... baina beno, pozik gaude. Oso pozik etortzen gara lanera, aurrera goaz, gure proiektua da.

**Nola definituko zenuke zuen lana Argentinako erdaran?**

Laburo jodido esango nuke. Baina pozik gaude, ahal bada urte pila batean jarraitzeko asmoz, hala izan dadila.

# HERRIAK

BERGARA

## 125 urte dira San Pedroko organoa inauguratu zutela

- ▶ Algodonera lantegiko nagusiaren alargun Martina Maizen dohaintza izan zen musika instrumentua
- ▶ Instrumentu aparta da, ondare baliotsua, baina gaur egun zaharberitze premia larrian dago

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Martitzenean 125 urte bete ziren San Pedro parrokiako Stoltz-Frères organoa inauguratu zutela. Bernardo Badiola organo jotzaileak inauguratu zuen 1889. urteko martxoaren 18an, eta ordutik gaurdaino dotoreziak bete du bere eginkizuna. Baina 125 urte ez dira gutxi, ezta instrumentu batendako ere, eta zaharberitze premia handian dago. Adituek esandakoaren arabera, denbora tarte motzean ez badira neurriak hartzen eta konponketak egiten, ez du atzera bueltarik izango eta herriak duen ondare artistiko berezi eta baliotsuetako bat betirako galduko da.

### 36.500 frankoren truke

Parisko Stoltz-Frères etxeak eraiki zuen San Pedro parrokiako organoa. 36.500 franko kostatu zen eta ordainketa hiru zatitan egin zen: lehena, 12.500 frankokoa,

kontratua sinatzean, 1887. urtean; bigarrena, 4.000 frankokoa, instrumentua Beasainera iritsi zenean; eta hirugarrena, 1889an, organoa Bergarara iristerakoan.

Aipatzekoa da, bestalde, lehiketa bidez aukeratu zela organoa nork egin 1987an. Hiru proiektu aurkeztu ziren: Merklin et Cie etxearena, Cavaille-Coll etxearena, eta aukeratua izan zen Stoltz-Frères Parisekoarena.

### Martina Maizen dohaintza

Martina Maizen -Jose Julian De Blanc, Algodonera lantegiaren sortzailearen alarguna- dohaintza izan zen eta Bernardo de Gabiola organo jotzaileak estreinatu zuen, 1889. urteko martxoaren 18an.

San Pedroko organo erromantikoa berezitasun ugari ditu. Eraiki zuten unetik bertatik diapasoi normala baino tonu erdi



San Pedroko Stoltz-Frères organoa. | GOIENA

baxuago afinatuta dago. 56 notadun hiru esku-teklatu ditu, 30eko pedala eta 2.400 hodi.

1973. urtean zaharberritu egin zuten Jose Maria Galdos eta haren bazkide Alejandro Usabiaga De Hernanik. Baina ez zuen bere

izaeraren izpirik ere galdu. Azpeitia eta Azkoitiko organo erromantikoen moduan, San Pedrokoa ez dago elektrifikatuta eta eraiki zeneko soinua bera du, Europako gainerako organo handiek ez bezala.

Bada, San Pedroko organoa are ezohikoagoa da; izan ere, ez zaio sekula aldaketarik egin; bere horretan mantentzen da eta gaur egun, ez dago ezaugarri hori betetzen duen beste organorik: mundu osoan jatorrizko egoeratik gertuen dagoen Stoltz-Frères etxeako organorik handiena da San Pedrokoa.

### Egoera oso larrian

Organoaren egoera kaskarra dela eta, elizkizunetan bakarrik erabiltzen da gaur egun. San Pedro eta Santa Marinako organista Aitor Oleak hauxe esan du: "2013. urteko uztailea ezker ez da bertan kontzerturik egiten eta entseatu ere ez dut bertan egiten". Azpeitiko eta Azkoitiko organo erromantikoen San Pedrokoan duela hamalau urte abiatu zuten Organo Erromantikoen Zikloa ere ezin izan da San Pedroko organoan egin. Eta hauxe gehitu du: "125 urteotan bere soinua ahaltsuek eta bakartiek une gogoangarri asko eman dituzte. Europan eta AEBetan miretsi egiten dute. Hainbat CD grabatu dira bertan, daukan bikaintasuna eta nortasuna azpimarratuta. Galduko balitz, Bergarak duen aktibo artistiko musikal esanguratsu eta bakarra galduko litzateke".

Gauzak horrela, zenbait herri irabazi asmorik gabeko elkarre bat eratzeko bidean ari dira, San Pedroko organoaren konponketa prozesua abiarazteko ahaleginean.

AITOR OLEA | SAN PEDROKO ORGANISTA

## "Martxa honetan jarraituz gero, ez dakigu organoa noiz arte helduko den"

### Ze ezaugarri egiten dute berezi eta bakar San Pedroko Stoltz organoa?

Mundu osoan jatorrizko egoeratik gertuen dagoen Stoltz-Frères etxeako organorik handiena dugu San Pedroko organoa.

### 125 urte ez dira gutxi, ezta instrumentu batendako ere. Ze osasun egoeratan dago?

Zahartzaroko azkenetan; fonetikoki bere soinua ahaltsuek hor jarraitzen dute, baina mekanikoki ahulezia izugarriak ditu: haize ihesak ugari eta nonahi, noten mekanika ahulduta, ziren endekatze orokorra, hauspoen larruak harrotuta eta zulo ugariekin... Organoa erresidentzian dago. 2013ko ekainean *bypass*-a egin zitzaion eta ebakuntza orokor baten beharrea dago.

### Konponbiderik badauka?

Bai, baina konponbide horrek diru kostu izugarri handia du.

### Eta interbentzioak ze urgentzia dauka? Adituek zer diote?



AITOR OLEA

Martxa honetan, ez dakigu noiz arte helduko den. Garbi dagoena da endekatze prozesua gero eta azkarrago doala; batez ere, azkeneko urteetan oso nabariak izan dira kalteak.

### Konpontzeko asmorik badaogo?

Parrokia aspaldi mantenu minimoak ari da egiten, baina ez dira nahikoa. Organoaren bueltan, irabazi asmorik gabeko elkarteak ari gara eratzten herrian. Proposamen, egitasmo eta ekintzak batzen ari gara konponbideari sarbide bat emateko asmoz.

IKUSPUNTUA



VALEN MOÑUX URIBESALGO  
goiena.net/komunitatea/

## Soltz-Frères: 125 urte

1889ko martxoaren 18an inauguratu zen San Pedroko organoa. 125 urte bete berri ditu. Instrumentu bitxi honek ez du jasan aldaketarik bere historian eta mantendu egiten ditu egin zeneko bertute guztiak. Baina mende bat eta laurden denbora luzea da edozein instrumenturentzat. Are gehiago, hiru teklatu, pedalier eta 2.400 tutuz osatutako makina erraldoi eta konplexu batentzat.

Berregokitze lan sakona behar du, aurrekontua oso handia da eta finantzazio iturri falta galanta sumatzen da. Adituen ustez, lanak ez badira azkar egiten, hemendik gutxira makina berezi honek ez du gehiago funtzionatuko.

Organo-jolearen semea izanda, izugarrizko pena eman dit bergarrok dugun ondare artistiko baliotsuaren egoeraren berri hori jakiteak. Ez pena bakarrik, baita beldurra ere. Kultura eta musika arloan urte mordoxka murgilduta, garbi ikusi dut nola gutxitu den Bergarak zuen ondare kultural garrantzitsua; hau da, antzoki kopurua: Irala, Novedades eta

Seminarioko zineak, Mariaren Lagundiko antzokia... denak desagertuta ordezkorik gabe, eta proiektu berriren baten arrastorik ere ez. Benetako inbidiaz egiaztatzen dut gure antzoko beste herri batzuetan ahalegin handiak egin direla antzoki edo auditorium modernoak izateko. Bergara, berriz, zeharo atzean gelditu da, gurea baino herri txikiagoekin konparatuta

ere. Hau adibide ezaguna eta bistakoa da, baina batzuetan susmoa dut proiektu ausartetan sartzen ari garela, emaitza egokia izango duten jakin gabe eta, era berean, ahaztu egiten zaigu aspalditik

dugun ondare eta balore garrantzitsuak zaintzea, mantentzea eta berritzea.

Martina Maizek, Algodonerako sortzailea izan zen Jose Julian Blanc-en alargunak, donatu zien San Pedroko parrokiari eta, hortaz, bergarrei, gure herriko tradizio musikal distiratsuekin parekatzen zuen musika instrumentu zoragarria: Stoltz-Frères organo erromantikoa, hain zuzen. Gai izango al gara gure ondare artistikoa bizirik mantentzeko?

## "Ondare artistikoa bizirik mantentzeko gai izango gara?"

# Hondakinen Mahaiaren akordioa berretsi zuten eguazteneko bilkuran

Bigarren seihilekoan jarriko da martxan kontrol bidezko edukiontzien sistema

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaiak 2013ko urrian lortutako akordioa berretsi zuten eguazteneko osoko bilkuran, Bildu, EAJ eta Aralarren aldeko botoekin (14) eta PSE-EE-ren kontrakoekin (4). Hala, 2012ko ekainaren 12an atez ateko sistema ezartzea onartzen zuen erabakia bertan behera utzi zuen udalbatzak.

Hondakinen Mahaiaren akordioari udal akordio izaera eman zioten; beraz, akordioak aurrera egingo du alderdi sozialistaren presentzia barik. 2014ko bigarren seihilekoan martxan jarriko den kontrol bidezko edukiontzien sistemak %70 gaika biltzea du helburu eta bederatz hileko probaldian tasa horretara heltzen bada, balekatzat joko da sistema. Tasa horretara ez bada heltzen, ordea, atez ateko sistema jarriko da.

## Konfiantza herritarrengan

Udal Gobernuak bozeramaile Maider Morrasen arabera, akordioa lortu izana bera oso pozgarria da: "Herriaren nahia beteko duela uste dugu, herritarra hasi da ikusten dagoeneko herria egokitzen ari dela sistema berria martxan jartzeko. Alderdi sozialista ezik, denon artean akordioa lortu izana bera positiboa da. Gainera, uste dugu herritarra gai izango dela jarri ditugun helburuak lortzeko. Herritarrengan konfiantza osoa dugu". PSE-EE ez egotearen gainean honakoa dio Morrasek: "Denok batera egin behar dugu lan, baina Alderdi Sozialistak ez du lan hori gurekin egin gura, ez du bere jarrera aldatzeko asmorik. Ez dute bileretan parte hartu nahi, Hondakinen Mahaia utzi zuten hasieratik eta gaur ere ezezko hori berretsi dute. Penagarria da".

EAJk ere ez du ulertzen Alderdi Sozialista Hondakinen Mahaian ez egotea. Jeltzaleen arabera, sozialistek ez dute arrazoirik bertan ez egoteko: "Bosgarren edukiontzien eta orokorrean edukiontzien sistemaren alde egonda, ez dugu ulertzen horrela desmar-

katu izana eta ahaleginik ez egitea akordioaren alde. Guk konfiantza osoa dugu herritarrengan proposatu ditugun helburuak lortzeko". Udal talde sozialistako bozeramaile Aritz Arrietak honela azaldu zuen erabakia: "Akordioak jasotzen du birziklatzearen %70era heltzen ez bada atez atekoa inposatuko dela. Atez atekoa jartzeko nahia dago akordioaren atzean. Amaierako ohar edo *kolektilla* horrekin ez gaude ados, eta mahaiak hartutako beste erabaki batzuk ez ditugu konpartitzen. EAJri esan gura diogu gauzak gaizki irteten badira eurak ere izango direla erantzule".

## Udal legearen alde, aho batez

Bestalde, PSE-EEK Udal legearen gainean aurkeztutako mozioa aho batez onartu zen. Udal legeak herri administrazioen jarduna arrazionalizatu eta bikoiztasunak saihestea du helburu, dirua aurrezteko. Zinegotzien artean eztabaidatu piztu zuen gaiak, batez ere jeltzaleen eta sozialisten artean.



Larrañaga, Huerta eta Unamuno martitzeneko agerraldian. | IMANOL GALLEGU

## Etorkinen integratzaile, herritarren inplikazio bila

'Arrasatek mundura, mundutik Arrasatera' proiektua herriari aurkeztuko diote hilaren 24an

I.G. / J.B. | ARRASATE

2012ko ekainean Udalak eta Ekin elkarteak etorkinendako eta bazterte arriskuan dauden pertsonendako harrera, orientazio eta formazio modulua jarri zuen martxan. Zerbitzu horren bidez, herrira etorritako pertsonen harrera egin eta askotariko laguntzak ematera bideratzen dituzte.

Aurten harrera zerbitzu hori Auzoko programarekin uztartu dute eta *Arrasatek mundura, mundutik Arrasatera* proiektua abiarazi: "Udalean ikusi dugu beharrezkoa zela halako proiektu bati heltzea. Arrasate herri anitza da eta denon ardura da; denok egin behar dugu lan integratzailearen alde", adierazi zuen Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Amaia Larrañagak, martitzenean Kulturaren egindako prentsa agerraldian.

## Orientazioa eta informazioa

Arrasatek eskaintzen dituen baliabideak ezagutzeaz gain, lagundu beharrezko pertsonaren egoerak eskatzen duenaren arabera beharrezkoa zaion orientazioa eta informazioa

jasotzen dituen eskuorriak ere sortu dituzte: "Eskaintzen ditugun zerbitzuen berri ematen du, hizkuntza ezberdinetan", jakinarazi du Ekin elkarteko dinamizatzaile Maitane Unamunok. Etorkina euskarara hurbiltzeko hizkuntza ezberdinak euskarara itzultzen dituen hiztegitxoak ere sortu dituzte. Horrek guztiak kanpotik etorri dena herrian eta gure kulturaren integratzea du helburu.

## Aurkezpena hilaren 24an

Herritarrek ere proiektuaren berri izateko, aurkezpen ekitaldia egingo dute astelehenean, hilak 24, Kulturateko areto nagusian (18:00).

## ESANAK

"Denon ardura da, denok egin behar dugu lan integratzailearen alde"

AMAIA LARRAÑAGA | GIZARTE ZERBITZUAK



Eguazteneko ezohiko osoko bilkuran hainbat gai landu ziren; tartean, hondakinak batzeko sistema berria. | JOKIN BEREZIARTUA

## Zirkulaziorako ordenantza berria

Udalak orain arte ez zuen herri barruko bideen erabileraren gaineko ordenantzarik. Behin betiko onartu da ordenantza, herritarrei ekarpenak egiteko epea amaitu ostean. Herri barruko abiadura muga orokorra 30 kilometro ordukoa izango da zenbait kaletan izan ezik; Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba etorbideetan, Urribarrin, Otalaran eta Zarugalden, Arrasate pasealekuan, Alfontso VIII eta Kontzezin kaleetan, 40 kilometro ordukoa izango da gehieneko abiadura.



Otalaran gehieneko abiadura 40 kilometro ordukoa izango da orain. | J.B.

## Zarugalde kaleko 44 eta 46. zenbakien atzealdeko mendi-hegala egonkortuko du Udalak udazkenean

Udalak Zarugalde kaleko 44 eta 46. zenbakidun etxeen atzealdean lanak egingo ditu, bertako mendi-hegala egonkortzeko. Lanekin etxebizitza horietan bizi direnei konponbide bat eman gura diete. Izan ere, atzealdean dagoen terrenotik jausi izan diren haitz edo harri zatiei eusteko jarri zen sarea ez dago egoera onean, urteen poderioz kaltetu egin delako. Aurreikusten da lanok 2014ko udazkenean hasi eta bost hilabetetan burutzea. Proiektuaren aurrekontua 469.678 euro da.

## Udalak hiru baso-langile eta lorezaintzako bi peoi kontratatuko ditu, Aldundiaren programari esker

Udalak hiru baso-langile eta lorezaintzako bi peoi kontratatuko ditu, Gipuzkoako Aldundiak enplegua sustatzeko laguntza programaren barruan. Bost hilabeteko kontratuak izango dira eta interesatuek eskabideak BAZen jaso eta entregatu beharko dituzte, martxoaren 21etik 29ra bitartean. Enplegua sustatzeko laguntza programa horren barruan baliabide naturalak garbitzeko eta zaintzeko lanetarako kontratatuko dira bost langileak. Argibide gehiagorako BAZera jo edo 943 25 20 00 telefonora deitu.

Jose Mari Balantzategi 'Aizkora' | Udaleko langile ohia

# "Jendurrean lan egitea ez da erraza, eramaten jakin behar da"

Erretiratu egin da Udaleko langile ezagunena: "Txipa aldatuko dut orain", dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten inor badago aurkezpenik behar ez duena hori Jose Mari Balantzategi *Aizkora* da. Era berean, inor gutxi egongo da herrian *Aizkora*-k fitxatuta ez duena. Tomasaren eta Luisen seme, *Aizkora* dendan jaio zen 1949ko martxoaren 27an. 1970a ezker ibili da Udalean, estatistikekin eta herritarrei begira lanean.

**Amaitu da, hilaren 27an ofizialki hartuko duzu erretiroa. Orain zer?**

Hasteko, Udaleko txipa kendu eta gero, nik nahi dudana egin. Bidaiaren bat edo beste egingo dut, baina argi daukat Arrasaten biziko naizela, ez dut nire herriatik alde egingo.

**Azken laneguneari eta polita izan zuten lankideek. Udaletxeko irteeran inaugurazioetarako zinta moztu zenuen, besteak beste.**

Bai, oso ondo egon zen. Nahiko inprobisatua izan zen; hori izan zen politena. Gero mokadutxo

batera gonbidatu nituen lankideak. Guztiekin ez, baina gehienekin harreman ona daukat.

**Goazen atzera. Nondik dator *Aizkora* ezizena?**

Maala kaleko dendaren izenetik eta gure osabaren tabernatik hartu nuen, baina izenaren jatorria ez dugu ezagutzen. Dendaren atzealdean jaio nintzen; medikua etxera joan zen, baina di-da baten bueltatu behar izan zuen, nire ostean beste bat zetorrelako: Pedro anaia bikia. Medikua ez zekien bi zetozela. Gero, anaiarekin askotan nahasten ninduten.

**Nola sartu zinen Udalean?**

1962an aita hil zitzaigun eta udaletxean sartu aurretik dendan egin nuen lan, amari laguntzen. 1970eko irailaren 30ean hasi nintzen Udalean, biztanleen erroldak egiten. Orduan, bost urtean behin eguneratzen ziren datuak, etxez etxe joaten ginen.

**Urte luzez jendurrean lanean...**

BAZ ireki aurretik 30 urte egin ditut herritarrei begira lanean. Jendurrean lan egitea ez da erraza, eta hori eramaten jakin egin behar da. Hamar alkate ezagutu



*Aizkora*, haren bigarren etxea izan den udaletxea atzean duela. | J.B.

ditut, eta guztiekin harreman ona izan dut; inork ez nau kartzelara bidali [Barre]. Gainera, zazpi idazkari, bi diruzain eta bi kontu-hartzaile ere ezagutu ditut.

**Goazen estatistiketara. 1970ean baino herritar gehiago gara egun?**

Antzeko kopurua. 1970ean ofizialki 22.421 ginen eta 2013an, berriz, 22.051. 1985ean izan genituen biztanle gehien: 26.633. Orduetik hona behera egin dugu, ia 1970eko kopurura bueltatzera arte.

**Herrian egongo da zu baino pertsona ezagunagorik?**

Bai, Jose Manuel Arriola aguzail ohia. Oso ezaguna zen gure artean, hainbat anekdota daude:

mutil batek txiza egin gura zuela ikusten bazuen, eta nahiz eta ez egin, isuna jartzen zion: "¡La intención basta!". Jendeak uste du hilda dagoela, baina ez, 96 urte ditu. Nik jende asko ezagutzen dut, nire lantokitik jende asko pasa izan zelako. Gazteekin ere tratatu handia nuen, soldadutzak eragindako kintoen gaia zela-eta; orain, desagertuta dago. Jende nagusiarekin eta gazteekin izan dut harremana.

BAZ irekitzeak publiko aurrean lanik ez egitea ekarri zidan, baina nire lana berdina izan da beti, dokumentuak nik tramitatu izan ditut azkenera arte.



1997an, makina zaharrarekin. Atzean, ezagun egin zuen leihatila. | J.M.B.

## Lagunilla taberna ohiaren erabilera salatu du PSE-EEk

J.B. | ARRASATE

Arrasateko sozialistek salatu dute Udalak Lagunilla taberna ohiaren "erabilera irregularra" baimentzen duela eta egoerari "urgentziatzeko konponbidea" emateko eskatu diote. Aritz Arrietak Udala Gobernuaren aldetik lokalak duen "faborezko tratuagatik" galdetzen du, "ulertezina" dela deritzo: "Lagunilla ohia presoen aldeko eta bestelako taldeek erabiltzen dute, lizentziarik gabe". Udalarari eskatu diote ez dezala irekiera baimendu legezko baldintzak bete arte.

## Erabakitze eskubidearen alde, argazki herrikoia etzi



Gure Esku Dagoren aurkezpenaren osteko talde argazkia. | ARRASATEKO GURE ESKU DAGO

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Erabakitze eskubidearen gaia gizarteratu eta "ahalik eta sukalde gehienetara" heltzeko asmoz, astelehenean aurkeztu zuten Gure Esku Dago dinamikaren Arrasateko lantaldea. Duela ia urtebete sortu zen Euskal Herri mailako ekimena zertan datzan azaltzen duen bideo labur batekin hasi zen aurkezpena; gero, Onintze Guridi eta Jon Zuloaga taldeko kideek hartu zuten hitza; biek nabarmendu zuten taldea irekia dela.

Taldea 25 bat lagunek osatzen dute egun, baina gehiago izan gura dute: "Askotariko arrasatearrok bultzatutako ekimena da, herritik egin. Talde irekia gara, eta, beraz, ateak zabalik ditugu erabat". Astelehenero elkartzen dira Kulturaten -egunean bertan sarrerako telebistan zehazten da

zein gelatan-, 18:30ean. Aurkezpenaren ostean, *Gazta zati* bat dokumentala ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

**"Jendetsua eta koloretsua"**

Lehen ekintza domeka honetarako, hilak 23, antolatu dute. "Argazki herrikoia" atera gura dute Herriko Plazan, 13:00etan: "Arrasatearrok gure etorkizuna guk erabaki nahi dugula erakustea da argazki horren helburua, ahalik eta jendetsuena eta koloretsuena izan dadila".

Ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza kateari begira, 1.500 arrasatear batzea da lantaldearen erronketako bat. Hala ere, giza katea ez dute helburutzat hartzen, erabakitze eskubidearen gaia mahai gaineratze "bitartekotzat" baizik.

zenbaki  
aholkulariak-abokatuak



**Juridikoa:**

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penal: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.

- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.

- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.es

## PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriando - Piskologoa

- Diagnostikoa - Orientazioa
- Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
- Arreta psikologikoa genero indarkerian
- Laguntza eskolarrak
- Estimulazio goiztiarra
- Psikomotritzitatea eta logopedia
- Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

## Txatxilipurdik aurtengo udalekuak aurkeztu ditu

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Astehenean irekiko da Txatxilipurdiren udaleku "hezitzale eta euskadunetan" izena emateko epea. Aurtengo ekitaldiari begira, aisialdi elkarteko arduradunek aldaketak iragarri dituzte udaleku itxietan eta irekietan.

Azken horiek ekainaren 30etik uztailaren 18ra egingo dituzte. Erdigunean, Musakolan eta San Andresen banatuta, haurren jaiotza daten arabera sailkatuko dituzte taldeak udaleku irekietan. Bilin-bolonka udalekuak 2 urteko umeei begira eskainiko dira; Beibilekuak, Haur Hezkuntzakoentzat; eta Bihurrikerixetan, Lehen Hezkuntzakoentzat. Haurrak adin eta guneen arabera banatuko diren arren, iaz bezala taldeak hainbat momentutan nahastea aurreikusten da, adin eta auzo desberdinetako haurrek elkar ezagutzeko asmoz.

Goizez egingo diren ekimeenez aparte, egun osoko eta gaua

pasatzeko irteerak ere egingo dituzte Txatxilipurdiren udaleku irekietan.

### Udaleku itxiak

Elkarteko arduradunek aurreratu dutenez, udaleku itxietan ere aldaketak izango dira. Orain arte, Oriora joan diren 12-14 urteko gazteek bi aukera izango dituzte: DBHko gazteei (12-16 urte) Askizu eta Otxandioko udalekuetan parte hartzeko aukera emango zaie; eta 12-14 urte artekoek, berriz, Debagoiena zeharkatuko duen Bailara Xtreme udaleku ibiltaria eskainiko zaie.

Udaleku ireki zein itxietan izena eman nahi duenak aukera zabalik du astehenean hasi eta datorren maiatzaren 9a arte. Izena emateko, izen-emate fitxa eta oradainagiria aurkeztu beharko da Txatxilipurdik Nafarroa etorbidean duen egoitzan. Aurten lehen aldiz Internetez ere eman daiteke izena, [www.txatxilipurdi.com](http://www.txatxilipurdi.com) webgunean.



Txatxilipurdiko kideak udalekuak aurkezpen ekitaldian. | AMAIA TXINTXURRETA

Maite Barreña | Arrasateko Berdintasun teknikaria

## "Gizarte eragiletzan emakumeon presentzia murrizta izan da"

- Udal Berdintasun Plana osatzeko prozesua martxan da duela bi astetik
- Herritarren parte hartzea sustatuko du Arrasate Andredetan ekimenak

M.A | ARRASATE

Joan den martxoaren 4an, *Arrasate Andredetan* ekimena aurkeztu zuten Bagarak, Emakume Txokoak eta Arrasateko Udalak. Ekimen horrek Udal Berdintasun Plana osatu nahi du, horretarako esparru askotariko emakumeen parte hartzea sustatuta. Berdintasun teknikari Maite Barreña da prozesu horren arduradunetako bat.

### Zer da Andredetan ekimena?

Arrasate Andredetan herriko emakumeen parte hartze sozio-politiko sustatzeko ekimena da. Proiektua Arrasatek izan duen ibilbidearen ondorioz dator. Herriko berdintasun politikek urte asko daukate, eta hauetan sakondu nahi dugu orain. Iazko Jardunaldi Feministen eta azken lau urteetan egin dugun Jabetze Eskolaren bide beretik dator proiektu hau ere.

### Zertan eragin nahi duzue?

Bizi garen gizarte honetan emakumeen presentzia murrizta izan da historikoki. Alderdi politikotatik, instituzioetatik eta baita gizarte mugimenduetatik ere emakumeok parte hartzeko zailtasunak izan ditugu denbora luzez. Oztupoek hor diraute, eta guk hauen gainetik joan nahi dugu orain.

### Zein da Andredetan prozesurako prestatu duzun egutegia?

Prozesu parte hartzailea aurreikusi dugu. Duela bi aste agerraldi publikoa egin genuen, eta orain prozesuko lehen fasean sartuko gara. Gizonen zein emakumeen bizipenak jasoko ditugu, tailerren, eztabaiden eta inkestaren bidez. Gero, bigarren fase baten, jasotako datuak aztertuko ditugu; eta azkenik, konklusioak Udalar



Maite Barreña, Arrasateko Emakume Txokoan. | M.A

**"Prozesu guztian zehar herritarren parte hartzea bultzatuko dugu"**

aurkeztuko dizkiogu, hark Udal Berdintasun Plana osa dezan. Esan behar da prozesu honetan guztian herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugula.

**Zein da prozesua betetzeko daukazuen egutegia?**

**"Ondorioak herriko hainbat eragilerekin banatzeko asmoa daukagu"**

Prozesua udarako amaitu beharko dugu, gero irailean konklusioak Udalarri aurkezteko. Aipatu behar da prozesutik irteten den analisia herriko hainbat alderdi, sindikatu zein elkarterekin banatzeko asmoa ere badaukagula.

## '8 apellidos vascos' da asteburuko zine proposamena

M.A | ARRASATE

*8 apellidos vascos* filma eman go dute asteburuan Amaia antzokian. Neska euskaldun baten eta mutil andaluziar baten arteko amodio istorioa kontatzen duen filmeko pasarte bat Arrasateko Al Andalus elkartearen grabatu zuten, besteak beste. Bada, joan den astean estreinatu zuten filma, eta ordutik hona arrakasta handia lortu du estatuko zinemetan.

Zapatuan 19:30ean eta 22:00etan emango dute, domekan 19:30ean eta astehenean, berriz, 20:30ean.

## Komiki tertulia egitaraua itxi dute

Miguelanxo Prado egile galziarraren *Ardalén* komikiari buruzko tertulia egin zuten joan den eguaztenean Kulturaten. Datorren eguaztenean, tertulia literarioek jarraipena izango dute Jamaica Kincaid idazlearen *Nire amaren autobiografia* liburuaren inguruko saioarekin. 18:30ean, Jokin Zaitegi gelan.



# Vallecasen sortutako ideia Arrasaten gauzatu dute

Arrasate Dragoi Txuri-Urdinak taldea aurkeztu zuten eguaztenean 'Gontxa' eta Jose Angelekin

X. URZELAI / I. GOITIA | ARRASATE

Realeko zaleak beti ibili izan dira gustora Madrilén. Zuzenagoak izateko, Madrilgo auzo batean, Vallecasen. Talde txuri-urdinak oso harreman ona du Rayo Vallecanorekin, eta zaleen artean anaitasun giroa dago.

Bada, auzo horretan sortu zen eguaztenean ofizialki aurkeztu zuten Arrasate Dragoi Txuri-Urdinak taldea sortzeko asmoa: "Vallecasen ginela Realaren partiduen ostean poteatzen sortu zitzaigun ideia. Ni sasoi hartan Madrilén bizi nintzen, eta Arrasateko hainbat Realzaleekin elkartu nintzen han. Bada, garagardo artean sortu zitzaigun zale talde bat sortzeko ideia, eta duela urtebete hasi ginen serio lanean", diosku bertako bazkide Lur Delgadok.

## Hogeita hamar bazkide

Oraingo, taldeak hogeita hamar bazkide ditu, baina atek zabal-zabalik daude: "Orain arte 29 izan gara, baina hiru hilabete bete berri dituen Alain Cabrera izan da azkeneko bazkidea". Haurrak, gainera, protagonismo berezia izan zuen eguazteneko aurkezpen ofizialean, Bar Donostian zegoen jendetza zela-eta gaztetxoak azken orduan eraman zuten-eta, baina erretratuetan aurre-aurrean ageri da.

## Jende asko aurkezpenean

Halakoetan gertatzen den moduan, Realeko jokalarik Mikel Gonzalezek eta Jose Angelek lan handia izan zuten gaztetxo eta ez horren gaztetxoei sinadurak egin eta eurekin erretratuak ateratzen.

Taldearen aurkezpen ofiziala egiteaz batera merienda ere egin zuten, modu originalean, gainera [Ikus *goiena.net*-eko argazkiak]. Izan ere, Realeko armarriz egindako pastel ederraz batera galletak ere halakoxeak ziren.

## Taldeaz bidaiatzeko asmoz

Arrasateko Dragoi Txuri-Urdin taldeak hainbat bidaiara egin ditu dagoeneko Realak babesten: "Vallecasen izan ginen, eta baita Old Trafford-en ere, Manchesterreko partiduan. Bestalde, duela bi aste Sevillan izan ginen. Ez genuen autobus bat betetzeko adina jende batu, eta autoetan egin genuen bidaiara". Manchesterreko berriz, autobusean egin zuten bidaiara: "Gogorra izan zen, joaten 24 ordu erabili genituelako, eta 26 bueltako bidaiara. Baina, Europako esperientzia errepikatu nahi dugu".

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Eguaztenean egindako aurkezpeneko talde argazkia. | IRATI GOITIA

## Asier Biain

Amaia-Berri iturgintzako ugazaba

# "Gaur egun oso kontuan hartzen diren kontzeptuak zaintzen ditugu"

Iturgintza, gas eta berokuntza alorretan lanean dihardute Amaia Berri iturgintzan 1970a ezker. Aitak eta osabak hasitakoari Asier eta Amagoia Biain izaba-lobek eutsi diote. Aretxabaletan dute tailerra eta bulegoa eta Instagiko, Gipuzkoako instalatzaile eta mantentze-lanen enpresen elkarte, kide da Amaia Berri.

## Berokuntza alorrean, zerbitzu osoa ematen duzue, ezta?

Bai. Instalazioak egiteaz gain, galdara-gelak zaharberritu eta mantentzen ditugu. Eta gainera, Euskal Energia Erakundeak ematen dituen diru laguntzak lortzeko dokumentazioa tramitatzen dugu, partikularrendako zein komunitateendako.

## Teknologia berrienak erabiltzeari garrantzia ematen diozue...

Gaur egun oso kontuan hartzen diren kontzeptuak zaintzen ditugu: efizientzia,



Amagoia Biain eta Asier Biain, Amaia-Berri enpresaren kanpoko aldean.

Benetako efizientzia ez dago galdaran bakarrik, gainontzeko instalazioek eta osagarriek ere horretara bideratuta egon behar dute.

ingurumena errespetatzea, aurreztea, energia berriztagarriak... Erabiltzen ditugun teknologia eta materialak filosofia horretara bideratuta daude. Kasu honetan ere, energia berriztagarrien erabilerarengatik ematen dituzten diru laguntzak tramitatzen dizkiegu

partikularrei: aeroterma, geoterma, eguzki plaka termikoak, biomasa (pellea, oliba hezurak...).

## Emaitzak oso kontuan dituzue, ezta?

Bai. Izan ere, berokuntzan efizientziarik handiena bilatzeko orduan, garrantzitsuak dira diseinua, era-

bilera, konfigurazioa, ekiparearen errendimendua eta hodian eta etxebizitzaren behar bezalako isolamendua. Azken batean, benetako efizientzia ez dago galdaran bakarrik, gainontzeko instalazioek eta osagarriek ere horretara bideratuta egon behar dute.

## Sergio Scariolok berbaldua egingo du MUn hilaren 25ean

X.U. | ARRASATE

Saskibaloia eta teknologia berriak lelopean Laboral Kutxa Baskonia saskibaloia taldeko entrenatzaile Sergio Scariolok hitzaldia egingo du Arrasaten martxoaren 25ean, asteartea (20:15ean, 7006. gelan).

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak eta Arrasateko Ointxe Saskibaloia Elkarteak elkarlanean antolatu dute berbaldua, eta plaza mugatuak izango dira. Italiako entrenatzailearen kirol ibilbidea ez da nolana hikoia, Italiako liga irabazi ostean iritsi zen ACBra, 1996an -orduko Tau entrenatzaile. Espainian hainbat titulu irabazi ditu, Gasteizen, Madrilén eta Malagan, eta selektzio hauetaz ere izan da. Josean Kerejetak fitxatu zuen denboraldi honetarako, baina aurtengo urtearekin zaleak ez daude batere pozik.

## ZALDIBAR

### EMAITZAK, FINAL-ZORTZI.

Aldatz-Ostanz	7-1
Dribling-Abokajarro	4-1
Jibaros-Iluntz	1-5
Haizea-Fidel	2-4
Birigarruak-Lasagabaster	2-6
Sport in tus bragas-Sonografos	4-8

### EMAITZAK, FINAL-LAURDENAK

Betrayer-Iluntz	6-2
Fidel-Cantauri	5-1
Aldatz-Sonografos	3-6
Dribling-Lasagabaster	3-2
Birigarruak-Lasagabaster	2-6
Sport in tus bragas-Sonografos	4-8

### PARTIDUAK

#### MARTXOAK 22 (FINALERDIAK)

11:00	Fidel-Dribling
12:00	Betrayer-Sonografos
17:30	Finala

**Kopako finala, bihar Zaldibarko Txapelketak bigarren astez jarraian Kopako partiduak hartuko ditu. Bihar finala irabazten duenak garai-kurra eta afari ederra irabaziko du.**



## Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Iturgintza  
Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak  
Gas instalazioak  
Energia berriztagarriak  
Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak  
Irisgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETA  
Tel.: 943 110649  
www.amaiaberri.com

## Helduentzako 'Coser y cantar' ipuin musikatua

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Ipuinak ez dira ume kontuak, eta Bergaran urte hasieran ekin zioten esaldi hori gertutik frogatzeari. Hileko azken martitzenetan helduentzako ipuin kontaketa saioak egingo dituzte, eta ekimenak oso erantzun ona izan du; bada, antolatzaileak ezustean harpatu ditu horrek.

Martitzen honetako hitzordua, baina, berezia izango da: "Ohituta gauden kontakizun bat izan beharrean, musika-rekin alaitutako antzerki-jolas bat izango da", azaldu du Virginia Imaz antolatzaileak. Bertaratzen direnak gaztetuta irtengo dira, haurtzaroko kontakizunak berpizteaz gain gaztetako jolasak ere ekarriko dituzte-eta gogora.

Ainhoa Limon ipuin kontalariak Juan Gutierrez musikariaren laguntzarekin antzerki parte hartzailea den *Coser y cantar* kontakizuna taularatuko dute osoko bilkuren aretoan (19:00). Bertan, memoriaren gaia hari bezala erabilita, 30 urtetik gorako haurtzaroko elementu ugari berreskuratuko dituzte, kontakizuna jolas tradizionalan oinarritzen da-eta.

Korroa, pasilloa, palmak eta halako jolas tradizionalak, batetik, eta Anis botila, zartagin, koilara eta beiera bat, bestetik, heldu askoren haurtzarokoaren soinu banda berrengingo dute. Martitzenekoa ipuinen bitartez haurtzarora bueltatzeko gonbidapen berezi bat da.

### Gazteak egubakoitzean

Zu eta ni izenburupean Dorleta Kortazarren haurtentzako ipuin kontaketa saioa izango da egubakoitzean Udal Liburutegian; 18:00etan 3-5 urte bitartekoentzat eta 18:30ean 5 urtetik gorakoentzat. Helduen saioak bezala, horiek ere doakoak izango dira.

Gogoan izan behar da ipuin kontakizunak ez direla mar txoan bakarrik izango. Gazte zein heldu, anima zaitzte fantasiaren leihoa zabaltzera!

## OHARRAK

### KATALUNIARA TXANGOIA

San Joxepe elkarteak irailaren 17tik 23ra Kataluniara egingo duen bidaiaren izena emateko epea zabalik dago.

### IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 17an bukatuko da. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko da.



Gobernu taldeak osoko bilkuren aretoan eman zuen balorazioaren berri. | JOKIN BEREZIARTUA

# Hondakinak batzeko sistema mistoarekin pozik

Joan den urteko datuekin alderatuta, %35 murriztu da hondakin kopurua

J. BEREZIARTUA / I. GALLEGU | BERGARA

Gobernu taldeak prentsurrekoa egin zuen martitzenean sistema mistoaren gaineko balorazioa egiteko. Aurrez adierazi zuten moduan, lehen hilabete honetako ibilbidearekin pozik daude, gaikako bilketak oso emaitza onak eman dituelako. Adierazi zuten, papera eta kartoia, ontziak, beira, errefusa eta organikoa kontuan hartuta, lehen hilabetean %35 murriztu da hondakin kopurua. Hau da, hondakin %81 gaika batu dira otsailean.

### Mankomunitatea, aurrerago

Udalaren lehen azterketaren ostean, Mankomunitatearen txanda iritsiko da. "Balorazio berri horrek hiru edo lau hilabete itxarotea eskatzen du. Orduan bere osotasunean egingo dugu azterketa sakonagoa. Hala ere, datuak

onak direnez, ezagutzera ematea pentsatu dugu, jendea motibatzeko, ikusteko egindako lanak bere fruituak eman dituela", adierazi zuen Leire Iruinek, Ingurumen zinegotziak.

Baikor dira Udal Gobernu taldeko kideak; diotenez, herri-tarren gehiengoaren inplikazioa eta ardura handia da: "Herriak jokatzen du paperik garrantzitsuena, etxean norberaren ardu-

ra da ondo bereiztea. Orain arteko gaikako bilketak oso emaitza onak eman ditu".

### Salaketak gezurtatu

Bestalde, Udal Gobernuak martxoaren 17an ateratako bandoaren gainean Bergara Garbiak egingo dako salaketak gezurtatu egin nahi izan ditu: "Bando informazioa zen eta 19 gunetan jarri dugu, begi bistara, poltsa gehien ikusten ziren lekuetan. Bizilagun horiei esan diegu nola jokatu behar duten. Era berean, esan gura dugu gehiengoak ondo egingo duela eta gutxi batzuek desitxuratzen dutela beste egindako lana", uste du Iruinek.

### Hondakinen mahaia

Era berean, Jaione Isazelaiak *Harira* saioan gezurra esan zuela uste dute Bergara Garbiak, EAJk eta Alderdi Sozialistak. Udal Gobernuak dioenez, zintzo joan ziren Hondakinen Mahaira: "Lanketa serio bat egin gura genuen, adostasun batera heldu, baina ez zen posible izan. Denok dakigu mahai horretan gauza asko esan zirela. Hau da, hama-bi saio egin ziren, eta hasieratik jarrera itxia izan bagenu, ez genituen hamabi bilera egingo".

Amaitzeko, Udal Gobernuak Arrasateko akordioa oso positibotzat jo du. Gogorarazi gura izan dute, baina, Arrasaten helburuak adostu dituztela eta probaldia izango dela. Eta emaitzak ez badira lortzen atez ateko sistema jarriko dela.

## LEHEN HILABETEKO BILKETA DATUAK\*

HONDAKIN MOTA	2013 OTSAILA		2014 OTSAILA		2013-2014 ALDEA
<b>Papera/kartoia</b>	33.989 kg	%8,85	40.288 kg	%16,25	%18,5
<b>Ontziak</b>	18.603 kg	%4,80	30.213 kg	%12,19	%62,4
<b>Beira</b>	34.760 kg	%9,05	42.636 kg	%17,20	%22,7
<b>Errefusa</b>	296.555 kg	%77,24	45.940 kg	%18,50	-%84,5
<b>Organikoa</b>	**0 kg	**%00,00	88.710 kg	%35,80	
<b>GUZTIRA</b>	<b>383.907 kg</b>	<b>%100</b>	<b>247.787 kg</b>	<b>%100</b>	<b>-%35,5</b>

\*Garbigunean jasotakoak, arropa eta olioak ez daude taulan kontuan hartuta. / \*\*2013an organikoa bereizita jasotzen ez zenez, ez dago gai honen datuik. /

ITURRIA: UDALA

## Bildu-Aralarren jarduna eta bandoa kritikatu du berriro Bergara Garbiak

Bergara Garbiak prentsa ohar bidez gobernu taldearen "gezurrak" salatu nahi izan ditu

U.M./I.G. | BERGARA

Duela astebeite EAJ eta PSE-EE alderdiekin batera alkate Jaione Isazelaiaren eta Leire Iruin zinegotziaren hitzak gogor kritikatu ostean, asteon Bergara Garbiak beste prentsa ohar bat argitaratu du. Komunikabideei igorritako testuan, Bildu-Aralarrek bidalitako azkeneko bandoa gogor kritikatu dute, hiru puntutan. Batetik, azkenaldian halako "lar-

txo" jaso dituztela esan dute eta diru zahuketa bat dela ere azaldu dute; bestetik, isunak jartzeko "mehatxua" azpimarratu, eta, azkenik, Bildu-Aralarren "gezurrak" salatu dituzte.

Isunei dagokienez, Bergara Garbiak salatzen duena da martxoaren 17ko bandoaren arabera, zabor-poltsak batzen dituztenek ezin dutela jakin haiek zer duten barruan, "baina poltsa kubo

barruan sartuta badago, bai; a ze lotsa gutxi!", diote. "Eta zela ez, isun ekonomikoaren mehatxua okurritu zaien errekurso inteligenteena da" Horrez, gain, eta beti Bergara Garbiaren ustez, gobernu taldearen estrategia argi antzematen da: "Inposatu, belurditu eta gero herria zigortu; horixe da Bergarako Bildu-Aralarren politika".

### Bilketa ez da birziklatzea

Bergara Garbiak zalantzan jartzen ditu gobernu taldeak emandako birziklapen datuak: "Nola daiteke gai batzuk lehen erroten ziren toki berberetara erroanda tasa igo izana? Magia akaso?", galdeztzen dute. Bildu-Aralarren "gezurrei" dagokienez, berriz, Bergara Garbiak argi utzi gura du ez dela gauza bera hondakinen bilketa selektibo eta gaiak birzi-

klatzea. "Atez atekoa sistema bat besterik ez da, ez ditugu nahastu behar bilketa selektibo eta birziklatzea, ez baitira gauza bera, eta hori egiteko ahalegine-tan dihardu hasieratik Bildu-Aralarrek: gezurrekin herritar-rrak mareatzen".

Bukatzeko, jakin gura dute 2014ko aurrekontutik zer dela eta aurrekusi dituen gobernu taldeak 1,9 milioi euro, "herriak nahi ez duen bilketa sistema ezartzeko, are gehiago langabezia-diren Bergarako familia ugariak bizi dituzten une gogor hauetan. Zein erraza den besteen diruarekin jolastea!", kritikatu dute.

Azken lerroetan, alkateari gezurrak esaten jarraitzeko eskatu eta gero, birziklatzearen alde eta atez atekoa inposatzearen kontra irtenbide bezala bosgarren edukiontzia aurkeztu dute.

# 35 urtez herriko ahotsen bilkura izan den Aritzetauren urtemuga

Zapatuan 19:00etan abesbatzak erdigunean emanaldi berezia egingo du

IMANOL GALLEGO | BERGARA

35 urte pasa dira Aritzeta abesbatzak otsail hotz hartan lehen emanaldia egin zuenetik. Orduetik hona, mila partitura eta emanaldi izan dira, baina abesbatzak tinko jarraitzen du. "Ia konturatu gabe igaro da denbora, ez da ibilbide erraza izan, baina atzera begiratu gero, argi dago esfortzuak merezi izan duela", dio Xabier Altzolak, Aritzeta abesbatzako lehendakariak. Ibilbide horretan, gainera, entzuleak beti ondoan izan dituztela azpimarratu du Altzolak.

Azken urteotan, gainera, aretoak alde batera utzi eta musika kalera atera dute. "Beste formatu bateko emanaldiak dira, musika kaletarragoa eskaintzen diogu entzuleari, arinagoa", aipatu du lehendakariak. Hori guztia, gainera, abesbatzaren ohiko kalitateari eta herritartasunari hutsik egin gabe. Zapatuko horren erakusle izango da: "19:00etan plazan elkartu eta afalordua arte kaleak girotzen saiatuko gara".

## Etokizunari begira

Egun duten erronka nagusia egindako bideari eustea da. Lehendakariak azaldu moduan, honaino iritsi badira euren lanari esker izan da eta etorkizuna ere bide beretik dator. Egun, astelehenean eta eguaztenetan entseatzen dute, eta kuriositatea duten horiek 21:00etan Mizpirualdeko egoitzako elizara gerturatu besterik ez dute.



Azkenaldian emanaldi asko kalean egin dituzte. | GOIENA

XABIER ALTZOLA | ARITZETA ABESBATZAKO LEHENDAKARIA

## "Kutsu herrikoa zaintzen saiatu gara"

Xabier Altzolak lehendakari bezala egingo duen laugarren urtea da eta nabari da urteurrena gogotsu hartu duela.

### Zein da irauteko sekretua?

Jendea; guk, talde egonkorra izateaz gain, errotazioa ere izan dugu eta bi faktore hauei esker egin dugu aurrera.

### Aritzeta beti izan du oso kutsu herrikoa.



Horri garrantzia eman diogu eta pozgarria da jendeak kutsu hori igarri izana.

### Kale emanaldi batekin ospatuko duzue urtemuga hau.

Beste batzuetan egin dugun moduan,

kalean ibiliko gara; ez ditugu puntuak zehazten, jendea pilatzen den heinean abestuko dugu. Abesbatzako kideok emanaldiaren ostean afaria egingo dugu.

# Angiolillo liburutegiaren hurrengo argitalpena

MIREN MUJICA | BERGARA

Ia hilabetero bezala, Angiolillo liburutegiak beste liburu aurkezpen bat egingo du. Oraingoan, gogoratuko dute duela 30 urte Pasaian, martxoaren 22an, Komando Autonomo Antikapitalistetakoa lau kide hil eta beste bat atxilotu zituela Espainiako Poliziak. Angiolillo liburutegiak, Bergarako gaztetxeak eta *Jar itzazu tapoiak, mesedez* irratsaioak egitarau berezia prestatu dute, "egun odoltsu haren" urtemugaren bezpera borobil honetan.

Alde batetik, martxoaren 21ean, 19:00etan hasita, Joni D. idazle katalana egongo da libu-

rutegian. Bere azken liburuaren gaztelaniazko itzulpena aurkeztera dator, *Grupos autónomos* deiturikoa, hain zuzen. Izen hori jarri dio, Pasaiaiko "sarraskian" hildakoak Komando Autonomo Antikapitalistetakoa militanteak zirelako.

## Kontzertua ere bai

Bestalde, gauean, 22:30ean, hardcore doinuek beteko dute Bergarako kartzela zaharra (gaztetxea). Alde batetik, Bartzelonako Reves taldeak (Rabia Positiva taldeko kide ohiak) joko du, eta beste alde batetik, Drop aretxabaletarrek. Sarrera 3 euro kostako da.

# Azoka Bergaratzen egitasmoaren barruan bilerak egin dituzte hainbat eragilerek

I.G. | BERGARA

Azoka Bergaratzen ekimenean egin dituzte ildoetako lantaldeen lehen saioak: ekonomia lokalekoa, herri eragileena, lehen sektorekoa eta aisialdi-gunearen ingurukoa; guztietatik ideia eta proposamen ugari batu dira.

Astegunetako jende jariora areagotzea da identifikatu den beharretako bat, eta, horretarako, baserriarren presentzia

areagotzeaz gain, azokan ekin-tza osagarriak txertatzearen ideia azaleratu da.

## Herriko elkarteak

Ildokako lanketek jarraituko duten arren, apirilaren 8an orain arteko ekarpenak partekatzeko herritar orori irekitako saio bat egingo da, eta, ekarpenak bateratzeaz gain, berriak egiteko aukera ere egongo da.

# Telesforo Aranzadi kalean dagoen etxebizitza eta atxikitako trasteleku bat salmentan jarri du Udalak

Bergarako Udalak Telesforo Aranzadi kaleko etxebizitza bat salduko du (3, 2. F), atxikitako 3. zenbakiko trastelekuarekin batera. Etxebizitza eta trasteleku bisita daitezke goizez 11:00etatik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera, eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara, asteleheneetik ostegunera. Horretarako, baina, gutxienez 24 ordu lehenago txanda hartu behar da 943 77 91 00 telefonora deituta edo idazkaritzan eskatuta.

# Udalak argitaratu du Erregetxo plazako etxebizitza tasatuetako zozketako parte hartzaileen zerrenda

Erregetxo plazan eraikiko diren babes publikoko erregimen tasatuko hamabi etxebizitzaren eta dagozkien garajeen zozketarako onartuen zerrenda argitaratu du Udalak. Zorionekoen zerrenda kontsultatu edo erreklamazioa jarri nahi dutenentzat, onartutako guztien zerrenda iragarki oholean jartzeaz gain [www.bergara.net](http://www.bergara.net) udal webgunean ere eskegi dute.

# 'Zela Troyke' filma eta solasaldia domekan

Emanaldiaren eta solasaldiaren ostean, Neighbor-ek kontzertua eskainiko du

I.G. | BERGARA

Donostiako Zinemaldiko 61. edizioan aurkeztuko du Asier Altuna *Kixi-k Zela Troyke* (Belarra mozten) film laburra. *Moritat* bati buruzko dokumentala da; hau da, krimen baten istorioa kontatzen duen abesti eslovakiar zahar bati buruzkoa.

Eslovakia Euskal Herritik urrun egon arren, filmean argi geratuko da kultura ezberdinen artean parekotasun handiak dardela. Doinu berriak, sentipenak, emozioak... horiek guztiek bat egingo dute domekan Zabalotegin, 19:00etan. Sarrerak zortzi eurotan salduko dira.

## Emanaldi berezia

Film laburra eskaini ostean, gainera, solasaldia izango da. Bertan, herrikideek bere lanari buruz dituzten galderak erantzungo ditu *Kixi-k*. Zinema emanaldia borobiltzeko, Neighbor taldeak kontzertua emango du Zabalotegin bertan.



**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**disdira**

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74



Irabazleak eta irabazleordeak, antolatzaile eta babesleekin. | JAGOBA DOMINGO

## Artola eta Irribarria, lau t'erdiko senior eta promes txapeldunak

**AMAIA TXINTXURRETA** | BERGARA  
Alegiako Iñaki Artola izan da Soraluze lau t'erdiko txapelketako irabazlea senior mailan. Ioldi aurkari gogorrarekin neurtu behar izan zituen indarrak Bergarako pilotalekuan atzo, martitzena, baina, Artolak ikaragarritzko partidua egin ostean, Ioldi faboritua gailendu zuen. Hamar puntuko aldearekin irabazi zion Artolak; 22-12 irabazi zion, hain justu.

Ioldik laugarren tantoan min hartu zuen belaunean, eta horrek ere baldintzatu zuen partidua. Ioldiren armarik onena, gainera, saka da, baina finalean ez zen hain fin ibili. Artola pozik zegoen partidua amaitu ostean; izan ere, parti-

dua uste baino askoz errazagoa eta laburragoa egin zitzaion.

Nahiko erraz irabazi zion, beraz, Artolak Ioldiri martitzeneko partiduan eta ikuskizun polita eskaini zuten, gainera.

**Irribarria, promesetan lehena**  
Irribarria eta Arteaga izan ziren nor baino nor gehiago, eta, azkenean, Irribarria izan zen garailea: 22-19 bukatu zuten partidua. Arteagak huts-egite asko izan zituen, eta, partidua amaieran markagailua nahiko parekatuta izan arren, Irribarriak irabaztea lortu zuen.

Txapelketaren antolatzaileak gustura gelditu dira aurtengoak eman duenarekin.

### LABEGARAIETA

#### EMAITZAK

Irama Elgeta - T.C.C.	3-0
Komando Piperrak - Beti Jai	4-6
Bruneta - Birgerias	2-7
Minimou Taldie - Deigo Valor	7-0

#### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Minimou Taldie	45	18
2 Diego Valor	44	17
3 Poteo Izarrak	41	17
4 T.C.C.	27	17
5 Komando Piperrak	21	18

6 Red Piranhas	18	14
7 Beti Jai	18	18
8 Brunet	17	18
9 Irama Elgeta	17	18
10 Birgerias	12	18

#### PARTIDUAK

MARTXOAK 23. DOMEKA	
16:00 T.C.C. - Diego Valor /	Beti Jai
17:00 T.C.C. - Beti Jai /	Diego Valor
18:00 Brunet - Minimou Taldie /	Poteo Izarrak
19:00 Poteo Izarrak - Komando Piperrak /	Brunet

# Aurtengo bizikleta jardunaldiak pedalei eragiteko prest daude

Bizikletaren inguruan antolatzen diren hirugarren jardunaldiak izango dira

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA  
Hirugarren urtez bizikleta jardunaldiak antolatu ditu Bergarako Udalak, Lokatza Ziklismo elkartearekin elkarlanean.

Aurten, martxoaren 24tik apirilaren 9ra izango dira eta bizikletaren erabilera bultzatzea izango da helburu nagusia, Bergaran autoa alde batera laga eta herri barruko bidaia bizikletaz egiteko. *Errepideko txirrindularitza Debagoiengan* ikus-entzunezkoaren proiektzioa eta Gorrara igoera eta kirolaren nazioarteko egunaren baitan egingo diren kirol ekintzak izango dira aurtengo ekimen nagusiak.

Antolatzaileek aipatu dutenez, bizikletaren erabilera bultzatuta, herritarrak osasuntsuagok izango dira, eta, gainera, gutxiago gastatu eta kutsatuko dute. Helburu garrantzitsu hori lortu ahal

izateko, bergarar guztiei zuzendutako ekintza-egitarau oparatu antolatu dute.

#### 15 egunean

Bizikleta jardunaldiak astelehenean hasiko dituzte. 22:00etan, Goiena telebistako *Harmailatik* saioan, *Errepideko txirrindularitza Debagoiengan* dokumentala emango dute. Eta astean zehar, bizikleta-mekanika tailerra egingo dute Migel Altunan.

Domeka, aldiz, jardunaldietako egun potoloenetako bat izango da. Goizean Gorrara igoera egingo dute: oinezkoak 08:30ean Udal Pilotalekuan batuko dira; eta bizikletan igo nahi dutenek lo egiteko denbora luzeagoa izango dute. Horrez gainera, eta Gorrilan bertan, goizeko hamarretan zuhaitz landaketa egingo dute, eta, horren ostean, gazteei zuzen-

dutako historiaurreko olinpiadak egingo dituzte, goizeko hamaiketan hasita.

#### Kirolaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 6an Kirolaren Nazioarteko Eguna denez, egitarau berezia izango da. Goizeko hamarretan, Agorrosin-Labegaraieta-Elorregi martxa egingo dute. Bizikleta jardunaldiak izan arren, nahi dutenek martxa patinetan egiteko aukera izango dute. 11:30ean, Labegaraietan, besteak beste, *eliptika* eta *hand bike*-a probatzeko aukera egongo da. Bien bitartean, Agorrosin, Bkool Indoor Arrabola egongo da 09:30etik 12:30ak arte.


Egun berezi horretaz gain, apirilaren 2tik 9ra ekintza ugari egongo dira. Ez galdu osasuna eta ingurumenaren alde pedalei eragiteko aukera hori.



Jardunaldiak antolatzen lagundu duten erakundeetako ordezkariak. | TXOMIN MADINA

## Anbulatorioko mediku bat eta erizain bat, erretiratu

Julio Artzienega medikuak eta Garbiñe Etxeberria erizainak gaur hartuko dute erretiroa. Anbulatorioan herritarren osasuna zaintzen urte asko egin eta gero, euren lankide eta lagunek gaur ospatuko duten festa batekin agurtuko dituzte biak. Lankideek aipatu dute biek merezitako erretiroa hartuko dutela.





Izarraitz-Aloña Mendi taldea lesionatu zen taldekide baten omenez ateratako kamisetarekin. | ARATZ LOSADA

# Euskadiko txapelketarako igoera fasean dago Aloña

## 36 urtean hiru aldiz jokatu du eskubaloia taldeak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Izarraitz Taberna-Aloña Mendi eskubaloia taldeak Euskadiko txapelketarako igoera fasea jokatu du. Gipuzkoako txapelketan hirugarren postuan dago Oñatiko taldea, eta ziurtatuta dauka

dagoeneko igoera fasea jokatzeko postua. "Sekulakoa da aukera hau taldearendako. Oso pozik gaude eta gogotsu jokatu ditugu igoerako partiduak", adierazi du taldeko entrenatzaile Rafa Zulueta.

**Hirugarren**

Denboraldi hasiera ondo hasi zuen taldeak, eta hobeto jarraitu du. "Egia da hasieran baja batzuk izan genituela, baina gogoz, konfiantzaz eta jokoarekin gozatzeko helburuarekin hasi ginen jokatzeko

eta denboraldi ona egin dugu. Bi partidaren faltan, itzuli biak oso antzerakoak egin ditugu: lehenengoan bi partidu galdu eta bat berdindu genituen, eta bigarren, oraingoz, berdindu egin dugu", dio Rafa Zulueta.

Emaizta horiekin, hirugarren postuan dago Gipuzkoako ligan. "Azken bi denboraldiak ez dira oso onak izan. Duela bi urte zortzi partidu irabazi genituen eta joan den urtean bost bakarrik. Hala, aurtengo helburua izan da ondo pasatzea. Eskubaloia gustatzen zaigu, eta gure helburua horixe zen, gustatzen zaiguna eginez ondo pasatzea. Ez dugu inolako presiorik izan, konfiantza jarri dugu eta eta disfrutatzea izan da gure helburua. Eta emaitza oso ona izan da, bai", dio Izarraitz-Aloña Mendi taldeko entrenatzaileak.

**Sei taldeko igoera**

Sei taldeko jokatu dute Euskadiko txapelketarako igoera fasea, Gipuzkoako lauk eta Bizkaiko bik. Araban ez da aurtengo ligarik sortu eta hango talde bakarrak Gipuzkoan jokatu duenez, Arabari dagokion plaza Gipuzkoak hartu du.

Gipuzkoako lau taldeetatik hiruk lortuta dute igoera faseko pasea: Irungo Gaztiak EKE, Ordi-ziako eskubaloia taldea eta Oñatiko Izarraitz-Aloña Mendi. Lau garren taldea zein den jakingo da liga bukatzeko falta diren bi partidak jokatu ostean. "Ikargarria da taldeetako bat Aloña

Mendi izatea. Sekulakoa aukera da jokalarientzako fase hori jokatzea, ez da urtero gertatzen-eta. Aloña Mendik hiru igoera fase jokatu ditu 36 urtean, pentsa", dio, pozik, Zulueta.

Une honek, baina, euren jokoa ez baldintzatzen saiatuko dira etxeko jokalariek. "20 urte inguru dituzte taldeko jokalariek eta urduri ere badaude. Galdera asko egiten dituzte igoera faseari eta Euskadi mailako kategoriari buruz. Nik esaten diet orain arteko emaitzak jokoarekin disfrutatzea egin dugulako lortu ditugula, eta berdindu jarraitu behar dugula, ondo pasatzen, alegia. Ondo ulertu dute mezua eta horixe egingo dugu, ondo pasatu", gaineratu du.

**Domekan, Urnietaren kontra**

Igoera fasea bost partidura da, baina horren aurretik ligako azken bi norgehiagokak jokatu behar ditu Izarraitz-Aloña Mendik. Domekan Urnieta hartuko du etxean, 11:30ean, eta hilaren 30ean Zumarragan jokatu du.

ESANAK

**"Helburua zen ondo pasatzea, eta emaitzak onak izan dira"**

RAFA ZULUETA | ENTRENATZAILEA



Seinaleak Lazarragan. | O.E.

## Islatzaileak jarri dituzte, ikuspen hobe izateko

O.E. | OÑATI

Bizikletan doazen ikuspena hobea izateko jarri dituzte marra islatzaileak Lazarragan eta Torreaurotik Santxolopetegi auzora doan bidean.

"Bi gune horietan ez dagoela ikuspen nahikorik eta ea hori konpon zitekeen eskatu ziguten bizikletan ibiltzen diren hainbat herritarrek. Horrela, gune horietan dauden zirkulazio seinaleetan zinta islatzaileak jarri ditugu, iluntzen duenean lagungarri izan daitezkeen bai bizikletan doazenentzako bai oinez pasatzen diren herritarrentzako", adierazi du Oñatiko udaltzainburuak, Idoia Lazpitak.

## Gomendio familiaren dokumentuak garbitu eta deskribatuko dituzte

O.E. | OÑATI

Udal Artxiboan gordetzen den Gomendio familiako fondoak txukundu, garbitu eta deskribatu egingo dute aurtengo. "42 kutxatan sartuta dago fondo hori. Karlismen inguruko agiriak, musika inprimakiak, industriari buruzko dokumentuak eta kontu liburuak daude tartean. Gai horiekin daude izendatuta, behintzat, kaxetako batzuk, eta barruko dokumentuetan datorrena jaso gura dugu. Egoera txarrean daude asko, eta, horregatik, txukundu, garbitu, egingo ditugu lehenengo eta jasotzen dutena deskribatuko dugu gero", azaldu du Udaleko artxibozainak, Izar Salaberrik.

Industriari dagokionez, adibidez, Fanderia moduan ezagutzen den gune industrialaren planoak izan daitezkeenak daude jasota fondo horretan.

**Zubillagara**

Gomendio familia XVI. edo XVII. mendean etorri zen Oñatira. "Zubillagara etorri ziren, hango zerrategira lanera", zehaztu du Salaberrik. Familia horren dokumentuak aztertu ondoren, familiari buruzko datu gehiago ere ezagutuko dira.

Miravalees Restura enpresak egingo ditu dokumentu horien txukuntze lanak eta gero hasiko dute deskribatze lana.



Fanderiarenak izan litezkeen planoak. | OÑATIKO UDALA



Ikastaroaren azken saioa astelehenean izan zen. | T.M.

## Gurasotasunaren kontzientziaren ikastaroak harrera ona izan du

TXOMIN MADINA | OÑATI

Zein da umeen autonomiaren eta gurasoen kontrolaren arteko oreka? Nola interpretatu eta nola jokatu seme-alaben emozioen aurrean? Nola jarri behar dira arauak? Eta nola mantendu koherentzia? Gurasoen artean ohikoak izan ohi diren galderak dira, azken asteetan egin duten guraso *coaching* ikastaroaren barruan landu dituztenak. Herriko gurasoen artean harrera oso ona izan du ikastaro horrek.

Virginia Espin psikologo eta *coach*-ak gidatu du ikastaroa, eta gurasotasunaren kontzientzia izan da sei saiotan zehar

landu dutena, espazio egokiak sortu eta umeen garapenean laguntzeko. Horretarako, lengoaiaren eta entzutearen garrantzia, gurasoek berez ondo egiten dituztenak eta gurasoen eta umeen gaitasunak ezagutzea izan dira, besteak beste, ikastaroan jorratu dituztenak.

Bidebarrietako lokalean egin dute ikastaroa eta bi taldetan banatuta, 50 guraso inguruk hartu dute parte. Virginia Espinek dio pozik dagoela izan duen harrerarekin eta parte hartzaileek erakutsitako motibazioarekin. Teoria ere landu duten arren, saio parte-hartzaileak izan dira.

## Eskuz egindako 53 panpina daude kultura etxean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

*Panpin begirada* izeneko erakusketa dago zabalik kultura etxeko erakusketa gelan, eta han, eskuz egindako 53 panpina daude. "Uraren edo freskagarrien botilak eta edukiontziak erabili ditut gorputz moduan. Pasta ere erabili dut, eta tindatutako edo opariak biltzeko paperekin egin dizkiet jantziak", dio egileak. "Eskulanak beti gustatu zaizkit eta banuen izeba bat panpina bat zuena etxeko aulki bakoitzean. Gainera, jostuna zen, tela mordoa zituen etxean, eta horrek izan du eragina nigan", gaineratu du.

Berangon bizi da bera, baina amandrea Oñatikoa zen eta bere anaia, koinata, ahizpa eta ilobak ere Oñatin bizi dira. Erakusketa, gainera, bere amaren, Edurne Artzua-garen, eta amandarearen, Juana Erleren, omenez egin du.



Erakusketako panpina bat. | O.E.



Josean Larrañagak aurkeztu eta Juanar Olaetak zuzendu zuen Santa Anako mahai ingurua. | M.A.

## Hiru ikuspuntu Santa Anan bake prozesuaz eta adiskidetzearaz

Arrasate-Bergarako Artzapez Barrutiak antolatuta, Juan Maria Uriarte, Markel Olano eta Floren Aoitza aritu ziren eguazteneko mahai inguruan

MIREN ARREGI | OÑATI

Euskal Herriko egoera sozio-politikoaren gainean eta bereziki adiskidetzearaz jardun zuten eguaztenean Juan Maria Uriartek, Donostiako gotzain emerituak; Floren Aoitzek, Iratzar Fundazioko kideak; eta Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldu nagusi ohiak. Herritar asko batu zen Santa Anan, garizumaren bueltan Arrasate-Bergarako Artzapez Barrutiak antolatu duen hitzaldi zikloaren lehenengo saioan. Udal ordezkariak ere izan ziren.

Hiru ikuspuntu

Juan Maria Uriarteren *La Reconciliación* liburua dago hitzaldi horren oinarrian eta hura izan zen saioari hasiera eman ziona. Kristau ikuspegitik egin zuen bere ponentzia Donostiako gotzain emerituak. Hiru zeregin aipatu zituen: "Adiskidetzearen mezu osoa gureganatu eta adierazi behar dugu," alde guztietako biktimak sendatzen lagundu behar dugu eta bizi izandako tragedia inoiz errepikatu behar ez den zorigaitza da". Markel Olanok esperien-

tzia pertsonaetik berba egin zuen, eta hauxe adierazi: "Iraganera begiratu eta zer gertatu den jakin behar dugu. Biktimek egia, justizia eta erreparazioa merezi dute". Floren Aoitzek hitz egitearen garrantzia aipatu zuen, eta hortik abiatuta, baina, Euskal Herrian "gauza batzuk konpontzeko" ditugun "zailtasunak" ekarri zituen gogora.

Bigarren mahai ingurua martitzenean izango da Arrasaten. Paul Riosek, Jesus Lozak eta Iñaki Hernandok jardungo dute.

## Greziako jainkosak kultura etxera datoz gaur iluntzean

*Arquetipos de mujer* antzez-lana egingo dute Elkar Heziko DBHko 4. mailako Kultura Klasikoko ikasleek gaur kultura etxean (19:00). Juana Lor aktorea izango dute ondoan.

Greziar mitologia eguneratu gura duen Juana Lor-en *Arquetipos de mujer* izeneko antzezlan horrek mitologiako zazpi jainkosaren arketipoak aztertzeko aukera emango du. Horrela, umorea eta mitologia uztartuz, XXI. mendeko emakume bakoitzaren baitan dagoen jainkosa deskubritu ahal izango du ikusleak. Juana Lor bera eta Elkar Heziko DBHko 4. mailako ikasleak izango dira aktoreak.

## 80 bat txirrindularik hartuko dute parte biharko lasterketan

Herriko gaztetxoek osatutako tropelak herriko kaleak zeharkatuko ditu bihar, zapatua, arratsaldean.

Izan ere, Aloña Mendi txirrindularitza eskolako alebinek eta infantilek denboraldiko lehen lasterketa egingo dute. Hala ere, haiek bakarrik egin ordez, 9 eta 10 urte dituzten herriko gaztetxo guztiak gonbidatu gura dituzte lasterketan parte hartzera. Eteo eta Cegasa arteko ibilbidea izango da egin beharrekoa, eta edozein motatako bizikleta gainean egin ahal izango dute. 80 bat txirrindulari espero ditu Aloña Mendik. Lasterketa 16:15ean hasiko da, Eteotik.



ANDRAITZ

## Ekologia eta feminismoa aztergai

Ekologia eta feminismoa aztergai hartuta, hitzaldia egin zuten eguaztenean kultura etxeko areto nagusian. *Bizitza ardatz jarri* izan zen hitzaldiaren leloa, eta ekologia eta feminismoa lantzen dituen Madrilgo kazetari bat eta Uztaro kooperatibako kide bat egon ziren, batetik. Bestetik, Brasilgo Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra kide bat. Martxoaren Baren harira antolatutako hitzaldia zen.



MIREN ARREGI

## Aho zabalik entzun dituzte Txikonen abenturak

Txinari buruzko lana ari dira egiten Urgaineko Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleak, eta Alex Txikonen bisita izan zuten eguazten arratsaldean. Txinaren, Himalaiaren, mendiaren eta bere abenturen gainean jardun zuen lemoarrak. Ikasleek arretaz entzun zituzten bizkaitarraren abenturak eta galdera asko sortu zitzaizkien. Sinadurak ere eskatu zituzten, eta baita eskari bat egin ere: hurrengo gailurrera Urgaineko zapia eramateko eta behin gora igota, erakusteko. Arratsalde osoa pasa zuen Txikonek ikasleekin; haien gela eta mapamundia erabili zituzten bere abenturei buruz berba egiteko.

# Elkarheitzien eta Udala ildo berean lanean

Hitzarmena sinatu dute astean elkarren arteko harremana arautzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaleako Udalak eta Elkarheitzien elkarteak hitzarmena sinatu dute elkarlanean jarduteko asmoarekin. Hitzarmen horrekin elkarren arteko harremana arautu dute.

Udalak erraztasunak eskainiko dizkio Elkarheitzien instalakuntzak eta espazio publikoak erabiltzeko orduan. Gainera, garapenerako hezkuntzaren baloreak ezagutarazteko helburuare-

kin bat egin du Udalak. Eta jarraipen batzordea ere osatu dute hitzarmenean jasotako zerbitzuak eta konpromisoak aurrera eramaten direla ziurtatzeko.

Debagoieneko gobernuz kanpoko bost erakundek osatzen dute Elkarheitzien taldea: Harreman, AMS Mundu Solidarioa, Serso, Anelkar eta Aretxabaleako Hiruatz elkarteak. Hain zuzen Elkarheitzieneko ordezkari Maitane Igartua eta Hiruatzeko Ibon

Antero elkartu dira Ana Bolinaga alkatearekin astean. Munduko errealitatearen gaineko kontzientzia kritikoa sustatu eta portaera solidarioak sorraraztea du helburu Elkarheitzien elkarteak, eta alkatea, Udalak ahal duen neurrian, laguntzeko gertu agertu da.

**Brasilgo emakumeak berbagai** Hezkuntzan hasi zuen ibilbidea Elkarheitzienek orain dela 10

urte, kulturartekotasuna lantzen hain zuzen ere, eta orain kontsumoa, berdintasuna eta beste hainbat gai jorratzen dituzte Debagoieneko hainbat ikastetxetako ikasleekin.

Orain, baina, hezkuntzatik harantzago salto egin eta beste esparru batzuk lantzen hasi dira. Hala, kontsumo taldeen sorrera bultzatu du; Fiare banku etikoa-ren promozioan laguntzen dabil; eta Trukeados denboraren bankua sortu berri du. Gainera, Mundukiderek eta Lankirekin elkarlanean dabil Jalgi Hadi Ortura jardunaldiak antolatzen. Hain zuzen jardunaldi horren bueltan antolatuta hitzaldia eskainiko du Brasilgo MST (Lurrik gabeko landa langileen mugimendua) elkarteko kide Debora Nunesek astelehenean (19:00) Arkupen; Brasilgo emakume nekazarien gainean jardungo du horrek.

## Umeendako masaje ikastaroa egingo dute Kurtzebarri eskolan

Azken urteotan legez, Kurtzebarri eskolako kideek haur masaje ikastaroa antolatu dute ume txikiak dituzten familiei bideratuta. "Zure txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia", diote antolatzaileek eta lau saio egingo dituzte aditu batek gidatuta: martxoaren 31n, apirilaren 2an, 7an eta 9an. Guztiak 17:30ean hasita. Antolatzaileek gomendatu dute arropa eroso eta jantzita joatea eta eskuoial bat eroatea.

Argibide gehiago gura dutenek edo izena eman dei dezatela honako telefono zenbakira: 943 79 00 49.

Itsaso Pagoaga eta Larraitz Garai | Aisialdi taldeko kidea eta ludotekako hezitzailea

## "Umeak, proposamenak egiteko, asanblada eran elkartzen ditugu"

Ludotekako zerbitzuari buelta bat eman diote eta gurasoei aurkeztuko diete

M.A. | ARETXABALETA

3 eta 12 urte arteko neska-mutikoen topalekua da ludoteka eta Loramendi elkarteak du haren ardura. Zerbitzuaren gainean hausnartu berri dute eta bueltatxo bat eman. Horren berri emango diete gurasoei datorren eguaztenean.

**Zergatik pentsatu duzue buelta bat emateko zerbitzuari?**

**Itsaso Pagoaga:** Loramendiren bueltan elkartutako gazte batzuk aisialdiaren gainean hasi gara lanean eta ikusi dugu azken urteotan, Aretxabaletan, aisialdi zerbitzuak asko ugartu direla baina kohesio falta dagoela. Umeendako asko eskaintzen da baina helduen ikuspegitik. Bestalde, ludotekako zerbitzua espazio itxi honetara mugatu da batez ere, eta leku bat baino gehiago jolasteko aukerak sortu behar direla uste dugu.

**Hortaz, neska-mutikoei eman gura diezue berba?**

**Larraitz Garai:** Umeak asanblada eran elkartzen ditugu eta hor botatzen dute zer gura duten egin. Batzuk lotsatu egiten dira eta horriandako panel bat daukagu proposamenak idazteko. Gero gai horren inguruan lotzen dugu hilabeteko programazioa.

**I.P.:** Eurek egindako proposamenak ludotekak dituen helburuekin uztartzen ditugu; eskulanak egitea gura dutela, goazen birziklatutako materialarekin egitera, edo kantu txapelketa gura dutela goazen euskaraz egitera...

**Euskara eta euskal kultura bultzatzea helburu duzue, ezta?**

**I.P.:** Euskara helburu izanda nola landu izan den hausnartu dugu; orain arte ohikoa izan da euskaraz egiteko derrigortasuna eta pentsatu dugu hortik irtetea eta jarraera indartzea geu eredu izanda. Eta herriko eta Euskal Herriko kultur



Itsaso Pagoaga eta Larraitz Garai ludotekan. | M.A.

## "Ludoteka leku itxi bat baino gehiago jolasteko aukerak sortzeko gunea da"

ondarea transmititu gura dugu: Txapel Txin ekarrita...

**Aisialdi esparrutik hezkuntza esparrura salto egin gura duzue orain?**

**I.P.:** Hizkuntza erdigunea izan arren, beste balio batzuk landu izan dira orain arte ere; horiek indartu beharra dutela konturatu gara orain. Baina ez gauza espezifikoak sortuta sormena lantzeko, errespetua lantzeko...

**L.G.:** Ez da izango "orain errespetua landuko dugu", baizik egunerokotasunean, gura barik, landu; adibidez, materialaren erabileraren gainean hausnartu...

**Ordutegian ere aldaketa proposatu duzue, ezta?**

**I.P.:** Horrekin gura dena da, bate-tik, adin tarte bakoitzak beretako denbora izatea, eta bestetik, adin

tarte ezberdinetako umeak nahastea. Horregatik, ordutegia bitan banatu dugu: lehenengo zatian talde batek du aukera etortzeko eta bigarrenean, gura duten guztiek, denak nahastuta.

**L.G.:** Hil bukaeran hasiko gara. **Eta familiekin elkarlana bultzatu gura duzue...**

**L.G.:** Gurasoekin beti dago harremana baina gero kosta egiten da beste inplikazio bat lortzea.

**I.P.:** Eta gure asmoa da eurek ere parte-hartzea. Zergatik ez apirilean, literatur astean, ipuin kontaketa rally bat egin eta gurasoak, aita-jau-amandreak... etorri; edo ogia egiten erakutsi gura duela batek eta etorri... Halakoek ateak zabalik dituzte eta animatu.

**Asmo zehatzak ere badituzue...**

**I.P.:** Bai. Hilabetean behin ate irekiak egitea, adibidez.

**Zeintzuk osatzen duzue aisialdi taldea?**

**I.P.:** Zortzi neska gogotsu elkartu ginen ekainean eta proiektua gertatzeko lan mordo egin. Hainbat ideia ditugu gainera, formazio saio batzuk gazteekin...



Hainbat herritar Gure Esku Dago ekimenaren berri jasotzen. | JON MONUX

## Gure Esku Dago lantaldea sortzeko lehen bilera egin dute astean

JON MONUX | ARETXABALETA

Martitzenean elkartu ziren Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiteko gertu dauden hainbat aretxabaletar Arkupen. Bergarako eta Oñatiko Gure Esku Dago taldeetako kideak izan zituzten lagun, eta euren esperientzien berri eman eta dinamika dauzkan helburuak zeintzuk diren zehaztu zizkieten. Bestalde, ekainaren 8an Duran-

gotik Iruñera egingo den erabakitzeo eskubidearen aldeko giza katean parte hartzerantz gonbidatu zituzten.

Bileran elkartutako herritarrek datuak elkarbanatu zituzten gero, lanean jarraitzeko helburuarekin. Aretxabaletan taldea sortuz gero, dinamika horretan parte hartzen duen Debagoieneko seigarren herria izango da.



KURTZEBARRI ESKOLA

## Artista txikien lan handiak

Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek dantzak, antzerkiak, bertso-antzerkiak, txotxongiloak... egin dituzte azken asteotan eta eskolako irakasle, ikasle, guraso eta aitona-amonek ekitaldiok gozatu dute. Ikasleak pozik gelditu dira egindako lanarekin eta familiakoak ezin harroago eteko artistak ikustean.

Ana Bolinaga | Alkatea

# "2013ko aurrekontuaren itxierak 400.000 euroko soberakina eman du"

Argi utzi du kiroldegiak aurrera egin dezan lanean dabilzala eta atez ateko hondakin bilketa sistema ekainean martxan izango dela

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Kontu kontari jardun zuen Ana Bolinaga alkateak martitzenean Goiena telebistan. *Harira* saioan elkarrizketatu zuen Eneko Azkarate kazetariak.

**Ekainean hiru urte beteko dituzu alkate jardunean; balorazioa?**

Iruditxo bat erabiltzeagatik, txanponaren bi aurpegi ezagutu ditugula esango nuke. Batetik, gure egoera ekonomikoa, zulo ekonomikoa, 14.500.000 euroko kostua izan duen makroproiektu bati lotutakoa, kiroldegi berriari, hain zuzen. Eta defizit ekonomiko baten barruan kokatuta udal bat kudeatzea ez da batere samurra. Baina burua atera dugu hortik, eta, gainera, ikus-entzuleekin konpartituko dut berri pozgarria: 2013ko aurrekontuaren itxierak 400.000 euroko soberakin positiboa eman du. Hortaz, beste lasaitasun batekin kudeatuko dugu 2014a.

**Berri pozgarria; izan ere, herririk zorpetuenetakoa da Aretxabaleta, ezta?**

Bai, erkidegoko laugarren herri zorpetuena gara. Aldundira joan nintzen batean galdetu zidaten ea erreskatea eskatu behar nuen, eta nik ezetz esan nien, eskatu behar bazen eskatuko nuela, bai-

na ez zela momentua.

**Eta zer moduz herritarrekin, zelako harremana duzu?**

Txanponaren bi aldeak horregatik aipatu ditut, beste aurpegi bat duelako txanponak, eta da herritarren eta elkarten inplikazioa. Eta horretan Aretxabaletako herria ezin hobeto. Horrek konpentsatu izan du askotan txanponaren aurpegi iluna. Eskerrak eman gura dizkiet inplikaturik dauden herritarrei eta elkarteei, eurak barik askoz zailagoa izango litzatekeelako gure egoera ekonomikoari aurre egitea.

**Eta Udalean zelako giroa duzue?**

Gauza bat da Udaletik kanpo oposizioak ematen duen irudia, adierazpen publikoetan, eta beste kontu bat da gure harremanak udaletxe barruan. Oposizioaren jarrera ikuspuntu etiko batetik nahiko makala da. Bilduri behin eta berriro esaten diote ez duela plangintzarik, baina euren plangintzari esker zulo ekonomiko batera sartu ginen, eta gure plangintzari esker –seguru asko, gauza asko hobetzeko izango ditugu eta hankasartzeak ere bidean izan ditugu– soberakin positiboa dugu. Askotan oso erraza da akusatzea, baina nik jakin gurako nuke zer

den plangintza falta hori. Eta 14.500.000 euroko zulo horren erantzukizuna estali guran zenbait gezurtxo esaten dabilzala. Estilo politika horrek etika falta duela iruditzen zait, hanka sartzeak egoten dira baina egokiena erantzukizunez jokatzeko izaten da, herritarrei azalpenak eman, eta nik oraindik ez dut entzun 14.500.000 euro horietara zelan iritsi garen kiroldegiarekin.

**Hiri hondakin kontua gori-gori dago Aretxabaletan ere; ekainerako martxan atez atekoa?**

Bai, martxan egongo da. Aurrerapauso bat emango dugu, hori delako egun gaika gehien jasotzen duen hiri hondakin bilketa sistema, eta, ondorioz, gehiago birziklatuko dugu. 2008an jarri zen martxan bosgarren edukiontzia Aretxabaletan; garai hartan ere aurrerapauso bat eman zen gaika jasotze aldera, birziklatze aldera, baina parekatuz atez ateko hiri hondakin bilketa sistemarekin azken honek datuak hobetu egiten ditu hasiera-hasieratik. Horregatik aurrerapauso moduan ikusten dugu; hemendik urtebetera gure bailaran, kooperatiba dagoen bailara honetan, beste hondakin bilketa sistema bat, hobea, gar-

biagoa, asmatu edo martxan jarriko balitz hori ekarriko genuke eta aplikatu.

**Aurrekontuan aurreikusita duzue, ezta? Izan ere, bilketa sistema garestitu egingo da.**

Beti inbertsio berri baten aurrean gaudenean garestia da, baina ingurune jasangarri eta osasungarri baten alde uste dut inbertitu egin behar dela, eta inbertitze hori dirutan bada, dirutan da. Eta gainera, gero horrek, buelta dakar. Europak oso garbi markatzen du hiri hondakin hierarkia bat non lehenengo puntua prebentzioa da, ahalik eta gutxien kontsumitzea; bigarrena, bererabiltzea; eta hirugarrena, birziklatzea. Hortaz, Gipuzkoa ere horra begira jarri da eta zero zabor filosofia horren alde urratsak ematen dabil. Guztiok dakigu orain arte EAJK eta PSEK defendatzen zuten hiri hondakin sistema horrek 360 gradutako aldaketa izan duela: egungo zabor-tegiak itxi eta Zubietako erraustegiaren proiektua bertan behera utzi. Aldundiak planteatzen du zaborrari atez ateko birziklatzeari zabaldu: konpostaje planta; tratamendu mekaniko-biologikoa eramango duen beste planta bat;



Ana Bolinaga alkatea Goiena telebistako platoon

eta inerte biltegi bat. Europak pauso bat ematen badu zero zabor filosofia horretan, Gipuzkoak ere bai, eta herriak eta mankomunitateak beste aurrerapauso bat, beste hiri hondakin sistema bat aukeratuta, gaika gehien jasotzen duena. Eta laugarren pausoa, baina ez garrantzi txikiagoa duena, da norberak etxetik egin behar duen lana; hondakin arduraren geurea delako eta denok gaika bildu beharra daukagu gero ahalik eta gehien birziklatzeko.

## OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Inaxio Garro | Aralarko bozeramailea

### "Elkarlanerako ez dago borondaterik"

"Balorazioa bi ikuspegitatik egingo nuke. Edukiari dagokionez, agintaldi antzua da, ez dagoelako inolako programarik eta inolako planifikaziorik. Hiru helburu ziren agintaldirako: hirigintzako plan orokorra bultzatzea, eta ukitu barik dago; Urkuluko planari buelta bat ematea, eta ez dago planik; eta kiroldegiaren gestioari bultzada bat ematea, eta badakigu zein harreman dagoen Udalaren eta enpresaren artean. Eta formari dagokionez elkarlanerako eta adostasunerako ez dago borondaterik, ezta komunikaziorik eta informaziorik ere".

#### ► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Hiru helburu horiek Aralarrenak izango ziren, Bildurenak ez zirelako; asmatu egin du guztia. Urkuluko plana Aralarren plan kuttuna zen, beste makroproiektu bat, eta gu beti horren aurka agertu gara. Plan orokorraren aurrerapenarekin hasi ginen eta egia da bultzada bat behar duela. Eta kiroldegiaren gestioa ez da izan gure helburua, azpikontratatu egin zelako enpresa bat. Inkomunikazioarena gezurra da, erabaki gehienak batzordeetan hartzen direlako".

**Urtarrilean onartutako aurrekontuan bazeuden partida batzuk enplegua bultzatzeko. Zer egin gura da partida horiek? Enplegu planik egongo da? Eta baldin badago aurkeztuko zaigu?**

"Udalak badu enplegu plana; webgunean zintzilikatuta dago eta berak badu kopia bat. Agintaldirako plana aurkeztu genien eta oraindik euren ekarpenen zain nago. Lau ildo markatzen dira bertan diru laguntzekin lotutakoak (Udalak jarritakoak, baita Aldundiak eta Jaurlaritzak ere): enpresak sortzeko laguntzak; langabeak kontratatuzko; formaziorako; eta udaletxera begira enplegua sustatzeko. Betiere, marjina murrizta dugula onartuta."

Mikel Uribetxebarria | EAJKo bozeramailea

### "Ez dago kudeaketa plangintzarik"

"Bildu gehiengo absolutuarekin dabil kontuak aurrera ateratzen eta hori nahiko pobrea da. Gainera, ez dator bat kanpora saldu gura den parte-hartze irudiarekin. Kudeaketari dagokionez, faltan sumatzen dugu plangintza, inbertsioak onartzean ez da egon irizpide zehatzik. Hiru gai aipatuko ditut. Atez atekoa: herritarren iritzia entzuteko beldur da; kiroldegia: inplikazio falta erakutsi du Udalak; eta garapen ekonomikoa: Mankomunitateak lideratuta egon arren, Udalaren aldetik ez da informatzen. Balorazio orokorra oso negatiboa da".

#### ► ALKATEAREN ERANTZUNA

"A ze aurpegia, hiru urtean zulo ekonomikotik irten eta soberakin positiboa izan arren ez du hori aipatu, ez. Mankomunitatean garapen ekonomikoaren gainean izandako bileren aktak bidaltzen dizkiet eta Ogasun batzordean landu gero gai horiek; hortaz, gezurra da informazio falta dagoenik. Eta kiroldegia defizitarioa da gestionatzen duen hiruko enpresak aurreikusitako abonatu kopurura, 3.000, ez delako iritsi, ezta iritsiko ere".



elkarrizketa hasi aurretik. | ENEKO AZKARATE

### Hori horrela izanik zergatik dago aurka hainbat herritar? Zabor poltsak Aretxabaletan ere badaude zintzilik...

Herritarrek poltsak zintzilikatzea iruditzen zait ederto, iritzia emateko modu bat da. Ez dudana ulertzen da hainbeste errezelo hiri hondakin sistema horri, beste kontu bat da hori konpartitzen den edo ez, baina hain ezkorrak izatea atez atekoaren aurrean ez dut ulertzen. Orain arte ere gai-ka jaso baldin baduzu bai kon-

tzientziazio aldetik eta bai jarra-rra aldetik enkaje perfektua duzu atez atekoaren baitan. Izan ere, suposatzen da ingurumen jasangarri eta osasungarri baten alde zaudela orain eta gero, eta beste hiri hondakin sistema batek gai-ka gehiago jasotzen badu orduan ere bai. Baina batek erabaki de-za-ke ez jasotzea gaika, kutsatzea, hau da, zaborra egitea; eta atez atekoarekin atek itxi egiten zaiz-ki-ko jarrera horri. Zubietako erraustegiarekin hasi ginen EAJ

eta PSE hor zebiltzan buru-bela-rri, herritarrekin kontsultatu barik martxan jarri behar zuten erraustegi horrekin. Eta behin erraustegia bertan behera geratu denean, orain gaude hauteskunde aurreko kanpainan; maiatzean Gipuzkoa jokoan dago, politika egiteko beste modu bat jokoan dago, boterea dutenei ez zaie gus-tatzen negozio bat -erraustegia negozioa zen- eskuartetik kentzea eta EAJ buru-belarri dago Gipuz-koarekin. Hortaz, horren atzean, ez noa esatera %100ean, baina badaude hauteskunde batzuk.

### Bildu zigortua izan daiteke hauteskundeetan horregatik?

Izan daiteke, baina politika egi-teko beste modu bat dagoela defendatzen dugunon artean behin-tzat ez litzateke izan behar zigo-rrerako arrazoia. Zero zabor filosofian denok ateratzen gare-lako irabazten.

### Ibarra kiroldegia zelan dabil?

Kiroldegia defizitariora da gestio-natzen duen hiruko enpresak aurreikusitako abonatu kopurura ez delako iritsi, 3.000 abonatu espero zuten eta dauzkagu 2.100. Enpresak onartzen du, gainera, 3.000ra ez garela iritsiko eta geuk ere geure auditoria egin dugu eta gauza bera dio. Ez zen asmatu abonatuarekin eta ezin da izan bide-ragarria. Horren aurrean bi auke-rra daude: bata, matrikula eta prezioak igotzea, eta orduan matri-kulatze kopurua jaitxi egingo litzateke; eta bestea, Udal aurre-kontuan modu sistematikoan onartzea batetik mailegua eta bestetik zulo ekonomikoa. Horre-gatik gure aurrekontuan, jakin barik soberakina izango genuela, 200.000 euroko partida zabaldu genuen. Iaz ere 90.000 euroko par-tida izan genuen, besteak beste, eraikuntzaren obra akatsak kon-pontzeko. Gestionatzen duen hiru-ko enpresarekin elkarlana ez da inondik inora txarra, elkarlana arazoak bideratzeko da, baina guk era diskretuan egiten dugu.

### Kiroldegia ixtea edo zerbitzuak murriztea pentsatu izan duzue?

Guk planifikatu dugu kiroldegia txanponaren aurpegi hori garbi izanda, 14.500.000 euro, baina garbi izanda kiroldegia ez zela

## "Poltsak zintzilik jartzea ondo dago, baina ez dut ulertzen jarrera ezkor hori"

## "Aurreikusitako abonatu kopurura ez delako iritsi da defizitariora Ibarra"

## "Sormen etxea egingo nuke kuarter zaharrean, baina ez dago ezer erabakita"

itxiko. Hori erraza izango litzate-ke, itxi eta onartu dezatela egoera aurretik egondakoek, bai-na hori ez da gure politika egi-teko modua; eta defizitariora den egoera horri aurre egiteko plani-fikatu dugu beti aurrekontua. Hortaz, ez da itxiko.

### Erabiltzaileak gustura daude zerbitzuarekin?

Bai, bai; kontua ez da kalitatea. Kritika behar bada dator kirol-degiaren kostuagatik: prezioak, matrikula... Baina erabiltzaileak oso pozik daude.

### Zeintzuk dira aurrekontuko inbertsiorik garrantzitsuenak?

Aurrekontuaren itxiera definitiboa aurreko astean izan zen eta sobe-rakinik izango genuela jakin aurretik sartu genituen urbani-zatze lan batzuk: Murubide ingu-rua eta Gernika plaza. 200.000 eurotik gorako kostua izango dute biek batera, baina horretarako 90.000 euro diputazioko diru-la-guntza lerro batetik etorriko da. **Eta 400.000 euroko soberakin hori zertan erabili pentsatu duzue?**

Nik ideia batzuk baditut, baina oso pertsonala da hori: sormen etxea egitea egungo kuarter zaharrean. Gazteak ahaztuta ditugula uste dut eta aniztasunarekin lotu-tako proiektu bat aurrera erama-

nez egingo nituzke intsonoriza-tutako lokalak, erabilera anitze-ko gelak... Aniztasuna jasoko lukeen aterpetxe bat nolabait esateko. Gainera, alboan uniber-tsitatea dugu eta elkarlanean jardun ahal izango litzateke.

### Egi bihurtuko den ametsa da?

Ja, ja, ja... Nik jende askorekin egin dut berba horren gainean, baina ezin dut esan, oposizioare-kin ez dudalako hitz egin, eta ez dago ezer erabakita.

### Populazioari dagokionez hasiz doan herria da, dagoeneko 7.000 biztan-le ditu, ezta?

7.028, dagoeneko herri ertaina gara. Kanpotik etorri den jendea-gatik igo da, batez ere Arrasate-tik etorri direnengatik.

### Langabezia ere hor dago.

Bai, %10,3 dugu; portzentaje horren azpian bermatzen ez den eskubi-de bat dago, lan egitea eskubide bat delako, etxea izatea eskubide bat delako...

### Eta Udalak zer egin dezake eskubi-de hori bermatzeko?

Gainerako eragile sozialekin bate-rra kalera irten eta borrokatu. Udalak ez dauka eskumenik eral-daketa sozial, politiko edo eko-nomikoaren gaineko erabakirik hartzeko. Herritarrekin batera salatu, indarrak batu eta propo-samenak bideratuko ditu.

### Zein da enpresen egoera?

Krisi garaian okerrera egiten du guztiak, baina mantendu egin dira. Enpresa txiki eta ertainek dituzte arazoak aurrera egiteko.

### Eta merkatariek zer diote?

Ozta-ozta dabilzala; krisi garaiak harrapatu ditu eta, gainera, Gas-teiz ere hantxe dugu... Komertzio batzuk itxi egin dira eta gainera-koak bizirik irauten. Gure elkar-lana oso ona da, Aretxartek duen lehendakaria oso inplikatur dago merkataritza suspertzeko eta haren lana eskertu gura dut.

### Moneta soziala jartzeko asmorik baduzue?

Bai, Ogasun batzordean landu gura dugu kontu hori.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

### Txarapea inguruak aurtan txukunduko dira? Ibai ertza ere bai?

"Bai. 400.000 euroko abala exekutatu dugu dagoeneko eta enpresa bati esleitu diogu proiektua. Enpresa horrek martxoaren 24a baino lehen aurkeztu beharra du proiektua, eta gero 12 hilabete izango ditu obra bukatzeko. Egingo diren lanen artean daude: Txarapeako 1 eta 2 blokeen arteko bidea zabaldu; etxeen osteko lur jausiei eusteko lanak bideratu; argindarra lur azpitik sartu; pasealekua konpondu; eta pasealeku alboko maldan zuhaitzak landatu".

### Geltoki plazako espaloia egoera eskasean dago; konpontzeko asmorik?

"Herritar horrek arrazoia du eta geu ere jabetuta gaude Geltoki plazako espaloien egoerarekin. Kontua da Azben hasten den espalo hori konpondu eta Kurtzebarri eskolako bidegorria lekuz aldatzeak 500.000 euroko inbertsioa eskatzen duela eta orain arte ez dugu izan diru hori. Orain 400.000 euro ditugu, baina lehentasunak markatu beharko ditugu, eta horretarako oposizioekin eta herritarrekin jarri beharko dugu zelan gastatu erabakitzeko".

### Galartza auzo inguruan Deskargako lurrak botako dituzte?

"Bai, hala da, baina ez dute kamioien etengabeko joan-etorririk jasan beharko Lausitta inguruko bizilagunek. Diputazioak erabaki du autobidearen zati bat hartzea joan-etorri horiek egiteko; bakarrik Aste Santutako hiru egunetan pasatuko dira Lausittatik, egun horietan autobidea libre utzi behar delako.

Trukean Kurtzebarri eskola inguruan babes panelak jartzeko orduan lehentasuna izango dugu".

### Kiroldegiak bi tarifa izan ditzake? Alde hezea eta alde lehorra bereiztuta.

"Geuk ere proposamen hori jasota daukagu bidalitako bideragarritasun planean. Eta hurrengo hamabost egunetan erabakiko dugu zelan jarraitu kudeatzen horrekin, eta zein erabaki hartu behar diren ahalik eta modu eraginkorrenean funtziona dezan Ibarra kiroldegia. Izan ere, gure asmoa ez da kiroldegia ixtea eta herritar horrek proposatutakoa geuk ere jasota daukagu; orain, datuak eta zenbakiak aztertzea da kontua".

### Ez diogu zentzurik topatzen herriari begira parte-hartze prozesuak gauzatu gura izatea baina Udalean erabaki guztiak Bilduk hartzea. Zelan ikusten duzu kontraesan hori?

"EAJkoak zenbait batzordetara ez dira joaten: Kultura, Berdintasuna, Gazteria eta Ongizatea. Hortaz... Hain erraza da erantzukizunak estaltzea eta akusazioak egitea... Oposizioak duen etika falta izugarria da, politika egiteko modu hori... Batzordeetan egiten da lan, hor hartzen dira erabaki gehienak; gero Gobernu Batzordera eramaten dira gaiak eta normalean, onartu. Niri iruditzen zait aipatutako batzorde horiek oso garrantzitsuak direla".



Eguaztenean hasi zuten banaketa erdialdeko bizilagunen artean. | MIRIAN BITERI



Zintzilarioak Santa Anan. | M.B.

## Beñat Herce alkatea izango da martitzenean Goiena telebistan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako alkate Beñat Herce izango da Goiena telebistan datorren martitzenean, hilaren 25ean, 22:00etan. Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatu du *Harira* saioan, eta herrian gori-gori dauden gaien berri emango du Hercek, hala nola atez ateko sistemaren ezarpena, herriko merkataritza sustatzeko ahalegina, *Oinezkoak lehenengo* mugikortasun proiektua, eta baita aurtengo inbertsio nagusiak ere.

Alkateaz gain, oposizioko ordezkariak ere ahotsa izango dute saioan: Ezker Anitza-IU alderdiko Juan Luis Merinok, EAJko Aitor Urrutiak eta PSE-EEko Jose Luis Canterok parte hartuko dute, hurrenez hurren. Bildu-Elizateak gobernu jardueraren balorazioa egin ahal izango dute.

### Parte hartzeko

Eta, horrez gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko



Beñat Herce, alkatea. | GOIENA

aukera: posta elektronikoa erabilia ([harira@goiena.com](mailto:harira@goiena.com)), Twitter bidez (#harira), Whatsapp eta Telegram aplikazioak erabilia (idatzizko zein ahozko mezuak) edota erantzungailuan ahozko mezuaz utzita. Azken hiru aukeratarako, telefono zenbaki bakarra erabiliko dute: 688 69 00 17. Saioa, esan bezala, martitzenean izango da, 22:00etan.

## Aldaypekoak Zanbranara doaz apirilaren 6an, eta izen-ematea zabalik dago

M.B. | ESKORIATZA

Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak txakurrarekin ehiza xehe txapelketa antolatu du apirilaren 6rako, domeka, eta dagoeneko zabalik dago horretarako izen-ematea. Interesatuak apirilaren 2a baino lehen pasa behar dute elkartearen bulegotik astelehenetan, eguaztentean

eta egubakoitzetan, 17:30etik 19:00etara. Txapelketa parte hartzeagatik 18 euro ordaindu behar dira, eta bazkaltzen gertzen direnendako prezioa 25 euro da. Hainbat baldintza bete behar dira; besteak beste, Aldaypeko bazkide izatea, elkartetik federatuta egotea eta baimen guztiak izatea.

### OHARRAK

#### IKUS-ENTZUNEZKOA

Gaur, egubakoitza, *Alardearen seme-alabak* ikus-entzunezkoa egongo da ikusgai Ibarraundin, 22:30ean. Emakumeek Irungo eta Hondarribiko alardeetan duten parte-hartzearen gaia jorratzen da hor. Debalde da.

#### GAZTELEKUA

Gaztelekuan askotariko ekin-tzak dituzte asteburuan: gaur

karteragintza tailerra; bihar, Gazte Txef lehiaketa; eta etzi, zinema.

#### JOSEBA TAPIA

Astelehenean, martxoak 24, *Belarriak soinu* izeneko saio praktikoa eskainiko du Joseba Tapia musikariak. Huhezin izango da emanaldia, 11:00etan. Sarrera irekia eta debalde izango da.

# Apirilaren 3an hasi gura dute atez atekoa

Materiala banatzen dabilta egunotan Ibarraundin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Dena aurreikusi bezala baldin badoa, apirilaren 3an jarriko dute martxan Eskoriatzan atez atekoa; hori horrela izan dadin, sistema berria jarri ahal izateko beharrezkoa den azpiegiturak jartzen dabilta egunotan, eta herritarren

artean materiala banatzen. Modu antolatuan dabilta eskoriatzarrak Ibarraunditik pasatzen. Orain arte Gaztañadui, Hidalga, Jose Arana eta San Juan kaleetan, Santa Ana eta Olazar auzoetan eta Eduardo Gorosarri plazan bizi direnak joan dira; eta gaur,

egubakoitza, eta astelehenean, hilak 24, Dorleta eta Elorreta auzoetako, Aranburuzabala kaleko, Antontxu bideko, Olaeta plazako, Aingeru Guarda pasealekuko eta Arbiñostekoen txanda izango da. Honako ordutegian jaso ahal izango dituzte ontziak eta dokumentazioa, Ibarraundin bertan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

### Hilaren 25etik aurrera

Jarraian, martxoaren 25etik 27ra bitartean, biak barne, komertzio eta industriak eta elizateetakoak joan beharko dira materialaren bila; eta apirilaren 1ean, 2an eta 3an, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetakoak eta Gaztañadui kaleko 27 eta 29. atarietakoak. Proba pilotuan edukiontzi marroi-rako erabilitako giltza eroan behar dute horiek, eta organikorako bigarren ontzia jasoko dute.

## Erdialdea mugatzeko lanak hasi dituzte auzoetan



Arbiñoste eta Santa Ana arteko zubian lanean. | M.B.

M.B. | ESKORIATZA

Herrigunea oinezkoendako ero-soagoa egiteko asmo horretan, *Oinezkoak lehenengo* proiektuaren barruan, hain zuzen, erdigunea ibilgailuendako mugatzea dago. Baina, mugatu aurretik, horko zirkulazioa desbideratuko den inguruak egokitu behar dira, eta horretan dihardute langileek.

Egunotan lanean topatu ditugu Santa Ana eta Arbiñoste lotzen dituen zubian. Azken hori indartu eta ondoan egurrezko pasabide bat jarriko dute, oinezkoak handik pasa daitezten. Olazarren ere egurrezko beste zubi bat jarriko dute, Telefonica ondoan. Horrez gain, alde bateko zein besteko inguruneke errepide zatiak asfaltatu beharko dira. Hori guztia egiteko bi hilabete eta erdi beharko dituzte langileek.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



### KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

# Larrañaga: "Esperientzia oso dibertigarria izan da"

Madriren jaso du Andoni Larrañagak umorezko kanpaina onenaren saria

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Andoni Larrañaga antzuolarrak Smile Festival-eko Zuzeneko Marketin atalean saria jaso berri du. Izaera europarra duen jaialdi horrek publizitate estrategia moduan umorea erabili duten Europako kanpainak saritzen ditu. Epaimahaiak saritutako lana *Elvis lokal bila* izeneko kanpaina izan da, Tolosako Udalak eta Tolosako Merkataritza Elkartek abian jarri zuten Tolosa Merkat proiektuaren baitan egindakoa.

"Orain dela bi urte aurkeztu ginen *Verano azul* izeneko kanpainarekin lehenengoz eta aurtin berriro animatu gara. Taldeko lau pertsona joan gara Madrilerara saria jasotzera; oso dibertigarria izan da, eta esperientzia positiboa". Oraingoan saritutako lana, baina, *Elvis lokal bila* izan da. "Tolosako Udalak lokal hutsak betetzeko kanpaina bat egitea eskatu zigun. Guk azoketan eta makina-erremintaren arloan jarduten dugu nagusiki gure lan esparruan; eta gogor samarra da. Horregatik, horrelako aukera ezberdin bat suertatzen zaigunean animatu egiten gara eta zerbait dibertigarria egiten saiatzen gara", gaineratu digu Larrañagak. Hala, animatu eta kanpaina "xelebre samarra" aurkeztu zutela azaldu digu: "Antolatzaileek ez zuten espero horrelako lan bat eta harrituta geratu ziren lehen momentuan; baina primeran pasatu genuen eta oso gustura geratu ginen egindako lanarekin".



Andoni Larrañaga, erdian, saria eskuan duela eta lankideak inguruan. | ADAKI

## Umorea oinarri

Umorea izan da, zalantzarik gabe, kanpaina horren gakoetako bat. Ez da erraza umorea erabiltzea, baina bai eraginkorra: "Umorea ez da esparrurik errazena, baina oso ondo funtzionatzen du sektore batzuetan. Jende artean, herrietan esaterako, oso ondo funtzionatzen du, betiere markarekin erlazionatzen bada", nabarmendu digu.

## 'Elvis lokal bila'

Herri osoan barrena kartelak jarri zituzten Elvis lokal bila zebilela iragartzeko. "Lokalak betetzeko hedabideetan irten behar genuela garbi geneukan. Horretarako, kartel batzuk herri osoan eta baita ondoko herrietan ere jarri genituen. Marketin zuzena egin genuen. Gainera, hainbat hedabidetako hamabi kazetari

kaxa bat bidali genien. Bertan, *flashmob*-era etortzeko gonbidapena egiten genien. Elvisen betur-rekoak ere bidali genizkien, misterioa eta interesa pizteko".

Horrela, hamabost Elvis azaldu ziren Tolosako azokara. "Gure lana eginda geratu zen modu horretan: oihartzuna izan zuen eta kanpaina hedabide guztietera zabaldu zen zuzenean".

## Auzoko dinamizatzaile posturako lan eskaintza

M.A. | ANTZUOLA

Euskaltzaleen Topaguneak lagun bat kontratatu gura du Auzoko egitasmoa Antzuolan betetzeko. Hain zuzen, euskaratik urrun bizi diren herritarak euskarara hurreratzea eta euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza izatea ditu helburu; betiere, norberaren eta besteen hizkuntza aintzat hartuta.

Lanposturako hauxe eskatzen da: bi hizkuntza ofizialak ondo erabiltzen jakitea; taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea; hizkuntzekiko sentsibilitatea edukitzea; harremanetarako gaitasuna; aniztasunarekiko interesa; Antzuolako izatea eta ordu-tegi malgua izatea.

Topaguneak egindako kontratua asteazken bost ordukoa da. Apiril erdialdean hasi eta abendu bukaeran amaituko da. Topagunearekin lankidetzan Antzuolako Auzoko proiektua dinamizatzea da asmoa.

Curriculumak helbide honetan jasoko dira: [auzoko@topagunea.org](mailto:auzoko@topagunea.org). Aurkezteko azken eguna: 2014ko martxoaren 26a.

## Hilaren 29an ospatuko da Independentzia Eguna

M.A. | ANTZUOLA

Pixkanaka berriro indarra hartzen doan festa bilakatu da Independentzia Eguna.

Orain dela bost bat urte, berriro errekeratu zuten festa antzuolarrek: "Independentzia Eguna aspaldidanik datorren ohitura bat da, baina gaztetxe zaharra itxi zenean galdu egin zen; izan ere, urte askoan ospatu gabe geratu zen festa. Edozelan ere, orain dela lauzpabost urte berreskuratu dugu", azaldu dute antolatzaileek.


Festaren gainean oso balorazio positiboa egin dute eta jendea animatu gura dute baserriar jantzita parte har dezan: "Antzuolarrendako oso egun ona izaten da. Gainera, herritarren artean erantzun ona izaten du".

Egun osoan izango da jai giro berezia. Lehiaketak, jolasak, elektrotxararekin poteoa... Gauean, berriz, musika izango da protagonista Antzuolako eta Aiherrako bi talderen eskutik.

Bazkarira joan nahi dutenek txartelak gaztetxean erosteko aukera dute.

## NIRE USTEZ

OIER PEÑAGARIKANO



## Esku (bideak)

Aldarri dira eskuak. Haur garenean gure amaren magalari eusten diogunean.

Kolore gorriko espraieiz horrek iraultzean.

Aldarri dira, maitalearen gorputza xamurtasunez ferekatzean.

Poliziaren aurrean ukabil altxatua estutzean. Lanean olio zikintzean; ezinezko hormetan gora eskalatzeko; sukaldeko labanaz barazkiak txikitzean; lagunak besarkatzean; aitzurrarekin landak jorratzean.

Gure eskuak bizitzaren aldarri dira, gaztetasunaren xamur-

tasunean; lanak utzitako orbanetan; denboraren ximurretan; amonaren besarkadetan; haurren atzamar ikusezinetan.

Gure eskuak izan dugun bizitzaren erakusleho dira.

Bidean izan ditugun ametsen galeretan eta garaipenen orbanetan.

Gure eskuekin lantzen ditugu gure bizitzaren fronteak, eskuekin asetzen ditugu lagunaren beharrak eta lantzen ditugu elikatzen gaituzten arbasoen lurretako baratzeak.

Eskuekin egiten dugu aurrera, esperoan ditugun ametsen etorbidean.

Nire eskuek ere herri honen ametsen aldeko bidea egingo dute ekainaren 8an.

Durango eta Iruñea artean osatuko dugu giza katea ekainaren 8an.

Harro egongo naiz ilobak besarkatzean, herri honen alde, nire eskuek ere aldarri egin zute-laroritzean.



GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoak 26 eta 27an;

Kulturaren, Arrasaten.



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)

[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

### "Profesionalki, lan mundura itzultzeko prestatuago nago"

**E**raikuntzarekin lotuta dauden ikasketak egiten dihardu Iban Elortondo aretxabaletarrak. Langabezian geratu ondoren berriro ikastea erabaki zuen eta goi mailako heziketa zikloa aukeratu zuen horretarako. Orain, praktikak eta proiektua partekatzen dabil.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa eta zerk bultzatu zintuen mota horretako ikasketak egitera?**

Langabezian geratu nintzen eta lanpostu bat aurkitzea baino errazagoa iruditu zitzaidan ikasten hasia berriro. Egin nuen lehen gauza Aretxabaletako Institutura joatea izan zen. Bertan informazioa eskatu, eta hemen jarraitzen dut. Gainera, familiak asko animatu nau hasieratik eta azterketa garaian, batez ere, asko laguntzen didate. Asko eskertzen da, gainera.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Ikasten hasteara erronka bat izan zen. Denbora luzea neraman ikasi gabe, eta beldur nintzen. Emaizta onak atera ditut eta oso pozik nago. Gainera, jende jatorra ezagutzeko ere balio izan dit. Profesionalki, lan mundura itzultzeko prestatuago nago. Prestakuntza izatea ezinbestekoa da gaur egun, eta ikasketak bukatutakoan prestatuago egongo naiz, ziur.

**Gomendatuko al zenuke Lanbide Heziketa?**

Bai. Ikaste garaia ez da luzea, epe laburrean bukatzen da, eta, gero enpresa-



rekin harremana zuzena denez, praktikak bertan egitea onargarria da. Benetako enpresa bat ezagutzeko aukera dago.

**Ikasteko garaian, zer egiten zaizu errazena eta zer zailena?**

Zailena hasia izan zen. Denbora luze ikasi gabe egon ondoren, zalantzak nituen ikasketak aurrera eramateko gai izango nintzen edo ez. Denborak aurrera egin ahala nire buruarekiko konfiantzak gora egin zuen eta gustua hartu nion ikasteari. Eta gaur egun ere gustura jarraitzen dut nire prestakuntza zabaltzen.



Sari banaketa maiatzaren 9an egingo da; irudian, Txan magoa etorri zeneko ekitaldia. | TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

# Azken txanpa Txirritolaren ipuin lehiaketan egoteko

Lanak martxoaren 17a baino lehen entregatu beharko dira Udal Liburutegian

## Ligako azken partiduetan ahalik eta puntu gehien batzea izango da Aramaixo taldearen helburua

Aramaixo taldeak Gasteizko Galtzagorri taldearen aurka jokatu du bihar Aldaben (17:45). Zazpigarren postuan daude aramaioarrak (20 puntu) eta bosgarren doaz, berriz, gasteizarrak (29). Hiru partidu bakarrik geratzen zaizkie aramaioarrei eta ahalik eta puntu gehien batzea izango da taldearen helburua. Bestalde, Edorta Bolinagak erronka pertsonala izango du liga amaitu bitartean: ligako golegile nagusia da 25 golekin –bigarrenak, Real Beni taldeko Jose Alberto Alvaradok, 20 gol sartu ditu.



Aramaixo taldearen aurtengo entrenamenduetako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

## Gure Esku Dago dinamikaren herriko taldearen aurkezpena gaur Bizente Goikoetxea plazan (19:00)

Gure Esku Dago dinamikaren Aramaioko lantaldea aurkeztuko dute gaur Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan –eguraldi txarra bada, Sastiñan–. Duela hilabete egin zuten lehen bilera eta ordutik hona eguenero elkartzen dira kultura etxean. Orain arte aurkezpena antolatzen eta jendea erakartzen aritu dira: "Oso erantzun ona jaso dugu herritarrengandik". Ekainaren 8ko giza katerako jendea batzen eta ekintzak prestatzen hasiko dira laster.

## Laburbira film laburren zirkuituak hilaren 28an egingo du geldialdia kultura etxean, 22:30ean

Zazpi film labur eskainiko dira 11. urtez egingo den Topagunearen Laburbira film laburren zirkuituan. Ekimen horren bidez, euskal sortzaileek egiten duten ikus-entzunezkoen ekoizpena Euskal Herrian bertan erakutsi gura dute; herriz herri, aretoz areto. Bada, Aramaioko saioa hilaren 28an egingo da kultura etxean (22:30). Kepa Errasti *Euskaldun berriaren esketxa* filmeko aktore eta zuzendari aretxabaletarrak egingo du aurkezpena.

## JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien artean ipuin lehiaketa da parte hartzaile gehien dituenetako bat. Aurtengo lehiaketa otsailaren 10ean ireki zuten eta martxoaren 17a izango da parte hartzeak azken eguna. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu ekimenak, batez ere gaztetxoenen artean.

Hala ere, azken urteetan helduengana ere ailegatzeko asmoz aritu dira lanean. Lehiaketan Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte eta ipuinek euskaraz eta orain arte argitaratu gabeak izan beharko dute. Gaia libre izango da eta aurkezten den hautagai bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du. Aurkezten diren lanean artean honakoa da epaimahaiak baloratu duena: euskaraz zuzen idaztea –batuan zein euskalkian– eta originaltasuna.

## Arrakasta ikasleen artean

Jakinekora da Txirritolak urtero antolatzen duen lehiaketa horrek arrakasta handia duela San Martin eskolako ikasleen artean. Hala, antolatzaileek ipuinen luzera

zehaztu dute ikasleendako: Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek luzera libre izango dute eta bigarren eta hirugarren zikloetako ipuinek, berriz, bi orriko luzera izan beharko dute, gutxienez. 12 urtetik gorako gainerako partaideen ipuinek hiru orri izan beharko dituzte, gutxienez.

Ikasleendako sariak liburuekin trukatzeko izango dira. Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek taldean aurkeztu behar dute eta irabazleak 50 euroko bonua jasoko du –gainerako mailetan banaka hartu behar da parte–. LHko bigarren eta hirugarren zikloetan, 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleen artean irabazleendako 40 euroko bonua eta bigarrenendako 20 euroko bonua izango da saria. 12 urtetik gorako artean lehen saria 70 euroko bonua izango da; bigarrenendako, 50 eurokoa izango da.

## Sari banaketa maiatzaren 9an

Sari banaketa maiatzaren 9an egingo dute kultura etxean (18:00), baina antolatzaileek jakinarazi dute aurrerago emango dutela ekitaldi horren berri. Era berean, ipuin irabazleekin liburu bat argitaratu du Txirritolak.



AIZPEA AJURIAGERRA

## 84 lagunek eman dute izena patinaje ikastaroan

Laugarren urtez jarraian guraso elkarteak patinaje ikastaroa antolatu du, 3 urtetik hasita Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentara arte. Guraso talde bat ere parte hartzen ari da: "Aurten inoiz baino arrakastatsuagoa ari da izaten, 84 lagunek eman dugu-eta izena", diote. Agustin Oiarbide eta zenbait ikasle ohi dira irakasleak; aurtun, Bergarako Hanka Labanka taldeko kide batzuk ere badaude. Apirilaren 6an Gasteizko izotz pista joango dira.

## Mendira eta sagardotegira Orixoli esker

Orixol mendizale elkarteak antolatuta, 20 lagun elkartu ziren hilaren 15ean Urdaburu mendira eta Egi Luze sagardotegira egindako irteeran. Mendian zein sagardotegian ederto ibili ziren: "Dena ondo irten zen", adierazi dute. Bazkalostean Hernanira joan ziren trago batzuk hartzera, eta 21:30erako bueltatu ziren.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

## ELGETA

# Egun osoko egitaraua Intxortako borrokaldiak gogora ekartzeko

120 parte-hartzaile inguru espero dituzte; oraindik ere eman daiteke izena

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Intxorta 1937 kultura elkarteak eta Elgetako Udalak xehetasun gehiago eman dituzte apirilaren 27rako, domeka, *Intxortako atea*-ren aurrean antolatu duten erre-  
kreazioaren inguruan.

1937ko borrokaldiak izandako zelaia erabilgarri izango dute aurten, eta boluntario gehiagorekin egingo dute ikuskizuna. "Beste 20 lagun beharko genituzke 120ra iristeko. Boluntarioek udaletxean edo *danonartian@elgeta.net* helbidean eman dezakete izena", esan du Oxel Erosarbe alkateak.

## Berrikuntzak

Hain zuzen ere, egun osoko egitaraua proposatu dute, Elgetan. Gudari eta milizianoek hamarretakoa egingo dute herrian, eta 11:00etako kanpai hotsekin batera igoko dira lubakietara.



Intxorta 1937 kultura elkarteko kideak eta udal ordezkariak aurkezpenean. | L.Z.

Arma, piroteknia eta soinu efektu gehiago egongo da errekreazioan. Bestetik, egunean zehar egongo dira memoria historikoko taldeen material salmenta, trikitalariak, txistulariak, umeentzako gunea... *Intxortako irrintzia*

izeneko lau orriko argitalpen berezia ere kaleratuko dute. Ekitaldiak 14.600 euroko aurrekontua du. Errifak salgai daude euro baten truke; Bolatokian egingo den bazkarirako txartelak ere bai, 12 eurotan.



## Martxan da euskal dantzen ikastaroa aurten ere

Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak eguaztenean abiarazi zuten euskal dantzen ikastaroa. 4 eta 8 urte arteko neska-mutikoen saioa izan zen jendetsuena. Bigarren taldean, berriz, nabari izan zen 5. eta 6. mailetako neska-mutikoak ingeleseko barnetegian daudela astebetetz. Lehenengo hartu-eman egiteko balio izan zuen saioak. Aurrerantzean, astero elkartuko dira jaietako umeen dantza saioa prestatzeko.

## LEINTZ GATZAGA

# Herrian pentsatutakoa, herriarendako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Kaleko hondakinak gaika batzako udalerrian jarritako zakarrontzien funtzionamendua egokia dela ikusi dute erabiltzaileek.

Urte hasieran jarri zituzten, 12 jarri ere. Ibarreko beste udalerririk batzuetan egindako gauza bera egin da, horrenbestez. Edozelan ere, Leintz Gatzagako zakarrontziok bereziak dira, bi ezaugarriengatik: itxura erabat desberdina dutelako ibarreko gainerako zakarrontziekin konparatuta eta Gatzagan bertan diseinatutakoak direlako.

Bi ezaugarriak bata bestearrekin lotuta daudela esplikatu du Asier Ugartek, zakarrontziak diseinatu dituen Sormen enpresako langileak: "Inguruneari



Zakarrontzia, museo kanpoan. | A.U.

egokitutakoak dira, Gatzagarenzako pertsonalizatutakoak (armarria dute). Herrian integratzea izan da asmoa. Hain zuzen ere, diseinu moldagarria dute, eta, horrez gainera, ontzi bakoitza banan-banan husteko aukera dago. Eta erabilitako materiala berezia da: herdoiltzen den burdina eta gaztainondoaren egurra (inguruan dagoena). Herdoiltzen den burdinari dagokionez, Inigo Arregi eskulturagile arrasatearrarekin kontsultatu genuen. Eta material hori erabiltzea erabaki genuen, behin ugertuta, herdoiltzeak berak babes lanak egin eta ez diolako herdoiltze prozesuari barrurago iristen uzten. Diseinuari dagokionez, berriz, musu-truk egin genuen".

## Bertso-afaria antolatu dute biharko gaztetxearen 18. urteurrena ospatzeko

L.Z. | ELGETA

Bihar beteko ditu 18 urte Elgetako gaztetxeak. Aurten, zapatua izanik, urteurrenako egunean bertan egingo dute ospakizuna. Triki-poteoa (20:00etan) eta bertso-afaria (22:30ean) antolatu dituzte. Menua da sarrerakoak, entsalada, oilasko izterrak txingarretan, postrea eta kafea. Gero, Unai Gaztelumendi eta Julio Soto ariko dira bertsoan. Pre-

zioa 15 euro da eta Haizea tabernan eman daiteke izena.

## Auzolanerako deia

Aurreko urteetan moduan, txukuntze lanak egiteko auzolanerako dei egin dute gaztetxetik. Hala, goizean eta arratsaldean, garbiketa, margotze eta konponketa lanak egiteko hitzordua egin dute; 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

## Elgetako bolari taldeko Segundo Pagaegik irabazi du Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia

Azpeitiko Garmendipe bolatokian eman zioten hasiera 2014ko Gipuzkoako hiru txirlo txapelketari. Elgetatik bosna kideko bi talde osatu dituzte txapelketarako, eta ondo baino hobeto ibili ziren lehen jardunaldian. 80 bolari elkartu ziren eta Segundo Pagaegi beterano markinarrak jo zituen txirlo gehien: zazpi. Beste bi kidek bosna jo zituzten. Bergarako erretiratuen egoitzako bolatokian dute hurrengo saioa bihar, zapatua, 17:00etan.

## Haurrentzako puzgarria eta tango erakustaldia antolatu ditu Patxi tabernak domekarako

Kudeatzaile berriek otsailaren 28an zabaldu zuten Patxi taberna. Mozorrotuta hartu zituzten lehen bezeroak; izan ere, Aratustek ospatu ziren egun hartan herrian. Orain, irekiera ekitaldi bereziagoa egin gura dute, eta umeendako puzgarria eta tango erakustaldia antolatu dituzte domeka arratsalderako. 17:00etatik 19:00etara ipiniko dute puzgarria Salbador kalean, eta ondoren egingo dute tango erakustaldia. Eguraldi txarra bada, ez da puzgarririk egingo eta dantza saioa taberna barruan egingo dute.

## OHARRAK

### IPUINAK LIBURUTEGIAN

Gaur, barikua, 17:20an, 8 eta 12 urte arteko umeendako saioa.

aldera. Hitzordua da 08:00etan herriko plazan.

### 1973KO KINTOAK

Afaria egingo dute apirilaren 5ean hotelean. Izen-emateak kioskoan hilaren 31ra arte.

**GURASOENDAKO HITZALDIA**  
Astelehenean, 18:30ean, herri eskolan. Gaia: sare sozialak. Zaintza egongo da ludotekan.

### MENDI IRTEERA

Kantsatzekek antolatuta, domekan mendi irteera Goizueta

**FUTBITO FINALA**  
Jaitxo eta Astuan Villa taldeek domekan jokatu dute finala, 18:00etan..



LEINTZ GATZAGA

UBANE MADERA

## Arrasatearrak Gatzaga ezagutzen

Neska-mutiko ugarien barreek eta jolasek udalerrian ezohiko giroa sortu zuten martitzen goiz-eguerdian. Izan ere, Arrasate Herri Eskolako Erguin guneko laugarren mailako D eta E ikasgelak Gatzaga bera eta gatz museoa ezagutzeko bisita egin zuten.



X Gamesetako bigarren kanporaketa hartuko du Lainok. | JOSETXO ARANTZABAL

**SKATE-A**

# Skate X Games txapelketa bailarara iritsi da, Lainora

Lazkaon lehenengo saioa egin ostean Bergaran egingo dute bigarrena, bihar

XABIER URZELAI | BERGARA

Goierri Roller Skate taldeak antolatuta Gipuzkoa mailan antolatuta duten skate txapelketa Debagoienara iritsiko da bihar, zapatua.

Skate X Games izenarekin bataiatu dute torneoak, eta Lazkaon egin zuten lehenengo saioa urtarrilaren 22an. Bihar, ostera, Bergarak hartuko du erreleboa, eta pro-

bintzia mailako finalerako bigarren kanporaketa egingo dute, Laino skate parkean.

Skate X Games torneoak guztira lau saio izango ditu: Lazkaon,

Bergara, Oiartzun eta Donostia. Diogun moduan bihar egingo dute Bergarako, apirilaren 12an izango da Oiartzungoa, eta maiatzaren 17an Donostiakoa.

**11:30ean hasiko dira skatean**

Biharko txapelketa 11:30ean hasiko dute (izena emateko deitu 611 289 425 telefono zenbakira, edo idatzi [rolskt12@gmail.com](mailto:rolskt12@gmail.com) helbidera. Bost euro ordaindu behar dira) eta hiru kategoriatan izango dira, 12 urtera artekoak, 15 urtera artekoak eta 18 urtera artekoak. Hala, izenematea ordaintzeaz batera antolatzaileek jatekoak eta edatekoak emango dizkiete parte-hartzaileei –sari banaketa 19:00etan izango da, eta skater guztiendako izango da sariren bat–.

Kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek finalerako txartela (Donostian jokatu dena) lortuko dute, baina txapelketa ez da Gipuzkoa mailan geratuko, Arabako eta Bizkaiko onenekin batera lehiatzea delako asmoa –zehazteke dago data hori.

**Lur Vazquez Lazkaon aurrean**

Hala, otsailaren 22an Lazkaon egin zuten X Gamesetako lehenengo saioan Lur Vazquez aretxabaletarra nabarmendu zen 15 urtera artekoen kategorian, bigarren sailkatu zen-eta. Aurreikusketakoa da, baina, biharko txapelketa Bergaran izanda Debagoieneko skaterrek protagonismo askoz handiagoa izatea.

**ZIKLOTURISMOA**

## 'Aspanogi 6+3' martxako izen-ematea zabalik dago

X.U. | ARRASATE

Aste Santuko Pazko astea opariadator, domeka horretan (apirilak 27, 09:00etan) egingo dute-eta Lokatzak eta Aspanogik azken horren izena daraman martxa zikloturista.

Izenak berak dioen moduan, martxak Gipuzkoako hiru bailara zeharkatuko ditu, eta ziklistek guztira sei mendate gainditu beharko dituzte (batzuk mendatze motzak badira ere, nekea hanketan pilatuz doa). Hala, 105 kilometro izango dituen ibilbidean txirrindulariek Udana (515 metro),

Aztiria (591 metro), Barbaris (313 metro), Lierni (250 metro), Mandubia (515 metro) eta Elosua igo beharko diuzte –azken hori da gogorra.

**'Kirolprobak.com'-en**

Aipatu moduan, izena eman daiteke jada Internetez. Aurrez egin ez gero federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu ez direnek 25 euro [Egunean bertan 15 eta 25 euro]

Lokatzak boluntarioak behar ditu martxa antolatzen laguntzeko (653 737 477).

**ATLETISMOA**

## Malen Ruiz de Azua eta Sara Gomez protagonista

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan Debagoieneko bi atleta horiek protagonista izan ziren, nor bere modalitatean.

Malen Ruiz de Azua arrasatearrak munduko junior mailako txapelketara joateko gutxieneko marka gainditu zuen zapatuan Zaragozan, Espainiako Federazioak eskatzen duen lau metroko marka egin ostean –pertika saltoan–. Haren entrenatzaile Jonathan Perezek onartu moduan, Arrasateko gaztea sasoi onean dago, eta asteburuan

Anoetan jokatu duten Espainiako Txapelketan 4.01eko marka gainditzeko ahaleginduko da. Ruiz de Azuarekin batera Istar Dapena ere lehiatuko da pertikaz.

**Sara Gomez, txapeldunorde**

Domekan, berriz, autonomien arteko Espainiako kros txapelketa jokatu zuten Meridan, eta bertan izan ziren bailarako hainbat ordezkari. Gomezek Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen, eta junior mailan taldeko bigarren sailkatu zen.

**MOTORRA**

## Luis Rey Espainiako txapeldun Cross Countryan

X.U. | ARRASATE

Luis Rey Nuñez Arrasateko motor gidariak pasa berri den asteburuan jantzi du Espainiako onenaren txapela Cartayan (Huelva), Cross-Country Senior B 4T kategorian. Z Racing Team barruan aritu da lanean, Sherco 300 SEF-R 2014 motorrarenkin; aurten estreinatuta ditu biak, bai taldea eta baita motorra ere, eta bistakoa da emaitza ezin hobea izan dela.

Luis Rey Nuñezek lau lasterketatan egindako lan onari esker jantzi du irabazlearen txapela, Antzin (Nafarroa), Malpartida (Caceres), Guadalajara (Madrid) eta pasa den asteburuan Huelva aldean lehiatu ostean nagusitu da bere kategorian.

**Iaz ere, emaitza ederrekin**

Arrasateko txikitatik dabil motor gainean, eta aurten hasi da lanean Z Racing Team taldearekin. Horra iristeko bide luzea egin du, baina oraingoa ez da jantzen duen lehenengo txapela. Hala, 2013an lau txapelketan hartu zuen parte: Euskadiko Enduro Txapelketan [lehenengoa izan zen], Cross-Countryan [bigarrena izan zen], Agilar del Campon izandako 4M Kopan [irabazi egin zuen], eta Espainiako Cross-Country Txapelketan [laugarren sailkatu zen]. Aurten, berriz, beste aurrerapauso bat egin du, eta Espainiako titulua irabazi.

**2014a lasterketaz bete**

Espainiako txapelketa irabazita, baina, Arrasatekoak ez du atsenden hartzeko asmorik. Aurten denboraldira begira begiz jota ditu beste zortzi lasterketa: Espainia eta Euskadiko Enduro txapelketetan lehiatuko da, Euskadiko Cross-Country-an, 4M Enduro Kopan, Errioxako erresistentziako Enduro Txapelketan, Nafarroako Enduro Indoor eta Cross-Countryan, eta Goredola Extreme izeneko proban.

**BOLO TXAPELKETA**

### Debagoienean jokatu dituzte Gipuzkoako Txapelketako hiru saio

Gipuzkoako Hiru Txirilo Txapelketako 45. edizioa hiru saio Debagoienean jokatu dituzte, eta Bergaran izango da lehenengoa, bihar, zapatua (San Joxepe elkartean, 17:00etan). Arrasateko Miezterrekan jokatu dute datorren asteburuan (martxoak 29), eta maiatzaren 17an egingo dute Elgetan. Txapelketa bakoitzean 80-90 lagunek hartzen dute esku.

**MENDI LASTERKETAK**

### Iban Letamendi, hirugarren, Espainiako kopako lehen proban

Duela hamabost egun Cangas de Onisko lasterketa irabazi ostean erakutsi zuen Iban Letamendik sasoi onean hasi duela denboraldia, eta asteburuan berretsi du hori Bartzelonan, Espainiako Kopako lehen proba puntuagarrirako podiumera igota. Proban zegoen maila ona kontuan hartuta, oso emaitza ona izan zen.

**TXIRRINDULARITZA**

### Labegarrietako 51. Saria jokatu dute bihar gazte mailakoek

Gazte mailako txirrindulariek hitzordua izango dute bihar Bergaran, Labegarrietako 51. Saria egongo da-eta jokoan. 16:00etan hasiko dute lasterketa, eta ziklistek 82 kilometrotako lasterketa izango dute aurretik. Labegarrietan izango da helmuga, eta, aurreikuspenen arabera, 18:00etan iritsiko da azkarrena.

**PILOTA**

### Euskal pilota egokituko Gipuzkoako Txapelketa hasiko dute Bergaran

Bihar, zapatua, jokatu dute pilota egokituko Gipuzkoako Txapelketako lehen saioa Bergaran. Pilotariak paletaz lehiatuko dira, eta guztira hiru saio egin ostean ekainaren 28an jokatu dituzte finalak. Hala, Bergaran hasiko dute txapelketa, eta Tolosa eta Azpeitia izango dira hurrengo geltokiak.



Luis Nuñez. | Z RACING TEAM



Antzuola, Vasconiaren kontrako lehiak. | IMANOL SORIANO

## MENDIKO LASTERKETAK

## Iban Letamendik podiumean hasi du Espainiako Kopa

X.U. | ARRASATE

Duela hamabost egun Cangas de Oniseko lasterketa irabazi ostean erakutsi zuen Iban Letamendik sasoi onean hasi duela denboraldia, eta asteburuan berretsi du hori Bartzelonan, Espainiako Kopako lehen proba puntuagarrian podiumera igota.

Proban [42 kilometro, 3.000 metroko desnibela] zegoen maila kontuan hartuta, oso emaitza ona izan zen Oñatiko lasterkariak lortutakoa, Espainia mailako puntako atletak batu zituen-eta hitzorduak. Luis Alberto Hernando izan zen azkarrena, eta Miguel Caballero bigarrena.



Iban Letamendi. | GOIENA

## FUTBOLA

## Antzuola, Aretxabaletaren bolada ikusgarria etetera, domekan Estalan

X.U. | ARRASATE

Lehenengo itzulian lortu zuen Antzuolak Aretxabaleta mendean hartzea (1-3). Gainera, Juanina Garairen mutilek Ibarra moduko zelai gogorretan lortu zuten gutxik aurreikusten zuten hori. Antzuolak zelai horretan kendu zuen gainetik, neurri handian, etxean irabazteko gauza bakarrik zen taldearen itxura, eta askoren errespetua irabazi zuten han. Etiket kanpora lortutako lehen garaipena izan zen.

Eta, Ibarren egindako hura ostera ere errepikatu nahi dute, oraingoan indartsu sentitzen diren zelaian, Estalan (Domeka, 16:30). Gainera, Irunen hiru gol

jaso ostean, antzularrek arantza ateratzeko agertoki aproposena dute, derbia.

Aurrean izango duten kontrarioa, baina, ez da lehenengo itzuliko Aretxabaleta. Valleren mutilak eraldatu egin direlako, eta dagoeneko 10 partidu irabazi dituztelako jarraian -12 aste partidurik galdu barik.

## Bergarak ere etxean

Sailkapenean parean dagoen Hondarribiaren bisita izango du Bergarak bihar (16:30). Eta Aloña Mendik zeharka fabore galanta egin diezaioke Aretxabaletari, kontrario zuzen Anaitasunaren zelaian jokatu dute-eta.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

**EMAKU. BIGARREN MAILA**  
Abanto-Mondra  
Domeka. 11:30. Bilbo.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**  
Gemika-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Urbietta.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Antzuola-Aretxabaleta  
Domeka. 16:30. Estala.  
Anaitasuna-Aloña Mendi  
Zapatua. 17:30. Txerloia.  
Bergara-Hondarribia  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Tolosa-Mondra  
Zapatua. 16:30. Berazubi.

**LEHEN ERREG. IGOERA**  
Urola-Aretxabaleta UDA B  
Domeka. 16:00. Zumarraga.

**LEHEN ERREG. KOPA**  
Arizmendi-Soraluze  
Zapatua. 15:30. Ibarra.  
Zarautz-Bergara  
Zapatua. 15:30. Asti-Txiki.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Mondra-Aurrera  
Domeka. 16:00. Mojategi.  
Ordizia-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Altamira.  
Beasain-Bergara  
Domeka. 18:00. Igartza.

**GAZTEAK, IGOERA**  
Bergara-Tolosa  
Zapatua. 17:30. Ipintza.

## ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Lagun Onak-Eskoriatza  
Zapatua. 20:00. Galdakao.

**LEHENENGO MAILA**  
Aretxabaleta-Allerru  
Gaur. 19:45. Ibarra.

**HIRUGARREN MAILA**  
Donibane-Mondrate  
Zapatua. 17:30. Musakola.

## ESKUBALOA

**LEHEN NAZIONALA**  
Trapagaran-Ford Mugarri  
Zapatua. 18:45. Trapaga.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKO SENIORRA**  
Soraluce BKE-Ucin Aluminio  
Zapatua. 18:00. Labegaraia.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**  
Egia-Aloña Mendi  
Gaur. 20:00. Donostia.

**GIPIZKOAKO TXAPELKETA**  
Izarraitz Aloña-Urnieta  
Domeka. 11:30. Zubikoa.

**SENIORRAK, FEDERAZIO T.**  
Bergara-Arrasate  
Zapatua. Zehazteke. Labegaraie.

**GAZTEAK, FEDERAZIO T.**  
Aloña Mendi-Arrasate  
Zapatua. 17:30. Zubikoa.  
Bergara-Carmelitas  
Zapatua. 16:15. Labegaraia.

## SASKIBALOA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
MU-Fundacion 5+11  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**MAILA AUTONOMIKOA**  
Natra Oñati  
Atsedena.

**SENIOR BIGARREN MAILA**  
Aloña Mendi-Zarautz  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Tecnum-MUA**  
Zapatua. 20:00. Donostia.  
**Viento Sur-Soraluce Bergara**  
Zapatua. 16:00. Elgoibar.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**  
Eskoriatza-Alde Zaharra  
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

**GAZTEAK ERRENDIMENDUA**  
Easo Haitza-MUA  
Zapatua. 18:00. Donostia.

## PILOTA

**OÑATI**  
Gaur. 20:00etan hasita:  
Aloña Mendi-Soraluze

## ERRUGBIA

**SENIORRAK**  
Kanpanzar Arrasate-Getxo B  
Domeka. 12:00. Errioxa.

## SKATEA

**X SKATE GAMES**  
Zapatua. 11:30etan hasita,  
Bergarako Lainon.

## BOLOAK

**HIRU TXIRLO TXAPELKETA**  
Bergaran, zapatuan, 17:00.

## PILOTA

**EUSKAL PILOTA EGOKITUKO TXAPELKETA**  
Zapatuan, Bergaran, 10:30etan.

## TXIRRINDULARITZA

**LABEGARAIETA SARIA**  
Zapatua. 16:00. Bergara.

## ARKU-TIROKETA

**OÑATI**  
Domekan, 09:00. Arantzazun.

Debagoieneko  
PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

## BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

## BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

## RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /  
NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

## AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1  
Tel.: 943 76 03 50

## ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

## ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

## TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

## ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTOAK

## BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

## JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

## URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

# KULTURA

## Mantxola eta Pagoaga, 'Lasa eta Zabala' filmeko taldean

- ▶ Mantxolak kamera atzean egin du lan eta Pagoagak, berriz, aurrean
- ▶ Filmatzea bukatuta, Zinemaldian estreinatu gura dute Maloren lana

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Urtarrilaren 27an filmatzen hasi eta egubakoitzean bukatu zuten Pablo Malo donostiarrak zuzendu eta Unax Ugalde protagonista nagusi duen *Lasa eta Zabala* filma. Izenburuak adierazten duen moduan, 1983an Iparraldean bizi ziren Joxean Lasa eta Joxi Zabala Tolosako gazteen bahiketa, desagertzea eta eraiketa du istorioak oinarri.

Lantaldean Debagoieneko ordezkaritza ere izan da: Aitor Mantxola oñatiarra argazki zuzendaria da eta hark grabatu du, besteak beste, Lasaren amaren paperean sartu den Mariasun Pagoaga Arrasateko aktorea. Haiekin izan gara, filmatzean izan dituzten bizipenez berbetan.

### Istoriota eta filmatze gogorra

"Istoriota gogor besteko erreala da, eta, horregatik, hasieratik egin behar izan dut ahalegina, egoerak gairi ez nazan, nire buruari sinestarazten, paper bat egiten ari nintzela. Irudi eta une oso gogorrak daude. Elkarrizketa oso gutxi izan ditut, ia ez dut berbarik egiten, semea galdu duen amaren azalean sartuta, keinu eta aurpegi espresioekin sentimendu horiek azaltzea izan da, azken finean, nire lana. Orain arte egindako lanekin alderatuz, oso ezberdina izan da orainoa" dio Pagoaga aktoreak.

Aitor Mantxola oñatiarrak zinemagile moduan eskarmentua duen arren, hark ere *gogorra* hitza erabili du filmatzea definitzeko: "Eguraldi oso txarra egin du eta horrek asko zaildu du grabazioa. Kanpoan grabatu ditugu plano gehienak, eta asko gauez, goizaldeko bostak jota hainbatean. Trabak traba, baina, gustura sentitu naiz horrelako istorio bat filmatzen, eta baita etxe ondoan lan egiteagatik ere", dio Mantxolak.

### Profesionalak eta lagunak

Egoera gogorrei aurre egiten asko lagundu du lantaldearen profesionaltasunak eta taldeko lagun giroak. "Oso lantalde ona izan dugu, oso prestuak denak. Oso pozik nago sail guztietako kideek egin duten lan handiaz. Aspaldi-



Aitor Mantxola argazki zuzendari oñatiarra eta Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra. | AITOR MANTXOLA



Unax Ugalde eta atzean Pablo Malo. | JOSE HARO



Zuzendaria, laguntzaileari argibideak ematen. | JOSE HARO



Errudunen epaiketaren grabazio une bat. | JOSE HARO

tik ezagutzen nuen Pablo Malo, elkarrekin lan egin dugun lehen aldian bada ere. Iñigo Iruin abokatuaren azalean sartu den Unax Ugaldekin, berriz, lau film egin ditut. Oso ondo ezagutzen dugu elkar eta kimika handia dugu. Lankide ona da, asko saiatzen da besteon lana samurtzen. Gainontzeko aktoreekin ere ondo moldatu naiz, 80 bat inguru baziren ere; horien artean aurpegi ezagunak, Aitor Mazo, Josean Bengoetxea eta Oriol Vila. Film korala da; hau da, plano gutxi zuten aktore askorekin egindakoa", dio argazki zuzendariak.

Hasiera baten sei eguneko filmatze-plana bazuen Pagoagak, bost egun nahikoak izan zituen: "Gorpuak ekartzen dituzten uea grabatzeko bi egunean izan nintzen Tolosan, Iñigo abokatuaren Oiartzungo bulegoan beste baten eta beste biak, errudunen epaiketetan. Aurrez parte hartutako filmetatik ezagutzen nuen ia lantalde erdia, baita Pablo zuzendaria ere. Orokorrean, oso jende jatorria da, asko laguntzen dutenak", dio arrasatearrak. Eta zera gaineratu du: "Joxean Lasaren Axun arrebarekin egoteko aukera izan nuen. Oso ondo moldatu ginen. Oso pozik daude filmarekin; euren esanetan, gazteek, bereziki, ez dute gertatutakoekin berri zuzenik, eta, horrez gainera, senitartekoek bizi izandako prozesu luze eta gogorra ondo laburbiltzen du".

### Zinemaldian estreinatu guran

Dagoeneko hasita daude muntaia lanetan, nahiko aurreratuta doazela dio Mantxolak: "Pascal Gaigne ere badabil soinu banda konposatzen. Udan sartuko naiz ni laborategian, koloreak eta horrelakoak ajustatzeko helburuarekin. Eta, dena ondo bidean, Donostiako Zinemaldian estreinatzea da gure asmoa".

### Euskaraz eta gazteleraz

2.000.000 eurotik gorako aurrekontua du filmak eta formatu digitalean grabatu dute, euskaraz eta gazteleraz.

### ESANAK

**"Eskertzekoa da filmeko ekoizleek horrelako istorio bat aukeratzea"**

A. MANTXOLA | ARGAZKI ZUZENDARIA

**"Hitzekin baino gehiago, keinuekin erakutsi dut amaren mina"**

MARIASUN PAGOAGA | AKTOREA

# Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara  
Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50



# Neska-mutilek munduan zehar bidaiatzeko aukera dute Eneko Etxebarrieta eta 'Faustina' bizikletarekin

'Faustinarekin munduratz' lana bihar ikusi ahal izango da Bergarako Zabalotegin, 18:00etan hasita

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

*Faustinarekin munduratz* antzez-lana ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua, Bergarako Zabalotegi aretoan, 18:00etan hasita. Ikustera joan gura dutenek 4 euro ordaindu beharko dituzte.

**Tibet, Txina, Australia...**

Eneko Etxebarrieta gasteiztarrak lau urtean zehar munduari eman-

dako biran bizi izan zituen bizi-penetan oinarritutako lanarekin bidaiatzeko aukera izango dute 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutilek.

Etxebarrieta bera da protagonista antzezlanean, baina badu lagun fidel bat: *Faustina* bizikleta. Aurpegia dauka, bizi-bizirik dago, eta txirrinaren bidez hitz egiten du. Biekin hamaika abentura biziko dituzte bihar Zabalotegira gerturatzen direnek.

Etxebarrietak bisitatuk dituzten tokien gainean egin du berba: "Besteak beste, Tibetera igo eta jak animaliak ezagutuko ditugu; haien adarrek beldurtuta, Txinara jaitsiko gara eta gaua iristen denez, harresiaren ondoan kanpatu eta istorioak kontatuko ditugu Faustina eta biok. Australiara ere egingo dugu salto, aborigenekin ibiliko gara..."



Eneko Etxebarrieta eta Faustina bizikleta, antzezlanean. | ENEKO ETXEBARRIETA

Munduan zehar dauden kultura eta bestelako gauzak ezagutzera emateko modu bat ere bada kontakizuna. "Munduan dagoen aniztasunaren berri izatea funtsezkoa dela uste dut, oso garrantzitsua da. Gure planeta bakarra

da eta gauza asko eskaintzen dizkigu, mezu hori ere zabaldu gura nuen".

**Teatro Paraisoren laguntza**

Baina nola sortu zen antzezlanaren egiteko ideia? Etxebarrietak berak

eman ditu azalpenak: "Gure etxean ez dugu telebistarik ikusten eta abenturak kontatzeko ohitura daukagu; orduan ohartu nintzen umeez modu berezian jarraitzen zituztela istorioak. Sakon bizi dituzte, aho-zabalik geratzen dira. Eta horren ongi funtzionatzen zuela ikusita beste haurrentzako zerbait prestatzea erabaki nuen, ipuin-kontaketa bat edo. Baina azkenean antzezlan bat egokiagoa izango zela pentsatu nuen".

Eta gasteiztarrak bere hiriko Teatro Paraiso taldearen laguntza izan du proiektua egikaritzeko. Gainera, *Faustinarekin munduratz* lanari musika Bingen Mendizabalek ipini dio.

Emaitzari begiratuta, nahiko kontakizun fidela dela dio Etxebarrietak: "Antzezlanean kontatzen ditudan pasarteak benetan gertatu ziren; baina egia da interpretatuta daudela".

Bestalde, antzezlanaren osatzeko orduan kontuan hartu duten beste alderdi bat giroa sortzea izan da: "Neska-mutirik istorioan harrapatzeko funtsezkoa da giro aproposa sortzea. Hain zuzen, etxean erraz lortzen nuena beste antzetzoki batean ere erdietsi behar nuen".

ESANAK

**"Munduko aniztasunaz jabetzeko balio du antzezlanak"**

ENEKO ETXEBARRIETA | EGILEA

## Neighbor-en askotariko doinuak Zabalotegin

Bikoteak domekan egingo du emanaldia, 20:00etan hasita; sarrerak 8 euro balio du

Z.V.D.M. | BERGARA

Neighbor taldeak kontzertua eskainiko du domekan Bergarako Zabalotegi aretoan, 20:00etatik aurrera, eta sarrerak 8 euro balio du.

Bikotea da Neighbor; hain zuzen ere, Maite Larburu euskaldunak eta Josh Cheatham amerikarrak osatuta dago. Larburuk aditzera eman duenez, biek ala biek antzinako musika egitea dute ogibide: "Musikari klasiko moduan maiz jo izan dugu munduan zehar, eta bizilagunak ere bagara, Amsterdameko auzo berean. Baina duela urte pare bat gure kantu propioak sortzen hasi ginen".

Bikote bezala sortu dituzten kantuek ez dutela musika klasikoarekin zerikusirik gaineratu du hernaniarrak: "Ez da antzinako musika klasikoaren entzuten gure abestietan. Neighborrek egiten duena bestelakoa da, estilo anitz nahasten baititugu".

**'Ura patrikan' lana**

Domekako saioan entzungo denagatik galdetuta, honakoa erantzun du Labarburuk: "Cheathamek gitarra eta gantza joko ditu, eta nik, oster, nire ahotsarekin lagunduko ditut bere doinuak. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz kantatuko dut. Gaztelupeko Hotsak-ekin urrian kaleratu genuen *Ura patrikan* lana emango dugu ezagutzera: folk, blues, jazz zein Brasilgo musika eta kantu tradizioetatik hartutako herri kantagintzako pieza".

**'Zela Trovke' lana, aurretik**

Emanaldiaren aurretik (19:00) Asier Altunak sortutako *Zela Trovke* dokumentala ikusi eta ondoren solasaldia egingo dute. "Niri buruzkoa da, Holland Baroque Society-rekin irrati baten emandako saio batean gertatuko pasarte batean oinarrituta dago", dio Larburuk.

## Golden Apple Quartet taldeak apirilaren 5ean Espaloian emango duen saiorako sarrerak salgai

Apirilaren 5ean 22:30etik aurrera egingo du Golden Apple Quartet talde bateranoak emanaldia Elgetako Espaloian. Taldearen 25. urteurreneko bira aurkeztuko dute, eta horretarako, *Erase una vez... Los Golden* lana eskainiko dute jendaurrean. Antolatzailerik aditzera eman dutenez, dagoeneko ipini dituzte sarrerak salgai, 12 eurotan, Espaloian bertan zein webgunean, *kulturalive.com* helbidean eta Pikupe Produzko bidez.

## Opera-zaleak pozik eta gustura 'Madama Butterfly' lanarekin

Martitzenean Arrasaten izan zen emanaldia arrakastatsua izan zen

Z.V.D.M. | ARRASATE

Pozik eta gustura. Halaxe irten ziren martitzen gauean opera-zaleak Arrasateko Amaia antzokitik *Madama Butterfly* lanaz gozatu ostean. Izan ere, Irungo Luis Mariano elkarte lirikoaren interpretazioak guztiz harrapatu zituen istorioan.

Arrasateko Ozenki elkarte lirikoko kideak (antolatzailerak) pozik azaldu dira opera saioak izandako arrakastaz: "Oso balorazio positiboa egiten dugu, talde berri bat ekarri dugu, eta emaitza ona izan da. Sekulako *Madama Butterfly*-rekin gozatu genuen Hiroko Morita sopranoak eginiko lanari esker", dio Manu Gallardok, Ozenkiko kideak. Eta emaitza ikusita, udazken-negu parterako emanaldia antolatzen hasi direla gaineratu du Gallardok.

Luis Mariano elkarte eszena erregidore Amaia Calvok ere egin du berba Moritaren lanaz: "Uneoro dago taula gainean. Bi ordu eta erdi ematen ditu kantuan eta hori oso nekeza da. Moritak, baina, lan bikaina egiten du". Horren erakusgarria, publikoa erabat txunditu izana. Eta Anjel Pazos tenore irundarrak ere ongi bete zuen lana, Pinkerton kapitainaren paperean lan ona egin baitzuen. Gainontzeko protagonista eta musikariei dagokionez ere, txalotzeko lana egin zuten guztiek.

Originalari fidela izan arren, bestetan baino lan garaikideagoa



Madama Butterfly operaren Arrasateko emanaldia. | MIREN ARREGI

topatu zuten Amaia antzokira bertaratu zirenek; esate baterako, janzkerari dagokionez. Hain zuzen ere, *Madama Butterfly* istorioa XX. mende hasieran kokatuta egon arren, protagonista momentu batean bakerotan irten zen oholtzara.

**Atzetik lan handia**

Martitzenean dena ongi irten zedin, prestaketa lan handia egin zuten aurreko orduetan. "Arrasateko *Madama Butterfly* eskaini dugun hirugarren aldia izan da, eta egia da antolaketa lana-eta egiteko estreinaldi egunean baino hobeto moldatu garela".

Dena dela, lan handia dakar berarekin horrelako obra bat prestatzeko: argiteria muntatzea, eszenarioa, musikariaren atrilak, jantziak eta beste gertu izateko jende ugari mugitzen da. "Atrezkoari dagokionez, esaterako, nahiko simplea da kasu honetan, bestetan panel handiagoak eta ipini behar izan dira. Lan egiteko errazagoa izateaz gain, aire modernoagoa eman diogu".

ESANAK

**"Hiroko Morita sopranoaren lanaz gozatu genuen"**

MANU GALLARDO | OZENKI ELKARTEA

# Aramaion, Arrasaten eta Aretxabaletan hartuko du lur aurtengo Laburbirak

Proiektatuko diren zazpi filmen artean Kepa Errasti aretxabaletarren 'Euskaldun berriaren esketxa' dago

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Martxoaren 14an eman zioten hasiera XI. Laburbira jaialdiari eta apirilaren 12ra bitartean Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako udalerrietara –guztira 30 lekutara– iritsiko da. Eta Debagoienean ere egongo da hainbat autoreren film laburrez gozatzeko aukera

Hain zuzen ere, Aramaion martxoaren 28an, egubakoitza, hartuko du lur jaialdiak, kultura etxean, 22:30etik aurrera. Arrasateren txanda izango da ondoren, eta apirilaren 2an, eguaztena, Kulturaten proiektatuko dituzte zazpi film laburrak. Azkenik, Aretxabaletan ere egingo du geldialdia Laburbirak; hain zuzen ere, apirilaren 8an izango da, Arkupen, 18:30etik aurrera.



Asier Susaetaren 'Aio' filmaren une bat. | ASIER SUSAETA

## Zazpi film labur

Zazpi dira guztira Laburbiran ikusi ahal izango diren lanak, eta horien artean dago Kepa Errasti aretxabaletarraren *Euskaldun berriaren esketxa*. Hain zuzen ere, Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak 2013an sortu zuen *Prozaka.eus* ikuskizunerako sortutako esketxa da: "Agertzen garen aktoreak Aretxabaletakoak bertakoak gara; eta egoera ezberdineko piezak sortu genituen, kasu honetan, euskaldun berri bat da protagonista".


Laburbiran erakutsiko dituzten formatu laburreko gainerako filmak hauek dira: Pello Gutierrezen *Abuztua*; Asier Susaetaren *Aio*; Aitor Gameroren, Maider Fernandezen eta Maria Elortzaren *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa*; Iñaki Beraetxeren *Marilyn*; Mediaworks 3.0 taldearen *Plaza bakarra*; eta Lara Izagirrearen *Sormenaren bide*

KEPA ERRASTI | GIDOILARIA ETA ZUZENDARIA

## "Euskararen inguruko eztabaida sortzen du 'Euskaldun berriaren esketxa'-k"

Kepa Errasti aretxabaletarraren *Euskaldun berriaren esketxa* lana Laburbiran ikusteko aukera egongo da. **Laburbiran zure lan bat ikusteko aukera egongo da?**

Egia esan behar badut, nik esketx bezala kontsideratzen dut lan hori; izan ere, Aretxabaletako Loramendi elkarteak sustapen taldeak antolatutako *Prozaka.eus* ikuskizunerako grabatu nituenetako bat da. Youtubera igo nuen bideoa ingurukoek ikus zezaten, eta horregatik harritu nintzen Topagunetik bertatik deitu zidatenean; besteak beste, euskararekin zerikusia duenez, Laburbirarako proposa zela erabaki zuten antolatzaileek. Aurretik ere, 2011n *Maritxu*



TOPAGUNEA

*Aitona Mantangorria* deituriko laburra grabatu nuen Gabonetan, eta orain muntaketa prozesuan dago. Atzeratzen doan arren, maiatzerako-edo amaituta egongo dela iruditzen zait.

film laburra erakutsi zuten Laburbiran, eta kasu hartan nik aurkeztu nuen.

**Dagoeneko oihartzuna izan du lanak, ezta?**

Pentsa, 9.000 bisitatik gora izan du sare sozialetan! Ez nuen sekula pentsatuko...

**Euskararekin lotura, eta gogoe-tara bultzatzen duen lana.**

Eta gainera, badakit eztabaida sanoak ere sortu dituela. Esan didatenez, euskaltegi-eta eman izan dutenean eztabaida mamitsuak sortu izan direla euskaldun berrien eta zaharren artean. Ez neukan hori sortzeko asmorik, eta pozten naiz.

**Zertan zabilta orain?**

## II. The Addams Party DJ jaia bihar, barikua, Bergaran

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Gaztetxeko kideek bigarren aldiz antolatu dute The Addams Party jaialdia. Hala, bihar, zapatua, musika elektronikoz jantziko da kartzela zaharra, gaueko hamaitetan hasita.

"Aurrenekoz antolatu genuen jaialdiak izan zuen arrakasta ikusirik antolatu dugu bigarren Addams Party DJ gaua. Hori horrela, musika elektronikoen baitan, estilo askotariko DJ saioak izango dira". Hala eman dute aditzera Bergarako gaztetxetik.

## Askotariko musika

Martxoan zehar hainbat musika estilo entzun ahal izan dira gaztetxean, eta, kasu honetan, elektronikaren txanda izango da. Musika horren baitako hainbat estilo egiten duten DJek ipiniko diote musika zapatu gauari; Kasper, Asier Galiano eta Eder Soria, Javierski, Josu zein Mengu eta Eneko izango dira lan hori egiteko arduradunak; eskarmentu handiko DJak.

Begarako gaztetxean ari-tuko diren DJen saioekin dantzatu gura duenak 5 euro ordaindu beharko ditu.

## Bi talde hilaren 28an

Hilabeteari amaiera emateko, datorren martxoaren 28an Zarauzko bi talderen musika entzun ahal izango da Bergarako gaztetxean. Hala, Mor More eta Arrutiko Intxaurrek taldeak izango dira egubakoitz iluntzeko protagonistak. "Elkarrekin hainbat emanaldi ari dira egiten, eta, kasu honetan, gainera, azken lana aurkeztuko du Mor More bikoteak".

# Yllana konpainiak 'Muu!2' lana aurkeztuko du Elgetan, Espaloian

Zezenketen gaineko satira martxoaren 28an iritsiko da Elgetara (egubakoitza)

Z.V.D.M. | ELGETA

Yllana antzerki talde ezagunak martxoaren 28an zapalduko du Espaloiko oholta eta *Muu!2* izeneko bere azken lanarekin umorez jantziko du Elgetako kafe antzokia.

Espaloitik aditzera eman duteenez, beti izan dute Yllana konpainiarekin eta Madrilgo Alfíl antzokiarekin harreman ona. "Oso harreman sendoa izan dugu beti haiekin. Hala, hasierara bueltatzea zirkulua ixteko modu egokia dela iruditu zaigu, eta

elkarrekin ospatuko ditugu Yllana konpainiaren 20 urteak eta Espaloian 10 urteak".

## Satiraz jantzitako lana

Tauromakiari eginiko satirazko lana da Yllana konpainiak Elgetara ekarriko duena. "Zezenketa mundu horretan dagoen ohoreari, ausardiari eta aberri sentimenduei, bai eta matxismoari eta festa nazionalari egiten zaion satira da", diote Yllanako kideek. Bada, hain zuzen ere, XXI. mendean gizona eta animalia aurrez

aurre ipintzen dituen erritua kritikatzeko dute.

Duela 20 urte euren opera prima izan zen *Muu!* lanak ere balore horietan zituen hizpide, eta bi hamarkada beranduago tauromakian gauzak gutxi aldatu direla-eta gaia berriz jorratzea hautatu dute.

*Muu!2* ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko; aurrez erosita 12 euro balio dute eta egunean bertan, osterara, 15 euro. Espaloian eta Kultura Live-ren webgunean eskura daitezke.



*Muu!2* antzezlanak tauromakiari satira egiten dio | YLLANA



**Leire Lopez,**  
fisioterapia  
bulegoan,  
Oñatin.

Leire Lopez | Ekintzailea

**"Orain gazteak gara, hau da proiektu berriekin arriskatzeko aprobetxatu behar dugun momentua"**

JON MOÑUX | OÑATI

Leire Lopez 24 urteko fisioterapeuta oñatiarra da. Bartzelonan diplomatu zen orain dela pare bat urte, eta, 23 urte zituela, Eskuko Terapia Ortopedikoan espezializatutako kontsulta zabaldu zuen Oñatiko Kale Zaharrean. Fisioterapiaz gain, hala ere, beste pasio bat dauka, gozogintza. **Nola ausartu zinen 23 urterekin autonomo hastera?** Egia esan, beldur handiarekin hasi nintzen, baina geldirik egoteak gehiago beldurtzen ninduen. Hala, birritan pentsatu gabe sartu nintzen proiektuan. Arriskatzea erabaki nuen, eta, zorrik ez daukadanez, bertan jarraitzen dut. **Nolakoa izan zen hasiera?** Ezagun asko etorri ziren hasieran probatzera, eta horrek moralki

asko lagundu zidan, eta esperientzia aldetik zer esan... Lagunen babesari esker eta, batez ere, ahoz ahozkoari esker, oso ondo hasi zen esperientzia. **Laguntzarik izan duzu proiektua aurrera eramaterakoan?** Bai, noski. Amak behin eta berriz galdetzen zidan ea zergatik ez nintzen hasten nire kontu lanean. Baina nik ez nekien nola hasi, eta bai familiak eta baita lagunek ere animatu egin ninduten saiatzera, behintzat. Sostengu moralaguntza ikaragarria izan zen niretzat. Nire osaba batek, bestalde, asko lagundu zidan diru laguntzak lortzeko garaian. **Eta instituzioetatik?** Baita ere. Proiektu bat martxan jarri duen gazte ekintzailea izateagatik diru laguntzak eman

zizkidan Oñatiko Udalak. Bestalde, bulego hau ireki aurretik lanean ibili nintzenez, lau hilabete neuzkan kotizatuta. Diru horren beharra neukala frogatu nuen, eta lau hilabeteon baliokidea eman zidaten diru laguntza moduan. **Askok beldurrez irteten dira lan mundura ikasketak amaitzean. Zuk nola ikusten zenuen zure burua?** Ni beldurtuta sentitzen nintzen, esperientzia faltagatik, batez ere. Karreran zehar praktika dezente egin nituen arren, lantoki bakoitza mundu bat da, eta ez nekien nola moldatuko nintzen. Baina egia da inork ez dakiela hasieratik nola egin behar den lan, praktika beharra dago. Beraz, beldur barik sartu behar da edozein lanetara; horrela ikasten baita benetan. Ausartu egin beharra

dago, beldurtuta egon arren. Gainera, beldurrak gauza positibo bat ere badauka, gehiago exijitzen diozula zure buruari.

**Fisioterapeutaz gain, pastelgile amorratua ere bazara...**

Hala da. Txikitatik gustatu izan zait sukaldean ibiltzea eta, batez ere, gozogintzan aritzea. Edozein aukera aprobetxatzen dut bizkotxoak edota tartak egiteko. Hala ere, familiakoek asko mugatzen naute, hainbeste ezin dutela jan esaten baitidate.

**Zergatik aukeratu zenuen, orduan, fisioterapia eta ez gozogintza?**

Fisioterapia ere betidanik gustatu zait, eta gozogintzak lan handiagoa eskatzen duela esango nuke. Mundu horretan proiektu bat aurrera eramatea zailagoa eta gogorragoa dela uste dut.

**Bplan bezala ikusten duzu postreak egitearena?**

Oso gustura egingo nukeen lan bat da. Eta oraingoz zaletasun

moduan egiten dudan arren, ez dut baztertzen mundu horretan lan egiteko aukera.

**Hirugarren zaletasun bat ere badaukazu, bitxiak egitea.**

Bai. Lagun bat eta biok Udalak eskaini zuen ikastaro batera joatera animatu ginen; eta, harrezkerero, eraztun, eskumuturreko, lepoko eta belarritako pila bat egin ditugu. Hori ere zaletasun moduan hasi zen, baina zertxobait saltzea ere lortu dugu.

**Geldirik, behintzat, ez zaitu harripatuko krisiak...**

Inolaz ere. Geldirik egonda ez da ezer lortzen. Curriculum asko bota ditut orain arte, eta, beharrez gero, berriz ere botako ditut. Frustragarria izan ohi da ezetzak jasotzea, baina nik argi daukat borrokatzen ez badut inork ez didala baiezkorik emango. Orain gazteak gara, hau da proiektu berriekin arriskatzeko aprobetxatu behar dugun momentua.

#### PERTSONALA

**Bailarako gustuko txoko bat:** Urbia.

**Irakurritako azken liburua:** *Danza de dragones.*

**Pelikula bat:** *Los miserables.*

**Esaera polit bat:** *Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua.*

**Postrerik gustukoena:** gazta-tarta.

**Bizi izateko leku bat:** Bartzelona.

**Amets bat:** mundu osoan zehar bidaiatzea.

**Asteburuko plan ideala:** maite ditudanekin gozatzea; aire librean hobeto.

JON MOÑUX

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, sukaldia eta bainugela. Berokuntzarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607 27 66 47

**Bergara.** Bergara erdialdean 80 metro koadro inguruko pisua ematen da errentan. Hiru logela ditu eta sukaldia eta egongela handiak. Guztiz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 74 31 40

**Gasteiz.** Erdigunean, Domingo Beltran kalean, etxebizitza ematen da errentan. Bi logela eta bi bainugelakoa. Atikoa da eta terraza dauka. 10 urteko eraikina da, igogailu eta berokuntza indibidualarekin. 943 78 04 01 edo 696 75 76 19

104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 620 23 58 15

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 691 16 96 43

**Arrasate.** Pertsona bakarrarendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. 722 45 33 59

**Bergara.** Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 euro ordainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 83 82 15

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 03 33 56

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 654 24 13 27

**Bergara.** Emakume bat eta bi alaba txiki gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean. Urgentea da. Ana. 673 70 79 15

105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Arrasate.** Pisukide bat behar dugu Arrasaten etxea osatzeko. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. Berokuntza eta leiho bikoitzak. 230 euro hilean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera! 665 71 69 10 edo 608 57 97 70

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela dauzkat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dirapertsonako, gastuak barne. 672 68 57 77

**Oñati.** Logela ematen da errentan duplex berri bat osatzeko. Erdigunetik oso gertu. Sukaldia eta egongela erabilgarri. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 74 29 49

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Txeta kalean, ospital inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 68 75 22

4. LANA

402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Fatima. 696 81 09 32

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Mari Karmen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Arrasate.** Emakumezko arduratsua gertu haurrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahiago. Deitu 943 04 45 38 edo 652 58 41 99 telefono zenbakira

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 27 45 81

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Amaia. 639 04 65 11

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Loli. 676 67 19 07

# ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEFENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan eman
- 104. Errentan hartu
- 105. Etxeak osatu
- 106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

- 201. Saldu
- 202. Erosi
- 203. Errentan eman
- 204. Errentan hartu
- 205. Bestelakoak

4. LANA

- 401. Eskaintzak
- 402. Eskaerak
- 403. Bestelakoak

6. MOTORRA

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Alokatu
- 603. Konpondu
- 604. Bestelakoak

8. DENETARIK

- 801. Saldu
- 802. Erosi
- 803. Eman
- 804. Hartu
- 805. Trukatu
- 806. Galdu
- 807. Aurkitu
- 808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

- 901. Aurrrak
- 902. Harremanak
- 903. Deiak
- 904. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

- 10. RELAX

**Bergara.** Prest adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Deitu 665 75 41 32 zenbakira.

**Debagoiena eta Debabarrena.** Emakumea gertu arratsaldetan nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. Interesatuok deitu 943 75 20 98 edo 620 77 30 09 telefono zenbakietara

**Debagoiena.** Bergarako neska lanerako gertu, orduka zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 658 31 06 20 zenbakira

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. Deitu telefono zenbaki honetara: 639 02 00 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gazez ere bai. Garbiketarak, nagusiak zaintzen eta abar. 604 11 12 18

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmendua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Emakumea nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan aritzeko gertu. Orduka, egun erdiz edo egun osoz, baina etxean bizi izaten ez. 943 10 96 89 edo 671 18 50 83

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Prest nago garbiketarako egiteko, tabernetan jarduteko eta abar. Tel.: 630 99 11 85

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile lanak egingo nituzke, nagusia eta gaisoak zaindu edo etxean laguntzen. Opor garaietan ere bai. 602 516 728

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea sukaldian lan egiteko gertu. 619 18 81 86

**Debagoiena.** Gertu nago nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 632 98 17 79

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gazez ere bai. Garbiketarak, nagusiak zaintzen eta abar. 620 12 78 46

**Debagoiena.** Lan bila nabil umeak zaindu, atariak garbitu edo etxeari garbitzen. Esperientziaduna. Egunez disponibilitate osoa. Interesatuok deitu 943 79 96 25 edo 647 10 58 72 telefono zenbakietara

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pintorea naiz. Margoketa lanetan, garbiketara eta peoi lanetarako norbait behar baduzu deitu telefono honetara. Hurmi. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609 32 31 83

**Debagoiena.** Lan bila nabil, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Lege agiriak eguneratuta dauzkat. 662 23 13 01

**Debagoiena.** Lorazain eta kofratzaile lanetan lan egingo nuke. Tituluduna, esperientziaduna eta gidabaimena. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Espainiar nazionalitate duen emakuea, arduratsua eta langilea, lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Zerbitzari edo sukaldia laguntzaile ere aritu naiteke. Ez dut familia ardurarik. Autoa daukat. Berehala hasiko nintzateke. 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta langilea nagusiak zaintzeko gertu. Sukalde laguntzaile eta baso, baserri eta abarrekin lotutako lanak ere egingo nituzke. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna lan bila: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten, etxean bertan bizi izaten zein bestela, ospitalean, egoitzatan eta abar. Orduka eta asteburutan ere bai. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Berehala hasteko moduan. Deitu 685 42 72 80 telefonora.

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: gidari, zerbitzari, sukaldia laguntzaile, margoketa lanetan edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketara lanak egiteko taberna, elkarte, bulego eta abarretan. Esperientziaduna. 722 45 33 59

**Debagoiena.** Mutila gertu orduka edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta taberna eta abarretan garbitasun lanak egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, garbiketara, zerbitzari, banatzaile eta abarretan. 691 16 96 43

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Nagusi zein umeak zaintzen edo garbitasunean lan egingo nuke. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Asteleheneetik ostiralera. 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoa ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarte eta abarretan garbiketarako egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. 943 08 14 33

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeari garbitzeko. Esperientziaduna. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 18 81 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukaldia laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskortatzen bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska prest gauean lan egiteko, ospitalean edo etxean. Geriatria edo laguntzaile tituluduna. Autoarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 00 51 60

**Garbitasuna.** Atari, elkarte, taberna eta abarretan garbitzen lan egingo nuke. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Miguel. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 45 33 59

**Nekazaritza arloan lan egingo nuke.** Ganaduak zaindu, ortuko lanak egin, baserria txukundu eta abar. Edozein lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 17 45 11

**Oñati.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 662 17 10 15

**Pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, orduka edota egun osoz. 632 17 45 11

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 17 45 11

**Zaintza lanak.** Geriatriarikasak eta eskarmendua duen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Mari Carmen. 697 41 13 86

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

**Automatak.** Siemens 1 automaten eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Bergaran edo inguruan. 660 46 34 93 edo 943 76 15 76

**Bergaran.** Bigarren batxilergoko kimika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 695 99 15 67

**Matematika.** Batxilergoko bigarren mailako ikasleak matematika eskolak hartuko lituzke aste bukatuaren Bergaran. 679 74 00 61

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

**Txakurra galdu Urbian.** Martxoaren 12an txakur txiki bat galdu nuen Urbian. Pincher arrazakoa da eta urtebete dauka. Txipa dauka. 943 78 25 97 edo 666 39 15 03

8. DENETARIK

802. EROSI

**Kutxa-izozkailua** erosiko nuke. 656 75 76 98

**Lotaroko zakua.** Negurako bigarren eskuko lotaroko zakua erosiko nuke. 628 51 22 78

**Lursaila Oñatin.** Hektarea inguruko lursaila erosiko nuke Oñatin, ortua, fruta-arbolak eta animaliak jartzeko. Animalientzako bordabaldin badauka, ezin hobea. Eskerrik asko. 661 77 01 79

804. HARTU

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

806. GALDU

**Jaka beltza Bergaran.** Larunbat gauetan, martxoaren 8an, Bergarako Usoa edo Ariznoa tabernetan, norbaitek nire larruzko jaka beltza eraman eta berea utzi zuten. Nire emakumeendakoa da eta utzitakoa gizonendakoa. Nirekin harremanetan jarredila eskertuko nuke. Naiara. 606 82 45 52

## LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUA

- 3 BASO-LANGILE
- 2 PEOI LOREZAINTZARAKO

**Izaera:** 5 hilabeteko kontratuak.  
**Izena emateko epea:** martxoaren 21etik 29ra arte (biak barne).  
**Oinarri-arauak:** BAZen eta Udalaren webgunean jaso daitezke [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)  
**Eskabideak:** BAZen jaso eta entregatu behar dira.



Pertsonal Saila

## GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)

- Aireztatuak eta 4 metro baino gehiagoko altuera.
- Camper estiloko furgonetentzat edota kirol materiala gordetzeko egokia.
- Garajeen sarrera-atearen altuera 2,7 m.



**INFORMA ZAITEZE!**  
943 31 68 68

ASTEAGOIENAN



INIGO ASENSIO

'Goierriko 7 orduak' kirol-kultur ekitaldia

Bihar, zapatua, Ordiziako Beti-Alai pilotalekuan egingo den ekitaldia ikusi ahal izango duzue telebistan. Kultura arloko emaldiak tartekatuz, hainbat diziplinako kirol probak egingo dituzte bertan Iñigo Asensio esatariak aurkeztuta.

'Goierriko 7 orduak' Zapatua, 14:55



GOIENA

Eskoriatzako alkatea izango da 'Harira'-n

Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango da *Harira* saioko datoren martitzeneko gonbidatua. Elizateak, aurrekontua, kiroldegia, Zaldibar antzokia, mugikortasuna, hiri hondakinak... horiek eta gehiago izango ditu berbete gai alkateak Goiena telebistan.

'Harira' Martitzena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 21	ZAPATUA, 22	DOMEKA, 23	ASTELEHENA, 24	MARTITZENA, 25	EGUAZTENA, 26	EGUENA, 27
12:00 Aho bizarririk gabe	10:00 Kantari	10:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Ikusi irratia: Bertsomovieda	12:00 Tripa-zorri	12:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte
13:15 Zorion agurrak	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Zorion agurrak	13:00 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna	12:55 Tripa-zorri	12:30 Klaketa	12:20 Sagarrondotik
13:30 Kantari	12:00 Amaia DJ	11:05 Atik Zra: energia nuklearra	13:20 Zorion agurrak	13:25 Amaia DJ	13:15 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna	12:50 Ikusi irratia: Bertsomovieda
14:00 Debagoiena zuzenean	12:30 Berriak	12:00 Sagarrondotik	13:30 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari	13:55 Zorion agurrak
14:30 Berriak	12:40 Harira	12:30 Onein	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Amaia DJ	13:45 Tertulia	12:55 Berriak	15:00 Tertulia	15:00 Harmailatik	14:30 Berriak	14:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	14:45 Zorion agurrak	13:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:55 Zorion agurrak	15:00 Harira	15:00 Pedalka
16:30 Berriak	14:50 Berriak	14:05 Tertulia	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein
17:00 Klaketa	14:55 Goierriko 7 orduak	15:05 Kantari	17:00 Kantari	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
17:45 Rallysprinta	• Desafioa: Ordizia-Segura	16:00 Ikusmira: Gernikako suhiltzaileak	17:30 Sagarrondotik	17:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte	17:00 Kantari	16:30 Berriak
18:30 Berriak	• Kanporaketa lasterketa	16:30 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte	18:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte	17:20 Sagarrondotik	17:30 Klaketa	17:00 Ur eta lur
19:00 Tertulia	• Euskal Herriko korrikalari onenekin	17:00 Debagoiena zuzenean	18:20 Zorion agurrak	17:50 Ikusmira: Gernikako suhiltzaileak	18:15 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna	17:30 Tertulia
20:00 Debagoiena zuzenean	• Crossfit erakustaldia	18:00 Berriak	18:30 Berriak	18:20 Zorion agurrak	18:30 Berriak	18:30 Berriak
20:30 Berriak	• Txirrindulari lehia	18:05 Pedalka	19:00 Amaia DJ	18:30 Berriak	19:00 Harira	19:00 Pedalka
21:00 Debagoiena zuzenean	• Arte martzialak: Sanda profesionala	18:35 Tripa zorri	19:30 Harmailatik	19:00 Pedalka	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	• Zarpaldunak	19:05 Harira	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Kantari	20:30 Berriak	20:30 Berriak
22:00 Tertulia	• Estropadak ergometroan	20:10 Amaia DJ	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak	• Amets Bide Dantza Taldea	20:40 Zorion agurrak	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:30 Berriak	21:30 Berriak
23:30 Gurean gaur	• Duatloia	20:50 Berriak	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Pedalka	22:00 Amaia DJ
00:20 Tertulia	• Almar Irigoien	21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean
	• Bertsolariak	22:00 Pedalka	23:00 Berriak	22:00 Harira	23:00 Berriak	23:00 Berriak
	• Sokatira	22:30 Tertulia	23:30 Gurean gaur	23:00 Berriak	23:30 Gurean gaur	23:30 Gurean gaur
	• Aizkora-Trontza dema	23:30 Atik Zra: energia nuklearra	23:50 Debagoiena zuzenean	23:30 Gurean gaur	23:50 Debagoiena zuzenean	23:50 Debagoiena zuzenean
	• Txikon Xtreme	00:45 Debagoiena zuzenean	00:20 Harmailatik	23:50 Debagoiena zuzenean	00:20 Pedalka	00:20 Amaia DJ

TELEBISTA LAB.

Kultura aniztasuna izango dugu berba gaurko 'Tertulia'-n

Gaur, egubakoitza, Arrazakeria eta Xenofobiaren Aurkako Eguna da, eta, horren harira, kultura aniztasuna izango dugu berba gaur Larraitz Zeberio aurkeztutako *Tertulia* saioan. Gero, *Gu jatorri anitz herri bat* Foru Aldundiak egingutako ikus-entzunezkoa eskainiko dizuegu.

Bidali zuen kantu eskaerak 'Amaia DJ' bideoklipen saiora

Gazteok aukera daukazue zuen gustuko kantuak eskatzeko, eta telebistan jarriko dizkizuegu bideoklip horiek. Egin eskaerak modu honetara: Whatsapp edo Telegram mezua bidali 688 69 00 17 telefonora, edo idatzi Twitterren @amaiadj helbidera edo Tuentin DJ Amaia Txintxurreta-ra.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 21	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Zapatua, 22	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Domeka, 23	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Astelehena, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Martitzena, 25	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 26	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Eguena, 27	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 21	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Zapatua, 22	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 23	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 24	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 25	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 26	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 27	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
OÑATI			
Egubakoitza, 21	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 22	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 23	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 24	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 25	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 26	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 27	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen araberak, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 13°  
Min. 6°




Max. 11°  
Min. 5°

**ZAPATUA, 22**  
Eguraldia okerrera egingo du; ostarteak gutxituko dira eta euria egingo du. Temperatura ere jaitsi egingo da egunean zehar.

**DOMEKA, 23**  
Temperaturak behera egingo du domekan ere. Zerua hodeitsu egongo da, euria egingo du eta zaparradak bota ditzake.

EUSKAL HERRIA



Temperatura jaitsi egingo da asteburuan eta euritara joko du. Zeruan lainoak nagusituko dira.

GAZTE INFORMAZIOA

LEHIAKETAK

**Nontzefilmak 2014 Zinema eta Animaziozko Film Laburren Lehiaketa.** *Nontzeberri.com* kultura webgunek Nontzefilmak lehiaketa on line jarri du martxan. Nahi duenak parte har dezake, jaioterri eta bizilekua direnak direla, eta nahi adina lan aurkez ditzake. Epea: martxoak 28.

**Irudimena 2014.** Azkue Fundazioa; Euskal Kultur Erakundea. Gazteentzako sormen lehiaketa. Helburua da euskal kulturaren inguruko sormena bultzatzea gazteen artean. Epea: maiatzak 16.

UDATXOKO

**Informazioa.** Hainbat informazio aurkituko duzu bertan: udarako ekintzak (udalekuak, kanpaldiak, auzolandegiak, brigadak...) eta baita aisialdia-

ren esparruko lan eskaintzak. [www.gipuzkoagazteria.net/uda](http://www.gipuzkoagazteria.net/uda).

BEKAK

**MAEC AECID beka.** Garpenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren Argitalpen Arloan praktikak. Kanpo Araozetako eta Lankidetzako Ministerioa; Garpenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia. Hileko zenbatekoa: 1.500 €. Baldintzak: 35 urte baino gutxiago izatea, lizentzia edo titulu baliokidea, batez ere Humanitateetan. Epea: apirilak 10.

BEGIRALE IKASTAROA

**Begirale ikastaroa.** Hainbat eskolak begirale titulu ateratzeko ikastaro trinkoak antolatzen dituzte Aste Santurako. Informazio gehiago Gazte Bulegoan.



**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**  
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)  
Oñatiko Gazteentzako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)

## URTEURRENA

**Jesus  
Ezkurra Murua**

2011ko martxoaren 19an hil zen, 71 urte zituela.

Hirugarren urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 23an, 12:30ean, Arrasateko San Andres auzoko elizan.

*Zuk erakutsitako guztia gurekin gelditzen da  
Zure maitasun handia guretzako ahaztu ezina  
Zure aurpegi onaren irudia guk beti eramango duguna, aititi.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2014ko martxoaren 21ean.

## URTEURRENA

**Carmen  
Abarategi Eraña**

2013ko martxoaren 23an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,  
martxoaren 23an, 11:00etan,  
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2014ko martxoaren 21ean.

## URTEURRENA

**Maria  
Lete Aginalde**

Arrasaten hil zen 2013ko martxoaren 24an, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,  
martxoaren 23an, 11:00etan,  
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2014ko martxoaren 21ean.

## ESKER ONA

**Teresa  
Santamaria Madinabeitia**

Bonifacio Iraegiren alarguna

Bilbon hil zen 2014ko martxoaren 16an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali  
zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.*Zuk emandako alaitasuna beti izango da gure bihotzean.*

Bergaran, 2014ko martxoaren 21ean.

## ESKER ONA

**Rufina  
Celaya Ugarte**

Enrique Leteren alarguna

2014ko martxoaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta  
gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2014ko martxoaren 21ean.

## ESKER ONA

**Javier  
Arregui Aramburu**

Oñatin hil zen 2014ko martxoaren 11n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 22an, 19:00etan,  
Oñatiko agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi, alde zure eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko martxoaren 21ean.

## HILDAKOAK

**Antonio Bueno Cancela.** Arrasaten, martxoaren 12an. 82 urte.  
**Mari Paz Goenaga Urtzelai.** Oñatin, martxoaren 12an. 68 urte.  
**Bernardino Agirre Arenaza.** Bergaran, martxoaren 13an. 83 urte.  
**Migel Castillojo Blasco.** Bergaran, martxoaren 14an. 78 urte.  
**Raquel Garcia Lopez.** Arrasaten, martxoaren 15ean. 79 urte.  
**Eloisa Egaña Jauregialtzo.** Oñatin, martxoaren 15ean. 82 urte.  
**Felix Inozenzio Bujanda Sarasola.** Oñatin, martxoaren 15ean. 98 urte.  
**Teresa Santamaria Madinabeitia.** Bergaran, martxoaren 16an. 90 urte.  
**Benito Ijorra Larraza.** Oñatin, martxoaren 16an. 83 urte.  
**Arantza Urbistondo Gorrotxategi.** Bergaran, martxoaren 17an. 55 urte.  
**Antonia Pavo Segovia.** Arrasaten, martxoaren 18an. 86 urte.  
**Maria Palomero Cabrejas.** Bergaran, martxoaren 18an. 88 urte.

## OROIGARRIA

**Benito  
Ijorra Larraza**

Kanonigo Laterandarra

2014ko martxoaren 16an hil zen.

*Beti gogoan izango zaitugu*MU Enpresagintzako lagunak eta langileak.  
Oñatin, 2014ko martxoaren 21ean.

## OROIGARRIA

**Joaquin  
Ibabe Orueta**

1933/8/16 - 2011/03/21

*Ondion ez gara ahaztu zurekin ikasitakoekin.*Etxekoak.  
Arrasaten, 2014ko martxoaren 21ean.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.  
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.  
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**OROILORE**Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek  
eskatzen duen errespetu,  
arreta eta ardua handienarekin,  
nire asmoa da familiari ahalik eta  
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:  
Ez onartu besterik gabe  
zure aseguru-konpainiak  
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*

maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## ZINEMA

## ARRASATE

## AMAIA ANTZOKIA

**8 apellidos vascos**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Bram Barrabas**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## OÑATI

## KULTURA ETXEA

**The monuments men**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Dinosaurioen artean**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## ARETXABALETIA

## ARKUPE

**La gran estufa americana**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Dinosaurioen artean**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

## COLISEO

**Alabama Monroe**  
Zapatua: 17:00, 19:45,  
22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena eta martitzena:  
20:30.

**Cuento de invierno**  
apatura: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena eta martitzena:  
20:30.

## ANTZOKIA

**8 apellidos vascos**  
Zapatua: 17:00, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Martitzena: 20:30.

**El lago de los cisnes 3D**  
Zapatua: 19:45.

**Las aventuras de Peabody y Sherman 3D**  
Domeka: 17:00.

## GASTEIZ

## BOULEVARD

**Non stop**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:35.  
Zapatua eta domeka: 15:35.  
Egubakoitzetik domekara:  
17:50, 20:05, 22:20.

**El Gran Hotel Budapest**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:10.  
Zapatua eta domeka: 16:10.  
Egubakoitzetik domekara:  
18:10, 20:10, 22:10.

**8 apellidos vascos**  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:45, 00:15, 00:45.  
Zapatua eta domeka: 15:45,  
16:15, 16:45.  
Egubakoitzetik domekara:  
17:45, 18:15, 18:45, 19:45,  
20:15, 20:45, 21:45, 22:15,  
22:45.

**El origen de un imperio 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:45.  
Zapatua eta domeka: 15:45.  
Egubakoitzetik domekara:  
18:00, 20:15, 22:30.

**El origen de un imperio 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:00.  
Egubakoitzetik domekara:  
20:45.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 19:30.  
Eguztzena: 21:15.

**Blue Jasmine**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:30.

**Dallas Buyers Club**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00,  
22:25.

Zapatua eta domeka: 20:00,  
22:25.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 18:00, 20:30.  
Eguztzena: 20:00, 22:25.

**La bella y la bestia**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:45, 20:00.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 17:45.  
Eguztzena: 17:45, 20:00.

**Monuments men**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:35.  
Egubakoitzetik domekara:  
22:15.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 20:00.  
Eguztzena: 22:15.

**Las aventuras de Peabody y Sherman 3D**  
Zapatua eta domeka: 15:30.  
Egubakoitzetik domekara:  
17:30.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 17:30.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**  
Zapatua eta domeka: 16:00.  
Egubakoitzetik domekara:  
18:00, 20:00.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 18:00.  
Eguztzena: 17:30.

**12 años de esclavitud**  
Egubakoitzetik domekara:  
22:00.  
Astelehena, martitzena eta  
eguna: 20:00.  
Eguztzena: 19:40.

**Frozen**  
Zapatua: 15:30.

**Lluvia de albondigas**  
Domeka: 15:30.

**Futbolín**  
Zapatua eta domeka: 15:40.

**La lego película**  
Zapatua eta domeka: 17:50.

**Gravity 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:50.

**Her**  
Eguztzena: 22:20.

**Philomena**  
Eguztzena: 17:30.

**El lobo de Wall Street**  
Eguztzena: 17:45.

## FLORIDA

**8 apellidos vascos**  
Egubakoitza: 17:30, 19:30,  
20:00, 21:30, 22:30,  
23:25.  
Zapatua: 12:00, 16:35,  
18:35, 19:45, 20:35, 21:45,  
22:35, 23:40.  
Domeka: 12:00, 16:35,  
18:35, 19:45, 20:35, 21:45,  
22:35.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**  
Zapatua eta domeka: 12:00,  
16:30, 18:15.

**Joven y bonita**  
Egubakoitzetik eguztzena:  
20:15.

**Philomena**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:30, 22:35.  
Astelehentik eguztzena:  
17:30.

**Una vida en tres días**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15,  
22:35.  
Zapatua eta domeka: 20:15,  
22:35.  
Astelehentik eguztzena:  
18:00, 20:15.

**Gran Hotel Budapest**  
Egubakoitzetik domekara:  
18:00, 20:15, 22:35.  
Astelehentik eguztzena:  
18:00, 20:15.

**Dallas Buyers Club**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:30, 20:00, 22:35.  
Astelehentik eguztzena:  
17:30, 20:00.  
Astelehena eta eguna,  
jatorrizko bertsioa: 20:00.

**Pelo Malo**  
Egubakoitzetik domekara:  
20:00, 22:35.  
Astelehentik eguztzena:  
20:00.

**El origen del imperio**  
Egubakoitzetik eguztzena:  
17:30.



DONOSTIAKO ZINEMALDIA

## BERGARA 'Zela Trovke' film laburraren emanaldia

Asier Altuna *Xixi* bergararrak zuzendutako *Zela Trovke* film laburraren emanaldia egingo dute. Eslovakiako kanta tradizionala da *Zela Trovke*. Emanaldiaren ostean, solasaldia egingo dute zuzendariarekin berarekin.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.

## NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguzteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 21  
MARTXOA 27

## MUSIKA

## ANTZUOLA Hi Exekutibo eta Taupada taldeak

Biek ala biek zuzeneko egingo dute Antzuolako gaztetxean. Hi Exekutibo power hirukoaren lehen kontzertua izango da. 2013an material propioa prestatzen egon ostean, zuzenekoak egiten hasi dira. Taupada taldeak, aldiz, hard rocka eta metal melodikoa egiten du. *Arima galdua* lana erakutsiko du gaztetxean.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30etan.

## BERGARA Kantu-jira Aritzeta abesbatzarekin

35. urteurrena ospatzeko kalejira egingo du abesbatzak.

Bihar, zapatua, kalerik kale, 19:00etatik aurrera.

## BERGARA Drop eta Reves taldeak

Reves Bartzelonako taldeak bira egiten dihardu, eta Arrasateko eta Aretxabaleako kideek osatutako Drop taldearekin batera kontzertua egingo dute. Sarrerak, hiru euro.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30etan.

## BERGARA The Adams Party DJ gaua

Kasper, Asier Galiano & Eder Soria, Javierski, Josu eta Mengu & Eneko izango dira gaua animatuko duten DJak. Bost euro izango da sarrera.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

## ARRASATE Askotariko musika

Askotariko musikak ipiniko dituzte gaztetxean: blues-rocka, swinga, soula eta funka, besteak beste, entzuteko aukera egongo da. Sarrera doakoa izango da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

## ANTZERKIA

## OÑATI 'Arquetipos de mujer' antzezlan

Kultura klasikoa ikasten diharduten DBHko laugarren mailako

ikasleek taularatuko dute. Umorea eta mitologia bateratzen dituen 45 minutuko lana. Juan Lor aktorearen eskutik, greziar mitologiako zazpi jainkosaren arketipoak ezagutaraziko dituzte.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

## BERGARA 'Faustinarekin munduratz' antzezlan

4 eta 8 urte bitarteko umeentzat egingo du Eneko Etxebarrietak. Etxebarrietak berak *Faustina* bizikleta hartu (txirrinaren bidez berba egiten du) eta umeei telebista itzungi eta eurekin bidaia-tzeko gonbita egiten diete. Lurra ezagutzeko gonbita. Sarrerak lau euro.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

## BERGARA 'Debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan' erakusketa

Bergararrek argazki eta objektuen bidez gerra zibileko emakumearen bizimodua, eginkizunak eta eguneroko bizitza ikusteko aukera izango dute. Arrasateko Ekin Emakumeak Elkarteak osatutako erakusketa dago ikusgai, Bergarako Udala Artxiboak antolatuta. Martxoaren 23ra arte, Aroztegin.

## ANTZUOLA Torturaren gaineko erakusketa

Oñatiko Euskal Memoria Taldearen erakusketa ipini dute Antzuolan. Azken urteotan torturaren inguruan batzen ibili diren atatuak eta argazkiak jarri dituzte erakusgai, besteak beste.

Martxoaren 23ra arte, Oñaren, 18:30ean.

## OÑATI 'Panpin begirada' erakusketa

Sorkunde Etxebarriak egindako erakusketa. Birziklatutako materialez egindako 53 panpina daude ikusgai. Juana Erle eta Edurne Arzuaga Erleren omenez egindako erakusketa da.

Martxoaren 30era arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara arte.

## BERTSOLARITZA

## OÑATI Bertso-afaria gaztetxean

Egoitz Aizpuruk, Aratz Igartzabalek eta Ane Zuazubiskarrek egingo dute bertsoetan. Txartelak salgai Arrano tabernan eta gaztetxean bertan, zortzi eurotan. Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:00etan.

## ELGETA Gaztetxearen urteurrena: bertso-afaria

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko elkartuko dira mahaiaren

## KRITIKA

## Drama sinesgarria

Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra irabazi zuen *Pelo Malo* pelikula.

Filmak, aktore ezagunak agertzen ez direnez, agian ez du ikusleen arreta izango, ezta zinemaldi baten film original, ezberdin edo apurtzaile baten bila joaten diren kritikariaren gopespenik. Hori horrela, Mariana Rondonen lana ez da film arrakastatsua izango. Bai, oster, dokudrama kutsua duen lan indartsua eta sinesgarria. *Pelo malo* fikziozko filma izanda ere, errealitatek ateratakoa dirudi. Pertsonaiei bizitza ematen dietenak aktoreak izan arren, kamera istorioa jasotzera kalera irten dela ematen du. Hau da, zuzendariak kontatzen diguna sinesgarria izatea lortzen du eta, era berean, ikuslearen arreta eta interesa bereganatzea.

Istorioaren ardatz nagusia ama baten eta 9 urteko semearen arteko harreman korapilatsua izango da. Eskolarako haur bakoitzak argazki bat egin behar du. Ite kizkurreko (*Pelo Malo*) Juniorrek ile leuna duen kantari baten itxurarekin agertu nahi du. Amak ez du horrelakorik nahi, eta semea

## PELO MALO ★★★★★

Zuzendaria: Mariana Rondon.

Herrialdea: Venezuela.

Aktoreak: Samantha Castillo, Samuel Lange Zambrano, Beto Benites.

homosexuala izango ote den beldur da. Pasadizo horrek balioko du bien arteko harremanak azaltzeko. Amak ez du lanik, diru aldetik oso larri dabil, eta lana berreskuratzeko arazoak eta trabak besterik ez ditu. Ez du ilusiorik, eta bizitzaren eta gizartearen pisu suntsizalea sentitzen ditu. Hori horrela, duen samindura semearengana zuzenduko du. Agian, badakielako legez kanpo mugitzen den jendeak ez duela tokirik gizartearen, eta ez duelako hori semeari gertatzerik nahi.

*Pelo malo*-k istorio txiki bat erabiliaz gizarte baten ezaugarriak harrapatzen ditu. Maria Rondonek, diskurtsoak bota barik eta demagogian erori barik, Venezuelari buruz duen ikuspegia erakusten du, zauritutako bi pertsonaiaren erretratu indartsua eginda. Aipatzekoa da bi aktore nagusien lan ederra.

ANTONIO ZABALA



Arrasateko Udalerri esker

'El Interprete' antzezlan ikusteko bina sarrera zozketatuko ditugu

Arrasateko Amaia Antzokia  
Martxoaren 29an, 19:30ean

## PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Interprete] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefono: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com  
WhatsApp: KLUBA [Interprete] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Epea: martxoaren 26ra arte.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketari honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



GAZTELUPEKO HOTSAK

bueltan. Unai Gaztelumendik eta Julio Sotok egingo dute bertsotan. Txartelak salgai daude 15 eurotan, Haizea tabernan. Gaur da txartelak erosteko azken eguna. Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

## LITERATURA

### ELGETA Ipuin kontalaria, liburutegian

8-12 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du Lorea Larrañagak. Kontalari boluntarioen seigarren saioa izango da. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:20ean.

### BERGARA 'Cosser y cantar' helduentzako ipuin kontaketa

Ainhoa Limon ipuin kontalariak eta Juan Gutierrez musikariak, helduentzako ipuin kontaketa musikatu egingo dute. Martxoaren 25ean, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

### ESKORIATZA 'Alardearen seme-alabak' ikus-entzunezkoa

Emakumeek Irungo eta Hondarribiko alardeetan duten parte-hartzeari buruzko dokumentala. Besteak beste, parte-hartze horrek eragindako sentimenduak eta eztabaida aztertzen ditu. Gaur, egubakoitza, Ibarraundin, 22:30ean.

## DANTZA

### ELGETA Tango erakustaldia

Patxi tabernako kudeatzaile berriak haurrentzako puzgarriak eta tango erakustaldia antolatu ditu domekarako. Etzi, domeka, Patxi tabernan, 17:00etan.

## HITZALDIAK

### ARRASATE Euskal Herriko egoera sozioekonomikoaz berbetan

Hazi Hezi Izan dinamikaren baitan, Euskal Herriko egoera sozioekonomikoaz hausnartu, kontzientziak piztu eta alternatibak planteatu ditu Nekane Jurado ekonomialariak, ondoren buru-



GOIENA

**OÑATI Ikusi Makusikoen antzezlan, Haitirako dirua batzeko**  
Pake Leku elkarteak Ikusi Makusi taldeak *Vivir en Villa Titiritaina* antzezlan egingo du. Sarrerekin batutako dirua Parrokiako Misio Taldeak Haitin duen elkartzasun proiektura bideratuko dute. Sarrerak, bost euro. Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

jabetza ekonomikoaren bidean pausoak ematen hasteko. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

### ARRASATE 'Zer da kartzela': Arrasateko preso ohien bizipenak, euren ahotan

AGAKOK Arrasateko euskal preso ohien bizipenak entzuteko aukera eman gura die herritarrei. Horretarako, bazkaria eta tertulia antolatu dituzte. Bihar, zapatua, gaztetxean, 13:00etan.

### ARETXABALETA Brasilgo emakume nekazarien gaineko berbaldia

Hiruak eta Elkarheztzen taldeek antolatuta Debora Nunes izango da hizlaria. Brasilgo MST (Lurrik gabeko landa langileen mugimendua) elkarteak kidea da, eta emakumeen eta gazteen formazio eta antolaketa prozesuetan jardun izan du lanean. Martxoaren 24an, Arkupen, 19:00etan.

### ARRASATE Venezuelako kontsula, etxebizitzaren gainean berbetan

Yolanda Rojas Urbina Venezuelako kontsul nagusiak *Gran misión vivienda Venezuela* delako berbaldia egingo du. Martxoaren 24an, Kulturaten, 19:00etan.

### ARETXABALETA Sozio-ekonomiaren gaineko hitzaldia

Sozio-ekonomia kontuak izango dituzte berbagai Ander Rodriguez, Gizarte Politikako diputatuak eta Arantza Urkaregi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak. Bilduk antolatu du. Martxoaren 26an, Arkupen, 18:30etan.

## IRTEERA

### ELGETA Mendi irteera, Goizuetara

Goizueta-Arriurdin-Goizueta mendi irteera egingo dute Kantsatzeke mendi taldekoek. Etzi, domeka, geltokitik 08:00etan.

## DEIA

### OÑATI Sorturen herri batzarra

Ezker Abertzaleak (ELA, LAB eta Ernai) datozen urteetarako estrategia izango den *Euskal Herria Bidean* txostenaren aurkezpen eta eztabaidarako herri batzarra egingo dute. Bihar, zapatua, gaztelekuan, 10:00etan.

Mugimenduen Eltzia (martxoak 26) taldeendako lan saioak. Aipatutako egunetan, Eteon, 19:00etan.

### OÑATI Laura Mintegirekin tertulia

Liburutegiko Tertulixan irakurleen klubak *Sisifo maitemenez* lanaz hausnarketa egingo du. Gonbidatua, Laura Mintegi idazlea izango da. Martxoaren 25ean, kultura etxean, 19:30ean.

### ELGETA Garraioari buruzko batzarra

Gipuzkoako autobus zerbitzua hobetzeko bilera sorta. Antolatzailerak: Gipuzkoako Foru Aldundia. Batzar irekia. Martxoaren 26an, udaletxean, 18:30ean.

## IKASTAROAK

### BERGARA Gitarra ikastaroa

Martxotik maiatz bukaerara arte gitarra ikastaroa egingo dute zapaturu Zabalotegi aretoan, 11:00etatik 13:00ak arte. Izen-ematea Jardun Euskara Elkartearen korreoz edo telefonoz egin daiteke: [jardunkultura@topagunea.com](mailto:jardunkultura@topagunea.com) helbidean edo 943 76 36 61 telefonoan. Bihar, zapatua Zabalotegin, 11:00etan.

### ARRASATE Argazkigintza ikastaroa

Argazkigintzaren oinarriko kontzeptuak, Photoshop eta Lightroom programak landuko dituzte, apirilaren 29ra arte, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Antonio Murillo izango da irakaslea eta Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak antolatu du. Apirilaren 29ra arte, martitzenean, 18:00etan.

### BERGARA Askotariko ikastaroak

Miguel Altuna Institutuan askotariko ikastaroak dituzte esku artea. Batzuk %100ean diruz lagundutakoak. Informazio gehiago, ikastetxean bertan. Ikastaroak bukatu arte, Migue Altuna Institutuan.

## BIDAIA

### ESKORIATZA Algarvera bidaiak

Olazar erretiratuen elkarteak Algarvera bidaiak egingo du maiatzaren 4tik 12ra. Bada, izena emateko epea zabalik dago: bazkideek martxoaren 25era arte, martitzen eta eguen goizetan; eta gainerakoek, martxoaren 27tik apirilaren 10era. Bidaiak 490 euro balio du. Apirilaren 10era arte, Olazarren, 11:00etan.

**YLLANA**  
**¡MUU!**

**MUU! ANTZEZLANA**  
Ostiralean, martxoaren 28an, 22:30ean  
**Sarreraren prezioa:**  
15 € Txarteldegian.  
12 € aurrez aurrez erosita  
([www.espaloia.com](http://www.espaloia.com))

**ZEA MAYS**  
**+ anai arrebak**

**ZEA MAYS ETA ANAI ARREBAK**  
Ostiralean, apirilaren 4ean, 22:30ean  
**Sarreraren prezioa:**  
10 € Txarteldegian  
8 € Aurrez  
([www.espaloia.com](http://www.espaloia.com))

**GOLDEN Apple Quartet**

**'ERASE UNA VEZ... LOS GOLDEN'**  
**GOLDEN APPLE QUARTET**  
Zapatuan, apirilaren 5ean, 22:30ean  
**Sarreraren prezioa:**  
15 € / 10 € bazkideentzako  
([www.espaloia.com](http://www.espaloia.com))

Kultura era duinean Maala Kalea 2 - ELGETA - Tel.: 943 78 90 85 - [www.espaloia.com](http://www.espaloia.com)



# goiena

2014-03-21

BUKATZEKO

## Lehen 'museo', orain beste hainbeste

- ▶ Oñatin, Guria taberna berezia zegoen lokalean ditu Joxe Urzelai 15 urtean egurrez egindako lanak
- ▶ Herriko ermita guztien bilduma osatu du koadroetan, eta dorreen eta udaletxearen maketak ere baditu

JULEN IRIONDO | OÑATI

"67 urterekin hasi nintzen; inoiz egin gabea nintzen aurretik horrelako gauzarik. Neure kabuz hasi nintzen, denbora-pasa, halako asmorik gabe, eta hauxe aterada". 89 urte ditu gaur egun Joxe Urzelai oñatiarrak, eta lanetik erretiroa hartu eta gero 15 urtez egindako eskulanak jator erakutsi dizkigu. Oñatiko ermita guztiak, parrokiak eta Arantzazuko santutegia eta Bidaurretako monasterioa moduko eraikin esanguratsuen koadroak ditu alde batean, eta herriko dorreen eta udaletxearen maketak haien aurreko horman, lehen barra zegoen lekuan.

Barra, bai; izan ere, hori da arreta ematen duen beste gauza bat: Joxek bere lanak bildu dituen lekua lehengo Guria tabernaren lokala dela, erabat aldatua. Leku berezia zen Guria, *museo etnografiko* itxurako taberna, eta erakustoki itxura du orain ere, nahiz eta oso bestelako. Lokala familiarena izan, eta taberna ixtean bertan jarri ditu ganbaran pilatuta zituen eskulanak.

### Pazientzia handia

Pazientzia handiarekin eginak dira bai koadroak eta bai make-



Joxe Urzelai, Guria taberna zegoen lokalean, bere lanekin. | J.I.

tak. Piezatxoak banan-banan sortu eta elkarriz itsatsi gero. Ameriketako zuhaitzen egurra erabiliz dira eginak: "Sanba eta koto dira egurren izenak". Zainik ez dutela, horixe abantaila.

Zenbat ordu pasa ote zituen 15 urtean Joxek lan hauek egiten: batzuk egiten hile bi, beste batzuekin hiru... esan digunez. Bidaurretako monasterioarena egiteko lauzpabost. Hori koadroei dago-

kienez; udaletxearen maketa egiten, berriz, urtebete eman omen zuen: "Beti egiten, egunero, jai eta aste; obrarik onena hauxe izan da", dio.

Azkeneko lan mordoxka bat pilatuta, urrun geratzen da aurrenekoa, Magdalena ermita, Joxeren auzokoa –zein bestela lehena–. Lanak benetakora ahalik eta gehien gerturatzeko, jarduteko moduak ere bilakaera



Oñatiko udaletxearen maketa. | J.I.



Txistulari eta guzti. | J.I.

izan zuen. Argazkiak erabili izan zituen, baina, lehenago, ikustera joan eta apunteak hartuta egiten zituen; "bigarren eta hirugarren aldiz" ere joan behar izaten ei zuen lekura, aldi bakarretako informazio gehiegi eta. Eta behin egurrekin hasita, "pultsua eta ikusmena", denak onak behar. Utzi zion Joxek halako lanak egiteari; baina eginda daudenak erakusteko prest dago.

### AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Herria dute arnas

Pasa den larunbatean Altsasuko agerraldian eta gure eskualdeko hainbat iheslari ohi bertan zirela jaso genuen iheslari politikoen azken iniziatibaren berri. Kolektibo honek ere Euskal Herriko eskenatoki berrian beraien ekarpena egin nahi dute eta horretarako lehen pauso gisa etxerako bideari ekingo diote.

Euskal iheslari politikoen munduan zehar daude barreiatuta. Egun batean beraien etxea eta etxeok utzi eta ihesean joan behar izan zuten. Batzuk Euskal Herrian bertan gelditu ziren eta Ipar Euskal Herrian eman dituzte urteak eta urteak. Beste batzuek erreprosioren ondorioz konfinamendua eta deportazioa ezagutu dituzte. Bada, beste erremediorik ez zuten munduko beste herrialde askotara ihes egin duenik ere.

Edonola ere, erreprosiaren, pertsekuzioa eta jazarpena beraien azaletan gogor eta anker bizi izan dituzte. Bidean gelditu den debagoiendarririk ere badugu.

*Herria dugu arnas Euskal Herria amets* leloa erabiltzen dute iheslariak. Iragarri duten urrats honetan ere arnasa beharko dute eta gu gara eman behar diegunak.

*Txiron*-ek eta Aitziberrek esan bezala, azken iheslaria etxean izan arte arnagune izango gara geu ere.

R.P.S. Nº 148/10 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

ZURE BIGARREN

# VARILUX®

LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI\*

\* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA  
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan